

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2014-07-14
ASTELEHENA
461. ZENBAKIA
11. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.EUS
TOKIKOM



"Enplegurako ezinbestekoa da 'on line' ere izen ona izatea"

Miguel Fernandez | Irakaslea | 08

'Busti zaitez' kanpainarekin bat egin dute Oñatin | 5



Elektrogaia 2014: jai elektronikoa Arrasaten egubakoitzean hasita | 29



La Kantera taldea garaile Zaldibarko 24 orduko txapelketan | 25



Esprintean erabaki dute aurten Antzuola Saria

Imanol Estevez gasteiztarak denboraldiko bosgarren garaipena lortu du oso azkarra izan den lasterketan | 22

Imanol Estevez garaipena ospatzen Antzuolako helmugan.

JOSETXO ARANTZABAL

Estresa eta antsietatea ohiko arazo bilakatu dira egungo gizartean

Euskal Autonomi Erkidegoan gora egin du antsietateak eta depresioak izateko prebalentziak azken urteotan. Adituen esanetan hobe da prebenitzea erremedioa jartzea baino. Hala ere, horiei aurre egiteko hainbat irtenbide daude; onena, gertuko babesa. | 2

SINADURAK

	XABIER LETONA 9
	9 MAIDER ARREGI
	JOSU ZUGASTI 14
	16 MAIALEN MADARIAGA
	ALAZNE GURIDI 18
	19 AITOR AGIRIANO
	OIHAN VEGA 37
	40 AINHOA LARRANAGA

Fagorren eskaintzak hobetuko dituzte astean

Eguaztena arte dute epea eta lau enpresa daude interesatuta | 6

Arrasateko azoka plaza aurten hasiko da biziberritzerako forma hartzen igogailua jarrita

10

Antzuolarrek jaietarako berotze lanak egin dituzte

Buruhandi berriak aurkeztu dizkiete herritarrei | 13



Tartalo eta Mari Sorgina. | IMANOL SORIANO

Ur-pitxarrak gainezka egiten duenean

- 'Estresa' eta 'antsietatea' ohiko hitz bilakatu dira gaur egungo gizartean
- Egoerari aurre egiteko hainbat irtenbide daude; onena, gertuko babesa

IRATI GOITIA | ARRASATE

Estresa. Egun denok ezagutzen dugun hitza da hori. Egoera psikologiko edo emozionalarekin lotzen dugu. Hala ere, *estres* hitza fisikatik dator. Gorputz batek beste baten eragiten duen presioari erreferentzia egiten dio. 30eko hamarkadan, orde, Hans Seyle filosofo eta medikua termino bera erabiltzen hasi zen egoera eta gertaerek pertsonengan izaten dituzten erreakzioak izendatzeko. Hein batean, estresa arriskuaren aurrean organismoak bizi duen erantzuna da.

Egoerak gainezka egiten du

Azken urteotan gora egin du antsietateak edo depresioak izateko prebalentziak Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen artean [ikus taula]. Krisiak eta egoera ekonomikoak badute zeresana horretan. "Etorkizunean zer gertatuko den ez jakiteak estresa sortzen digu. Kaleratua izatearen beldurra, enpresen itxierak edo egoera ekonomikoak ziurgabetasuna eragiten dute. Etorkizuneko estresa da hori", zehaztu du Rafael Cristobal psikiatrak.

Hala ere, gaineratu du egonkortasun egoeretan ere izaten dela estresa eta hainbat izan daitezkeela arrazoiak: afekturik eza, eskolako emaitzekiko kezka, maitasun kontuak, bakardadeari beldurra... "Estresa arrisku baten aurrean gaudenean sortzen da. Sinpleki esanda, lau litro eta erdiko ontzi baten bost sartu nahi badituz, urak estresa sufrituko du, ez delako sartzen. Hein batean, estresa estutasuna da eta horrek gorputzean eragiten dituen ondorioak", azaldu du.

Estresak ez du aurpegirik

Bestalde, estresa jaiotzen garen unetik sufri daitekeela dio Cristobalek. "Ez du adinik. Pertsona bat sufrimendu egoera batean

dagoenean estresa egongo da, duen adina duela". Hala, adituak dio sehaska garaian izan daitekeen sintoma dela. "Haurra negarrez esnatzen bada eta ez badu inork babesten, horrek stres handia eragingo dio", argitu nahi izan du.

Beraz, ez dago adinik estresarentzat, psikiatraren esanetan, ezta profil zehatzik ere. "Besteengan konfiantza izateko, arazoak konunikatzeko, gaitasuna galdu dutenak izan ohi dira estresa pairatzen dutenak", adierazi du.

Bestalde, denboran zenbat luzatzen den edo zenbat iraun dezakeen zehaztea ere zaila omen da. "Bizi osoa iraun dezake eta gorputzean kalteak eragiten joan. Estres kronikoa deritzogu horri. Egoera batek eragindakoa bada, berriz, puntuala izan daiteke eta inguruko edo profesionalen laguntzaz gaindi daiteke".

Etxea lantoki izatearen kalteak

Jardun profesionala etxetik burutzeak hainbat abantaila ditu; adibidez, ordutegian malgutasuna. Hala ere, baditu desabantailak ere. Aspektu ekonomikoan, berogailuaren, aire girotuaren eta argiaren kostuaren igoera. Horrez gain: bakardadea, lanetik deskonektatzeko zailtasuna, lan-aukerak galtzeko arriskua... Hala, adituek diote asteko egun batzuetara mugatu beharko litzatekeela etxetik lan egitea (bostetik hirutan, adibidez). Edo etxetik eginiko lana, bilera puntualekin tartekatzea.

ESTRESAREN AURREAN, ERREMINTAK

AURRE EGITEKO:

- Medikamentua: betiere, medikuaren aginduz.
- Erlaxazioa: arnasketa eta muskuluen lasaitzea.
- Teknika kognitiboak: metodo psikologikoak pentsamendua egituratzeko.
- Masajea: muskuluak erlaxatzen eta odol-zirkulazioa estimulatzeko.
- Hidroterapia: urak, presio eta temperatura egokian, erlaxatzeko balio du.
- Musika-terapia: musika lasaigarri bezala.

PREBENITZEKO:

- Behar beste lo egin: zortzi ordu-edo. Gakoa da, baina, indarberritzea.
- Ariketa fisikoa: poza eragiten dute endorfinek.
- Erlaxazio teknikak: egunean hamabost edo hoge minutu. Alternatiba izan daiteke siesta.
- Denbora ondo organizatu: presak eta zereginen metaketak estresa eragiten dute.
- Lana bizitza pertsonaletik banatu.
- Komunikatu: arazoak gainean berba egin.
- Monotonia hautsi: atsekabea eragiten du.

ITURRIA: CONSUMER



Emakumea stres egoeran. | BHERNANDEZ

Sintomak eta irtenbideak

Zeintzuk dira, baina, sintomak? "Gertatuko denari ikara izango diogu", dio adituak. Horretaz gain, sentitzen diren ondoez eta nerbioek eragina izango dute organismoan, honakoak eraginda: bihotz-taupadak areagotu, arnasteko zailtasuna, zorabioa,

beherakoa, botaka egiteko gogo, gorputzeko hainbat atalen izerditzea, begi-ninien dilatazioa...

Egoera horri aurre egiteko norbaiten babesa edo laguntza izatea ezinbestekoa da, Cristobalen arabera: "Estresa eta antsietatea arintzeko orduan konfiantzarako duzun gaitasunak zeresan handia du. Izan ere, norbaiten laguntza izatea beharrezkoa izaten da arazoari aurre egiteko. Sufritzen ari denak konfiantzarako kapacitaterik ez badu, orde, eta dena beretako gordetzen baduzu, stres egoera uneorokoa izango da". Psikiatrak gaineratzen du beti dagoela arazoaren bat, eta, beraz, estreserako arriskua uneoro dagoela, baina gainditzea lortzen dela hurbilekoek arazoari aurre egiten laguntzen badiote.

Psikiatrak zehazten du, orde, hainbat kasutan arazoari ezin zaiola aurre egin ezagun baten laguntzarekin. Kasu horietarako, gaian aditu diren "talde profesional oso ona" dagoela dio. Eta gaineratu 50eko hamarkadatik aurrera ezagutza asko areagotu dela: "Orain dela urte batzuk hainbat desoreka ezezagunak ziren eta askotan pretikiloarengana jotzen zen. Oso ondo zegoen, laguntza eta konfiantza ematen zielako sufritzen ari zirenei, bai-

ANTSIETATEA ETA DEPRESIOAREN PREBARENTZIA

	2002	2007	2013
Gizon.			
15-24	%8,4	%7,5	%10
25-44	%10,1	%8,9	%13,9
45-64	%13,5	%12,3	%16,8
65-74	%11,7	%9,9	%14,9
>= 75	%18	%16,8	%23,9
Emak.			
15-24	%14,4	%15,9	%18,4
25-44	%15,3	%16,2	%21,5
45-64	%18,7	%21,7	%23,1
65-74	%20,2	%23,4	%29,7
>= 75	%22,2	%27,5	%32,7

ITURRIA: EUSTAT

ARRASATEKO BASERRIKO
PRODUKTUEN AZOKA

09:00-14:00 Seber Altube Plaza

HILEKO 3. ZAPATUAN

2014
uztailak 19

irailak 20
urriak 18
azaroak 15

Antolatzailea:



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN
Enplegu eta Garapen
Ekonomikoen Saila

Laguntzailea:



Arrasateko baserriek eta merkatariok konfiantza, hurbiltasuna eta kalitatea eskaintzen dizkizue.





medikamentu bat balitz bezala erabiltzen dute".

Beste metodo batzuk ere badaude. Adibidez, Lourdes Agirrebengoa antropologo oñatiarrak *El poder del ahora* filosofia oinarri hartuta estresa eta antsietatea arintzeko teknikak erakusten ditu. Hitzaldiak egingo ditu Eskoriatzan (hilaren 15ean eta 17an, 19:00etan, Ibarraundi museoan) eta erretiroa Arantzazun (uztailaren 19tik 20ra Santutegiko Hotelean. Izena emateko ointxebai@gmail.com edo 633 822 019) [ikus hari eginiko elkarrizketa]. Cristobal medikuak ongi ikusten ditu halakoak: "Uneoroko tentsioa bizi duten pertsonendako neurri egokiak izan daitezke yoga edo kirola, adibidez. Sintoma somatikoak (arnasketarako zailtasunak edo tentsio muskularrak) kentzen laguntzen die. Hala ere, hauek erremedio sintomatikoak dira. Hau da, yogarekin ez duzu kausa edo jatorria konpontzen, baina efektuak arintzen dituzu. Hein batean, Aspirina bat hartzea bezala da, baina naturalagoa, eta hainbat kasutan ondo doa".

Erremedioa jartzea baino, hobe izaten da prebentzioa, ordea. "Edozergatik haserretzen edo kexatzen gara. 'Oporretara joan gara eta euria!' Horrek gaingiditu eta dominatu egiten gaitu. Noski, eragin zuzena du gure egoeran", dio Agirrebengoak. Hein batean, ur-pitxarrak erraz egiten omen du gainezka, eta hori aldatzen saiatu behar da estres egoerara ez iristeko.

LOURDES AGIRREBENGOA | ANTROPOLOGOA

"Badaude antsietateari aurre egiteko metodo edo praktikak"

Antropologo oñatiarrak eguneroko estresa eta antsietatea arintzeko teknikak erakusten ditu.

Nondik datoz estresa eta antsietatea?

Kausa pentsamendu eta emozioen identifikazioan dago. Hau da, gure arreta pentsamenduek eta sentimenduek hartzen dute. Horiek iraganean edo etorkizunean oinarritzen dira; esaterako: honek hau esan zidan atzo edo hura dut egiteko bihar. Gure buruak ezin du hemen eta orain egon, pentsamenduez elikatzen da eta harrapatu egiten gaituzte. Horrela, pentsamendu horiek gure norakoa gidatzen dute. Une eta momentu honetan ez dauden arren, nik horretan dut burua. Ezin diogu horri aurre egin zerbait mentala delako. Nola ez zaigu antsietatea sortuko egoera horretan? Normala da. Ez badugu pixka bat praktikitzen eta gure atentzioa pentsamenduetatik hona ekartzen, antsietatea eta estresa sufritzea normala izango da.

Zer praktika dezakegu?

Arreta orain eta hemen dagoen zerbaitera ekartzea praktikatu behar dugu. Adibidez, arnasa beti dago hemen. Hartu bi segundo eta zure arreta ezarri arnasketan. Edo zure gorputzeko atal batean. Adibidez, oinez zoazenean oinetan edo ontziak

garbitzen zabiltzanean eskuetan. Poliki-poliki praktikatu eta ikusiko duzu izugarritzko indarra duela. Une honetara etortzeko sarrerak erabili behar ditugu; bestela, pentsamendu eta sentimenduek hartzen gaituzte. Beti saiatuko dira zu arduratzen edo prisa sartzen, baina zuk orainaz konexio hori bilatu behar duzu. Aldea nabaritzen da. Lehen, arazo bat zenuenean estresatu egiten zinen, eta orain, distantzia bat izango duzu. Pentsamenduek galtzen dute zorigaitzoko egiteko

"Kausa pentsamenduetan dago, gure arreta hartzen dute"

gaitasuna, estresatzeko edo antsietatea sortzeko ahalbidea eteten zaie poliki-poliki. Beste ate garrantzitsu bat onartzerena da. Gertatutakoa onartu behar da. Egin dezakezuna da onartu eta unean uneko urratsak egin. Eckart Tolle-k du idatzita *El poder del ahora* eta bertan azaltzen da dena oso ondo. Buruarekin eta pentsamenduekin irakurtzen badugu, zaila egingo zaigu, praktikatu egin behar da.

Zaila al da praktika?

Ez, oso erraza da. Adibidez, lanean kafe bat hartzera zoazenean, zure oinatzetan jartzea arreta, edo arnasketan. Hasiera batean, errazagoa da bakarrik zaudenean praktikatzeara,



baina denborarekin gaitasun handiagoa lortzen dugu eta jendaurrean egiteko gai izango gara. Oso garrantzitsua da. Kontuan izan behar dugu adimenari edo buruari asko gustatzen zaizkiola dramak. Tentsio eta haserre ez elikatzen da. Egun, jende asko dago sufritu nahi ez

duena, eta hasi dira metodologia hau praktikitzen. Neuk ere ikusi dut oso efektiboa dela. Gainera, sinplea da, etxean egin daite-

keen zerbait.

Praktikan jarriko duzue metodoa Arantzazun.

Bai; erretiroak egingo ditugu metodologia praktikan jartzeko. Lehena pase den asteburu honetan egin dugu, ondo joan da. Bigarrena hurrengoan (hilak 19-20) egingo dugu. Izena eman nahi duenak ointxebai@gmail.com helbidera idatz dezake edo 633822019 zenbakira deitu. Bestalde, hitzaldiak ere emango ditut Eskoriatzan teoria azaltzeko aste honetan.

MATRIKULA ZAITEZ!

Uztailaren 9tik 16ra

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S. COOP

Fabrikazio Mekanikoko Diseinua

Robota diseinatzen dute

Fabrikazio Mekanikoko Produzioaren Programazioa

Robotaren atalak eta piezak fabrikatzen dituzte

Sareko Informatika Sistemen Administrazioa

Robotaren hari gabeko komunikazioaz, ordenagailu muntaiaz eta sistema eragileen instalazioaz arduratzen dira

Automatizazioa eta Robotika Industrialia


Robotari autonomia ematen dioten elementuak instalatu eta programatzen dituzte

Sistema Elektrotekniko eta Automatizatuak

Robotaren instalazio elektriko eta elektronikoaz eta energiaren hornizioaz arduratzen dira

Mekatronika Industrialia

Robotaren muntaiaz eta mantenketaz arduratzen dira



www.mondragon.edu/gmh

Ikus itzazu argazkiak, inon baino lehenago Asteleheneko Goienan!

UDAKO ARGAZKIEN X. GOIENA LEHIAKETA

Erakuts egizkiguzu zure udako argazkiak eta irabazi sari bikainak!



Argazki guztiak fotoblog honetan: blogak.goiena.eus/argazkiak

Baita hemen ere: udakoargazkiak udakoargazkiak



XABIER ATXA ZUGASTI. 2013ko Sari Nagusiaren irabazlea.



ARKAITZ LASKURAIN. 2013ko bigarren sariaren irabazlea.

Har ezazu parte!



MIKEL ZAMORA. 2013ko hirugarren sariaren irabazlea.

Oinarriak

- Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, 5 argazki aurkez ditzake. Argazkiarekin batera adierazi beharko dira:
 - Egilearen izen-abizenak eta herria.
 - Harremanetarako telefonoa.
 - Argazkia noiz eta non ateratakoa den.
 - Argazkian zer eta nortzuk agertzen diren.
- Argazkiak bidaltzeko epea: uztailaren 11tik irailaren 21era arte (biak barne).
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (paperean, ondo erreproduzitzeko adinako bereizmenarekin).
- Udako argazkiak izango dira: berdin da aurtengo udan ateratakoak izatea edo beste uda batekoak.
- Irakurle/ikusleei aukera emango diegu argazki onenari botoa emateko blogean. Botoa ematen parte hartzen duten guztien artean beste sari bat zozketatuko da.
- Bidali argazkiak eta datu GUZTIAK e-postaz: argazkiak@goiena.com helbidera, edo Goienara ekarri: ARRASATE: Otarora Lizentziaduna 31, Arrasate
- Egoitzara ekartzekotan, gutun-azal batean sartuta, CD batean edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta JPG formatuan.
- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu beharko.
- Debagoieneko edozeinek parte hartu ahal izango du (ez da adin mugarik izango).
- Beste inon argitaragabeak izango dira argazkiak.
- Argazkiak izan daitezke koloretan zein zuri-beltzean.
- Irabazleak nortzuk diren urriaren 13an jakingo dugu, asteleheneko Goiena paperean.

- Argazkiak argitaratuko ditugu astero uztailaren erdialdetik aurrera asteleheneko Goiena paperean eta Goiena.eus-en sortuko dugun foto-blogean. Goiena telebistan, Facebook-en (www.facebook.com/udakoargazkiak) eta Twitter-en (www.twitter.com/udakoargazkiak) ere erakutsiko dira argazkiak.
- Epaimahaia Goienako kideek eta bailarako argazkilari profesionalak osatuko dute eta argazkiaren kalitatea, originaltasuna eta balio historikoa hartuko dituzte kontuan.
- Jasotako argazki guztiak argitaratzerik ez badago, Goienak aukeraketa egingo du egokien iruditzen zaizkion irizpideen arabera.
- Jasotako argazkiak Goienako artxiboan gordeko dira, eta, aurrerantzean erabiliz gero, egilearen izena adierazi egingo da.

HAR EZAZU PARTE SARE SOZIALETAN!

- Twitter eta Facebook bidez ere parte har daiteke lehiaketan, honela:
 - **Twitter bidez**, [@udakoargazkiak](https://twitter.com/udakoargazkiak) helbideari aipamena eginda argazkia bidaltuta, eta argazkiaren deskribapena eginda.
 - **Facebook bidez**, facebook.com/udakoargazkiak orriaren horman argazkia partekatuta, eta argazkiaren deskribapena eginda.
- Twitterrez eta Facebookez aurkezten diren argazkiak lehiaketako blogean agertuko dira, baina daukaten kalitatearen arabera argitaratuko dira Goiena paperean. Hau da, ez badaukate paperean argitaratzeko moduko kaliterik, ez dira argitaratuko euskarri horretan, baina sari nagusirako kontuan hartuko dira.

Sariak

1. saria

Nikon D3100 reflex argazki-kamera digitala eta 18-55 mm-ko objektiboa. Bergarako KB Photoestudio argazki-dendaren eskutik.

- 14,2 megapixel.
- Full HD bideo-grabazioa.
- 3 hazbeteko pantaila.
- Auto-fokatze sistema, 11 puntukoa.
- ISO 100-3200 sentsibilitatea.
- Integratutako edizio funtzio ugari.



2. saria: Orioko Aisia hotela, zirkuitu termala eta bazkaria edo afaria, Arrasate Bidaia-en eskutik.



3. saria: bi pertsonarendako afari edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.



Herritarren saria: SPC 5604S liburu elektronikoa irakurgailua Arrasateko Eroski hipermerkatuaren eskutik.



Boto emaleentzat saria: Munduko kafe ezberdinen otarra, Arrasateko Karibu munduko kafearen eskutik.

ANTOLATZAILEA:

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:

KB
photoestudio
www.kbphotoestudio.com

ARRASATE BIDAIAK

GURE AMETSA
JATETXEA

Arrasateko hipermerkatua
EROSKI
zurekin
karibu
munduko zaporeak
karibumundukosaporeak.com

Debagoienean ere bat egin dute 'Busti zaitez' kanpainarekin

Esklerosi anizkoitzaren gainean sentsibilizatzea da helburuetako bat

IRATI GOITIA | OÑATI
Hainbat izan dira esklerosi anizkoitzarengatik busti direnak Oñatin. Izan ere, *Busti zaitez* kanpainaren baitan, gaixotasunaren gaineko informazioa banatu eta kamisetak saldu zituzten Foruen plazan jarritako mahaian, atzo goizean. Oñatin ez ezik, Gipuzkoako beste hamalau herritan ere eraman zuten aurrera kanpaina atzoko egunez.

Foruen plazan jarritako mahaian izan zen Jose Luis Calvo gaixotasuna duen oñatiarra. "Kableak dituen makina batekin alderatu daiteke gure gaixotasuna. Huts egiten duen kablearen arabera, makinako gauza batek egingo du kale edo beste batek. Gure gaixotasunean berdin gertatzen da. Batzuei hanketan eragiten die eta beste batzuei berba egiteko erraztasunean. Sintomak ezberdinak izan ohi dira", azaldu zuen Calvok. Hala, gaixo bakoitzak bere beharren arabera tratamendua behar izaten duela ere zehaztu zuen. Gipuzkoako

gaixoak Donostiara joan behar izaten dira berau jasotzera, bertan ematen baitu elkarteak zerbitzua. Egun, helburua izaten da gaixotasunaren eragina ahalik eta gehien atzeratzea. Badabiltza, ordea, tratamendu berriak garatzen eta baikor da oñatiarra: "Inoiz ez da galdu behar gaitza osatuko duen tratamendua bilatuko duten esperantza".

Bestalde, Calvok eskerrak eman nahi izan zizkien herritarrei eta "ahal duten neurrian" laguntzeko eskatu. Kanpaina egun bakarrean egin arren, dohaintzak urte guztian zehar egin daitezkeela ere esan zuen. "Gaixotasuna urte guztian zehar luzatzen da". Urtero-urtero mahaian laguntzen izaten direnentzako ere eskerroneko hitzak izan zituen Calvok: "Beraiek gabe ezingo nuke ezer egin".

Arrasaten, igerilekura salto
Arrasaten, Musakolako igerilekuan egin zuten kanpaina joan den asteburuan. Eguraldia ez

zuten lagun izan. Hala ere, oso ondo joan zela adierazi dute eta fundaziotik balorazio positiboa egin. Guztira 1709 euro batu zituzten eta informazioa ere banatu zuten igerilekuan zirenen artean boluntarioek.



Atzo Oñatiko Foruen plazan jarri zuten mahaian kamisetak saltzen. | I.G.

ZURIÑE LOPEZ | FUNDAZIOKO KOMUNIKAZIO ARDURADUNA

"Harrera izugarria izaten du eta eskerrak eman nahi dizkiot gizarteari"

Ze harrera du *Busti zaitez* kanpainak Debagoienean?

Izugarria. Arrasate dago kanpainaren fundatzaile izan ziren herrien artean. Oso jende ona dugu bertan. Oñatin ere baditugu kideak. Eskerrak eman nahi dizkiegu bai elkarteko kideei, bai gaixotasuna dutenei, eta baita gizarteari ere bere osotasunean erakusten duten jarrerarengatik.

Zein da kanpainaren helburua?

Esklerosi anizkoitza gero eta ikusgarriago egin nahi dugu, gizarteari ezagutzera eman. Hein batean, herri-



ZURIÑE LOPEZ

tarrak sentsibilizatzea da lortu nahi duguna. Egia da, ordea, fundazioan dirua ere behar dugula eskaintzen dugun errehabilitazio zerbitzua ordaintzeko. Beraz, dirua batzea ere izaten da gure nahia.

Boluntarioen lana funtsezkoa izango da zuen fundazioan.
Bai, oso garrantzitsua da. Gainera, kanpainaren irudi ere badira, eurek hartzen dute gidaritza. Izan ere, gu hamar langile gara eta ezin gara 15 tokitan aldi berean egon. Horrela, eurek banatzen dute informazioa. Esango nuke, jendeak gero eta ezagutza gehiago duela gaixotasunaren inguruan, baina oraindik asko dugu egiteko. Gogoratu, interesatuek urte osoan zehar eskura dezaketela informazioa edo kamiseta; baita dohaintzak egin ere.

40 urteren ostean, sorterrira itzuli da Juan Kruz Maiztegi 'Aloña' iheslari oñatiarra

Ongietorria egin zioten egubakoitz iluntzean, elkarretaratzearen ostean

IRATI GOITIA | OÑATI
Egubakoitzero Foruen plazan egiten den elkarretaratzean azaldu zen eta bertan batutakoek

ongietorria egin zioten. Oñatiko zein bailarako beste herri batzuetatik joandako jendea elkartu zen hari harrera egiteko. Elkarreta-

ratzea amaitzean, kale Barria zeharkatu zuen iheslariak familiarekin batera, alde banatan herritarrek ikurrinak eusten zeuden bitartean. Ondoren, aurrekua egin zioten Arrano tabernaren aurrealdean. Ekitaldiarekin amaitzeko, Oñatiko Harrera taldeko kide batek hitz batzuk esan zituen, eta ondoren, Juan Kruz Maiztegik, *Aloña*, berak egin zuen berba. Eskerrak eman nahi izan zizkien guztiei. "Herria izan da gure arnas. Herriak ez gaitu ahaztu eta hori izan da gure eguneroko bultzada", adierazi zuen. "Euskaldun eta abertzale garenok azkeneko iheslari eta preso direnak herrira ekarri arte aurrera egin behar dugu", gaineratu zuen.



Juan Kruz Maiztegi 'Aloña' kale Barrian gora familiarekin. | IMANOL SORIANO

Gesalibarko Santa Ageda eliza berriz erabiltzeko moduan dago

I.G. | ARRASATE

Hainbat hilabetetako lanen ostean, atzo ireki zuten berriro Arrasateko Gesalibar auzoko Santa Ageda eliza eta horrenbestez erabilgarri dago hiletararako. Atzo, meza egin zuten, koruak girotuta.

Uste baino luzeago jo dute lanek. Izan ere, aurreikusten ez ziren hainbat lan egin behar izan dituzte: barrutik margotu eta sakristiako teilatua konpondu. Horretaz gain, aldarera doazen eskailerak eta aterpea ere berritu dituzte, besteak beste.



Gesalibarko Santa Ageda eliza, jendea mezara doala, atzo. | MAIDER ARREGI



KONPONKETAK:
Txapa
■
Margoa
■
Mekanika



Etzi, eguaztena, arte dute lau enpresak eskaintza hobetzeko aukera. | GOIENA

Lau enpresak hobetuko dituzte Fagorren eskaintzak

Fagor Taldeak aurre-akordioa sinatu du Catarekin Fagor marka ekoizteko

M.ARREGI - M.BITERI | ARRASATE

Orain arte Fagorreko aktiboak erosteko interesa agertu duten sei enpresetatik lauk agertu dute eskaintzak hobetzeko interesa. Aurkeztutako eskaintzak nahikoa onak ez zirela-eta, eguaztena arteko epea eman du epaileak horiek hobetuko dituzten ala ez erabakitzeko. Hala, Cata (CNA), Electrom Zerhamekin (Cevital), Txileko Inversiones Adelan (Ecomac) eta Italiako Ariston Thermo (Ariston) enpresak eskaintzak hobetuko dituztela esan dute. Ez dutenak lehian jarraituko dira, Amica eta Taurus enpresak.

Donostiako Merkataritza epaitegiak uztailaren 16ra arteko epea eman die lau enpresei Fagorren aktiboak erosi ahal izateko eskaintzak hobetzeko. Pedro Malagon epaileak, hasierako eskaintzaren perimetroa hobetzeko aukera eman die, gainera.

Bestalde, Fagor marka erabili ahal izateko negoziazioek ere aurrera dihardute. Izan ere, azkenean, Fagor Etxetresnen jabe berria izango denak aurretik itxi beharko du-eta akordioa Fagor Taldearekin, marken erabileraren gainean. Taldeak berak GOIENARI baieztatu dio Bartzelonako Cata (CNA) enpresarekin dagoe-

neko aurre-akordioa sinatuta duela. Lehenengo eskaintzak egiteko epea zabaldu zenerako sinatu zuten katalanek akordioa, epaileak azkenean beraien alde egingo balu markaren lizentzia zein baldintzetan egingo litzatekeen adostuz.

Baldintzak

Markaren lizentzia eskuratzeko Fagor Etxetresnen unitate produktiboekiko eskaintzak aurkeztu dituzten inbertitzaileei Fagor taldea ezartzen ari den baldintzak enpleguarekin lotuta daude bereziki, eta ondokoak dira: alde batetik, gutxieneko enplegu mai-

la bermatzea eskualdean: hain zuzen, Garagartzan, 200 lanpostu; Geyser Bergaran, 100 lanpostu; eta Eskoriatzan, 50 lanpostu.

Bigarrenik, markaren lizentzia urte luzetarako aitortuko da, gutxieneko enplegu mailari eusten dioten bitartean. Hirugarrenik, *royaltia* jaitsi egingo da: adjudikatzailaren urteko salmenten ehuneko bat ordainduko dio Fagor Taldeari. Sortutako lanpostu kopurua zenbat eta handiagoa izan *royaltien* ehunekoa jaitsi egingo da, eta enplegu maila batetik gora dohainekoa ere izan daiteke. Azkenik, markaren erabileraren kalitateari jarraituz eta kontrola egiteko esku-mena izango luke Fagor Taldeak.

Baldintza horiek kontuan izanda, Catarekin lotutako akordioaren berri eman dute Fagor Taldekoek: "Aurre-akordioa oso zehatza da; batez ere, Fagor marka hain zabala izanik, erabili ahal izango duten sektore eta produktuei dagokienez, baina termino orokorretan gakoak goian zehaztutako puntuetan daude".

Negozioak hiru enpresarekin

Denetara, hiru enpresarekin dabil gaur egun Fagor Taldea negoziatzen. Horren harira, jakinarazi dute Cevitalekin oraindik ez dutela adostasunik lortu, eta berba egiten dabiltzala.

Gaineratu dute Pedro Malagon epaileak eskaintzak hobetzeko eskaera egin ostean izan dutela Ecomac taldearen berri. Azken horrek Edesa marka nahi badu ere, Fagorrengan ere agertu du interesa, Fagorren markarekin ekoiztutako galdarak Basaurin egiten zirelako.

Horrekin batera, iturri berdinek jakinarazi gura izan dute Ariston taldea ez dela eurekin harremanetan jarri.

Informazio bilerak egingo ditu Ordainduk gaur eta bihar

OIHANA ELORTZA | ARRASATE

Eskuartearen duen informazioa emateko eta bazkideen iritzia jakiteko bilerak egingo ditu bazkideekin Ordaindu plataformak gaur, astelehena, eta bihar. Arrasateko Kulturetako areto nagusian izango dira, goizez.

Lan ildok

Ordaindu plataformako bozeramaille Mikel Olabek adierazi duen moduan, bazkideen iritzia konpartitu eta jaso gura dituzte bilera horietan. "730 bazkide inguru gara Ordaindun, eta guztiendako deialdia da. Gure asmoa da eskuartearen dugun informazioa ematea, eta bide batez, euren iritzia jasotzea", azaldu du.

Olabek aurreratu duenez, MCCrekin negoziatzen saiatzen ari dira: "Txema Gisasola zuzendari orokorra joan zenetik ez dugu harreman gehiagorik izan enpresarekin. Zuzendaritza berriak ez gaitu hartu oraindik". Hala ere, lan ildo instituzionalaz gain, beste arloetan aurrera doazela nabarmendu du. Hala, lan juridikoa eta herri mailakoa ere ari direla egiten zehaztu du, mobilizazioak deituz, esaterako.

Batzar orokorra irailean

Datorren irailean batzar orokorra egingo dutela ere aurreratu du Olabek.

Lapurtutako hainbat objektu aurkitu ditu Ertzaintzak

Autoetan egindako 30 bat lapurretaren ustezko egilea atzeman du poliziak Eskoriatzan

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Eskoriatzako lokal baten aurkitu ditu Ertzaintzak, jakinarazi dutenez, azken sei hilabeteetan ostutako objektuetako batzuk. Zenbait egunez, susmagarria zelatatu eta gero, hura atxilotu eta gordelekua aurkitu dute poliziek. "Ohiko delitugilea" dela diote Ertzaintzatik, 26 urteko gizonezkoa, eta Arrasaten, Eskoriatzan eta Aretxabaletan jardun du azken hilabeteetan.

Segurtasun Sailak emandako azalpenen arabera, gaez eta goizaldean jarduten zuen atxilotuak Arrasaten, Aretxabaletan eta Eskoriatzan, bizikletaz hara eta hona. Autoetako leihoak hautsi eta gero ibilgailuetan aurkitzen zituen objektuak lapurtzen ei zituen, gerora saltzeko. Ertzaintzak dioenez 26 urteko gizonezkoa "ohiko delitugilea" da eta lehe-

nago ere, 2013an, "antzerako ekintzengatik" atxilotu zuten Durangon. Bergarako Ertzain-etxean atxiki eta gero bertako Auzitegira eroan zuten egubakoitz goizean atxilotua.

Eskoriatzako lokalean aurkitutako objektuen artean daude, esaterako: eguzkitako betaurrekoak, gitarra elektriko bat, giltzak, ardo botilak, linternak, GPSak eta telefono mugikorrak. Ikerketan, Ertzaintzak jakin du Bilbo-ko bigarren eskuko salerosketa kate bati salduak zizkiola jada 90 objektutik gora, lapurretan salatutako batzuk barne.

Bergarako polizia-etxean

Aurkitutako objektuak Bergarako polizia-etxean daude eta berea den zerbait egon daitekeela uste duen herritarrak hara joan besterik ez du egin behar.



Eskoriatzako lokalean atzemandako objektuak. | ERTZAINZAK

Gehiago batu du Aldundiak errenta aitorpenetan

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Iazko errenta aitorpen kanpaina baino 30,8 milioi gehiago batu ditu aurten Ogasunak eta, zerga-erreformaren aurreko datuei begirata, 2011ko kanpaina baino 54 milioi gutxiago itzuli ditu aurten.

Amaitu berri den 2013ko Errenta kanpaina 374.060 aitorpen tramitatu dira, 2012ko kanpaina baino %1,7 gutxiago (380.699).

Itzulpen gutxiago

Ogasunak 284.641 zergaduni dirua itzuli behar izan die (%76,09); aurrekoan, berriz, 296.296 zergaduni. Dirua itzuli zaienei, 1.071 euro itzuli dizkie Ogasunak batez beste. Aldiz, %23,91k ordaintzeko emaitza izan dute.

Munduko kongresu garrantzitsuenean hizlari gonbidatua izan da Lazpiur

Bergarako enpresa "oso pozik" bueltatu da Berlindik, kongresutik

LEIRE KORTABARRIA | BERGARA
Bergarako Lazpiur enpresako ordezkariak oso pozik etorri dira Berlingo 21. International Forging Congress (IFC) topaketa espezializatutik, han hitzaldia egin eta gero. Enpresaren bozeramaileek honela esan dute: "Oso pozik etorri dira, dena bikain joan da. Hitzaldia oso ondo joan zen, eta jende askorekin egon dira kongresuan. Horietako askok entzun da zuten Lazpiurren izena, baina ez zekiten zehatz-mehatz zer egin zuten. Harreman berri asko egin dituzte eta lantzen diharduten aurrerapenen gainean hitz egin dute".

Azpiarratzeko modukoa da munduko forjaketa sektoreko kongresu garrantzitsuena dela Berlinen egiten den hori, eta antolatzaileek aukeratu zutela Lazpiur hitzaldia egiteko. Hain zuzen, joera berrien gaineko orientazioa ematea zen hitzaldia- ren helburua. Gonbidapen hori enpresaren 100 urteko historiako "inflexio-puntua" izan dela esan du Lazpiurrek: "Enpresak egiten duen lanaren kalitatea nazioartean



Lazpiurreko Ainhoa Ondarra eta Juan Vicente Bengoa, hitzaldiaren une baten. | LAZPIUR

publikoki txalotzeko modua da Berlinen hizlari izatea", esan du Lazpiurrek. Beste hau ere nabarmendu du: "kongresuan hizlari izan den Espainiako enpresa bakarra" izan dela.

Munduko enpresa onenak
Hiru urtean behin egiten da IFC eta mila bisitari inguru izan ditu; tartean, sektoreko eragile nagusiak. Aurten, ekainaren 29tik uztailaren 4ra arte izan da topa-

keta. Antolatzaile-burua Eurofor-ge da, Europako hamaika herrial- detako elkarteek osatua. Hark eskatu zion Lazpiurri sektorerako tresnen mekanizatuan dauden joeren berri eman zezan.

Programan, besteak beste, honako enpresak ere bazeuden: Indiako Bharat Forge, Alemania-ko Fraunhofer –Europako kor- porazio teknologiko handiena–, ZF multinazionala –automobil- gintzako hamar hornitzaile garran- tzitsuenetako bat– eta Europa, Japonia, India, Txina, AEB, Bra- sil eta Taiwango forjaketa-elkar- teak.

Datozen joerak aurrerat
Lazpiurrek bi negozio-lerro nagi- si ditu: makineria egitea eta hotzeko, erdi-beroko eta beroko forjaketarako zehaztasun handi- ko erremintak egitea. Automo- bilgintzako multinazional batzuk daude bere bezeroen artean, Daim- ler, Ford edo Volkswagen, esate- rako, eta Tier1 multzoko enpresak ere, GKN, Lear eta beste batzuk, esaterako. Bereziki sartuta dago Europako merkatuan, batez ere Frantzian eta Alemanian, eta Ameriketakoan, batez ere AEB- etan eta Mexikon.

Familia-enpresa da Lazpiur eta hirugarren belaunaldia bizi du. Agustin eta Miguel Lazpiur anaiek lideratzen dute enpresa. 100 langile ditu.

Berlinen uztailaren 1ean egin zuen hitzaldia Lazpiurrek, eta forjaketa-sektorean datozen joe- ra berriak aurreratzen ahalegin- du ziren Ainhoa Ondarra eta Juan Vicente Bengoa ordezkariak. Berritzeak eta plataforma tekno- logikoekin batera lan egiteak duten garrantzia azpimarratzen ahalegindu ziren.

Enpresak finantzatzeko 1.000 milioi ipiniko ditu Laboral Kutxak

L.K. | ARRASATE
Laboral Kutxak enpresendako finantzazio-lerro berriak aur- keztu zuen eguaztenean. Dene- tara, 1.000 milioi euro ipiniko ditu bere bezero diren enpresak finantzatzeko.

Lerro berri horren helburua da Laboral Kutxako "bezeroen proiektu bideragarri guztiek finantzazioa lor dezaten", kre- ditu kooperatibaren esanetan. Bezero bakoitzak 50.000 eta 500.000 euro arteko maileguak lor ahal izango ditu.

Laboral Kutxako Oscar Mugertza eta Josu Arraiza ardu- radunek prentsaurrekoan esan zuten, lerro horiek enpresa- banku merkatuan berritzaileak dira. Batez ere enpresa txiki eta ertainak babestu nahi ditue- la esan du Laboral Kutxak.

"Proiektu onak"

Finantzazioa "guztiz irekia" izan- go da eta askotariko helburuak izan ditzake: inbertsioa, likidezia, etxeko merkatua edo atzerrikoa, maileguak edo leasing-a, deskon- tua edo factoring-a... Laboral Kutxaren bezero diren eta "proiek- tu onak" dituzten ETE guztien- dako da lerro berri hori.

DATUA

50.000

EURO

Bezero bakoitzak 50.000 eta 500.000 euro arteko mailegua lor ahal izango du.

Euskadiko ekoizleen 10.000 elikadura-produktu ditu dagoeneko Eroskik salgai bere dendetan

Euskal ekoizleen 10.000 elikadura-produktu ditu salgai Eroskik, urtero 400 milioi euro erosketetan eta sektorean 2.350 lanpostu dakartenak; hori esan zuen Eroskiko zuzendari komertzial Eva Ugartek *Bertakoa delako* izeneko jardunaldian, eguaztenean. Euskadiko 250 ekoizle batu zituen jardunaldiak. Gaineratu zue- nez, "esparru oso lokaleko" ekoizle txikien %15 produktu gehia- go saltzen ditu Eroskik gaur egun 2012an baino.

Euskal kooperatibek ordezkaritza instituzional handiagoa izango dute

Eusko Jaurlaritzarekiko hitzarmena sinatu zuten lankidetza indartzeko

L.K. | ARRASATE
Euskal Mugimendu Kooperati- bistaren ordezkaritza instituzio- nala eta interlokutore izaera indartzeko asmoz, hitzarmena egin dute Konfekoop-ek eta Eus- kadiko Kooperatiben Goi Kon- tseiluak, batetik, eta Eusko Jaur- laritzak, bestetik.

Eguaztenean sinatu zuten hitzarmena bi erakundeetako ordezkariak.

Elkarrietzeta-mahaia

Helburua honako hau da: bien artean etengabeko elkarrietzeta -bideak irekitzea, garrantzi han- diko gaitan akordioak egiteko asmoarekin.

Gai horien artean hauek daude: Euskal Mugimendu Koo- peratibistaren (EKM) ordezkari- tza instituzionala, Euskadiko ekonomia eta gizarte arloetako kontsulta eta erabaki-lekuetan kooperatibak interlokutore izan daitezen; kooperatiba berriak eta enplegu kooperatiboa bul- tzatzea; EKMrendako dauden finantza-tresnak potentziatzea; pertsonak garatzea eta kapazi- tatzea; euskal kooperatibismoa zabaltzea eta ezagutaraztea; eta



Ubarretxena, Aburto eta Goienetxea, hitzarmena sinatzen. | KONFEKOOP

euskal kooperatiben arteko kola- borazioa bultzatzea.

Gai horiei eta beste batzuei eusteko, euskal kooperatibismo- ko ordezkariak eta Eusko Jaur- laritzako hainbat saileko ordezkariak –kooperatibismoak pisua duen sailetakoei– elkarrietzeta- mahaia osatuko dute.

Ekonomiaren bultzatzaileak

Gasteizen Euskal Mugimendu Kooperatibistak duen egoitza nagusian sinatu zuten hitzar- mena Enplegu eta Gizarte Poli-

tika sailburu Juan Mari Abur- tok, Euskadiko Kooperatiben Goi Kontseiluko presidente Maria Ubarretxenak eta Konfekoop-eko presidente Javier Goiene- txeak. Sinatutako testuaren hitzaurrean, kooperatibismoak "Euskadiko ekonomian eta gizar- tean duen garrantzi handia, nazioartean duen eragin naba- ria eta gero eta handiagoa, eta euskal ekonomia osoaren bul- tzatzaile gisa duen eginkizun nabarmena onartu" eta aitortu dute sinatzaileek.

Miguel Fernandez | Irakaslea eta 'on line' erreputazioan aditua

"Interneten ipintzen dugunarekin zentzuz ibili behar da, bizitzako beste edozein arlotan legez"

- Fernandezen esanetan, "jende asko ez da arduratzen Interneten duen ospearekin"
- Erreputazioa hobetzeko, profil profesionala egitea eta edukiak sortzea gomendatzen du

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko irakaslea da Miguel Fernandez. Azken urteotan, marketin digitalean eta *on line* erreputazioan espezializatu da eta, Jarraiko Formazioan, horren gaineko eskolak ematen ditu, batez ere profesionalendako eta enpresendako.

Nola espezializatu zinen Interneten eta *on line* erreputazioan?

Orain lau pabost urte, merkatu-nitxo garrantzitsu bat zegoela ikusi genuen; izan ere, gure inguruko enpresek marketin digitaleko formazio beharrak zituzten, ez zutelako gai hori ezagutzen. Batez ere, garapen eta komunikazio agentziekin lan egiteko orduan erabili behar zituzten irizpideekin pentsatzen hasi ginen gure burua espezializatzen eta formazio hori ematen.

Konturatzen gara *on line* erreputazio bat dugula?

Interneten dabilen jendeak badu horren berri, baina jende asko ez da arduratzen. Enpresen artean ardura handiagoa dago: Google-n norbaitek euren marka edo produkturen bat bilatzen duenean zer agertzen zaien jakin nahi izaten dute. Baina jende asko ez da arduratzen Google-k eurretaz duen irudiaz.

Eta nola sortzen da erreputazio hori, nahita sortzen dugu?

Ez; kasu batzuetan, pentsatu gabe egiten ditugu gauzak, baina argitaratzen den guztia da garrantzitsua, Google-k indexatu egingo duelako. Beraz, kontu handia izan behar da publikoa den guztiarekin, bilaketa-emaizetan agertu egingo delako; baina baita sare sozialetan esaten dugunarekin, behin zerbaite Interneten argitaratzen dugunean ez daki-gulako zer gertatuko den horrekin, beste inork konpartituko ote duen...

Azkenean, ospea pieza multzo batek osatzen dute; batzuk gureak dira, eta beste batzuk, gure gaineko iritzia ere eman dezaketen beste batzuenak.

Enpleguaz gain, beste ze arlotan da garrantzitsua gure erreputazioa edo izen ona zaintzea?

Enplegurako, ezinbestekoa da. Aukeraketa prozesuetan, Giza Baliabide departamentuek gero eta gehiago erabiltzen dute Google jendearen gaineko informazioa bilatzeko. Baina arlo pertsonalean ere eragina izan dezake, Interneten ematen dugun edozein iritzik-politika dela edo erlijioa dela, adibidez-asko markatuko gaituelako. Beraz, bi arloetan ibili behar



Miguel Fernandez, Mondragon Unibertsitatean. | GOIENA

dugu kontuz. Azkenean, zentzuz ibili behar da, bizitzako beste edozein arlotan bezala. Baina egia da tabernan egiten dugun lekuz kanpoko komentario batek, edo politikaren, erlijioaren, futbolaren edo beste edozeren gaineko komentario batek askoz eragin handiagoa hartzen duela hori bera Interneten egiten badugu.

Ze sare sozialetan egon behar da kontrata gaitzaten?

Profesionalendako sare sozial garrantzitsuena LinkedIn da, nazioartean ere. Lehen pauso bat LinkedIn profil on bat egitea da, profesional gisa eman nahi dugun irudiarekin. Batzuek lan-esperientziaren portafolioak izaten dituzte beste webgune baten, baina LinkedIn-ek ere ematen du aukera hori; beraz, gure esperientziaren portafolio gisa ere erabil dezakegu LinkedIn.

"Ospea osatzen duten pieza batzuk gureak dira; beste batzuk, ez"

"Enplegurako ezinbestekoa da ospe ona, baita arlo pertsonalean ere"

Bestalde, egiten dakiguna erakusteko, zertan aditu garen erakusteko bloga egin dezakegu, norbaitek mahai gainean gure curriculuma duenean, eta guri deitu edo ez pentsatzen dabilenean, Google-jo eta gu bilatzen gaituenean guk sortutako eta gus-tuko izan ditzakeen edukiak aurki ditzan.

Kosta egiten zaigun beste zerbaite bideo-curriculuma egitea da. Nik Ingeniaritzako ikasleei egitea gomendatzen diet. Hiru minutuko bideoan, poltsikoko telefonoarekin ere egin daitekeena, profesional gisa nortzuk garen azaldu dezakegu.

Ez dut esan nahi hori dena egin behar denik; aukerak dira. Kontrolatuko nuke Interneten nola agertzen garen, baina paranoiko bihurtu gabe.

Eta, azkenik, tresna horiekin irabazten duguna ez dezagun gero Facebooken edo Twitterren esandako zerbaitekin hondatu!

Euskadin, enpresek erabiltzen dute Internet jendea kontratatzeko?

Denetarik dago. Norbaiten gaineko informazioa Googlen bilatzea sekula bururatu ez zitzaioela esan izan didan Giza Baliabideetako jendearekin egin izan dut topo, bai. Baina, gero eta gehiago, jendeak besteen gaineko informazioa bilatzen du Interneten.

Eta bideo-curriculumek badute hemen arrakasta?

Askok kostatzen zaigu, lotsati samarrak gara, bai. Baina bideo-curriculumen oso adibide onak daude.

Izan ere, nagi samarrak garenez, gure curriculuma irakurrarazi beharrean, hor dagoena bi minutuko bideoan erakusten badugu, eragina handiagoa izango da.

Ahazteko Eskubidearen legeaz ze iritzi duzu?

Norberaren datuak ahazteko eskubidearen izenean formulario bat sortzera behartu dute Google, eta aste gutxitan milaka eskaera egon da, baina ikusi egin beharko da Googlek-enpresa ardurasu izatearen irudia duenak-nola erreakzionatzen duen eta zenbat lotura kentzen dituen. Nire ustez, ez du samurtasunik ipiniko, bere negozioa loturak samurtzea eta eskaintzea delako.

Horrelako lege bat beharrezkoa iruditzen zait, batzuetan egiazkoak ez diren edukietatik jendea babesteko, baina zaila izango da praktikara eroatea.

"Zertan aditu garen eta zer egin dugun erakusteko bloga egin dezakegu"

"Ez dago sare sozial guztietan egon beharrik; aukeratu egin behar da"

Gure izen onari kalte egiten dioten edukiak beste norbaitek argitaratu dituela konturatzen garenean, zer egin dezakegu?

Gure gainean beste norbaitek zerbaite argitaratzen edo esaten dabilela ikusten dugunean, gure gomendioa da harekin kontaktuan jarri eta, pribatuan, gure bertsioa edo iritzia ematea eta hark zuzenketa egin dezan itxoi-tea. Zaila da, askotan ez daki-gulako nor den egilea. Argitaratu den webguneak edo komunikabideak norberaren edukiak ipintzeko aukera ematen badu-adibidez, egunkari bateko albiste bat baldin bada eta komentatzeko aukera ematen badu-, gure bertsioa eman dezakegu. Horiek dira bide zuzenenak eta onenak. Lege kontuetan sartzea edo Google-ri loturak kentzeko eskatzea, aldiz, askoz konplikatuagoa da.

Facebook-en argitaratutako argazki bat baldin bada-oso kontu birala- eta lagun batek gu etiketatu bagaitu, etiketak ken ditzakegu edo gure edo seme-alaben argazkiak saretik ken ditzan eskatu lagunari.

Orain dela urte batzuk, bazirudien guztiok eduki behar zutela bloga; gaur egun, sare sozialetan profila... Zein izan daiteke Interneteko hurrengo moda edo eginbeharra?

Ez dut uste Facebooken, Twitterren, Linkedinen... denetan profila izatea beharrezkoa denik. Norberak aukeratu behar du eta selektiboa izan. Lan egin nahi badu, Linkedinen egin dezake profila, eta hortik kontaktuak egin, bizi osoan egin izan den moduan; lana kontaktuen bidez lortzen da, eta Interneten ere gauza bera da. Linkedinen, ez badituzu kontaktuak egiten, oso ikusgarritasun txikia izango duzu.

Bestalde, bideo-curriculumak ez dira hain gauza berria, baina norbera bereizteko moduko gauza izan daitezke.

Blogei dagokienez, bazirudien denok izan behar genuela gure bloga. Horrela, blog-burbuila sortu da eta batzuek diote blogen aroa bukatu dela, baina oraindik asko daude eta arrakasta dute hainbatek. Nik bloga egitea gomendatzen badut ez da milaka irakurle edo jarraitzaile izateko, baizik eta, profesional gisa nola-koa naizen eta zer egin dudana ikusi nahi badu inork, ikusi ahal dezan, eta lan-elkarritzeta batera ailegatu orduko, egiten daki-danaren eta egin dudanaren berri izan dezan.

HERRIAK

ARRASATE

Azoka Plaza berria aurten hasiko da biziberritzerako forma hartzen

- Lau fase aurreikusten dira; lehenengoan igogailua jarriko dute, aurten
- 2012an abiatutako GÜreztatu parte-hartze prozesuan hartu dira erabakiak
- Proiektu gidatzailea Tokiko Batzarrean onartu zen; oposizioa aurka dago



Azoka Plaza egubakoitz eguerdian —azoka eguazten eta eguboitzen egoten da zabalik—

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Azoka betidanik izan da erreferente Arrasaterendako. Lehen azoka estalia, 1901eko abuztuaren 5ean inauguratu zena, Pedro Biterik eman zion Arrasateko herriari. 1940ean leku berean beste bat eraiki zen Biterik emandakoa ordezkatzeko, eta azkenik, 1970eko hamarkadaren erdialdean, Seber Altube plazako azoka eraitsi eta egungoa eraiki zen, Ferialeku inguruan.

Beraz, 40 urte baino gehiago bete dira dagoeneko egungo azokan moldaketa garrantzitsurik egin ez denetik. Hala, Azoka Plazari beste buelta bat eman behar zitzaioela ikusita, Bagarak parte-hartze prozesu bat abiatu zuen —GÜreztatu izenarekin— herriko hainbat eta hainbat eragile zein norbanakorekin batera eta Udalaren laguntzarekin.

Proiektu estrategikoa

Izan ere, Arrasateko Udal Gobernuarendako legealdiko proiektu estrategikoetako bat da azoka biziberritzearena. Azokaren itxuraldaketa ezinbestekoa izango da azoka herriarrarendako erakargarriagoa egiteko, baina GÜreztatu ekimenak beste hainbat oinarri ditu: lehen sektoreari bultzada ematea eta kudeaketa eredua —abenduren 31n iraungiko dira postuen ustiapenerako pliegoak— zehaztea, besteak beste.

2012an hasi zen ekimena, Azoka Plaza nola birpentsatu zitekeen hausnartzen. Gogoeta-

rako fasea izan zen lehena eta orain hirugarren fasean dago egitasmoa: "Gauzatze fasean gauden. Aurreko urteetan proposamenak jaso, herritarrekin nahiz herri-eragileekin kontrastatu eta horien bideragarritasun soziala aztertu ondoren, orain gauzatze bidean jarri gura izan da adostutakoa", azaldu du Bagarako Onintze Guridik.

"Dimentsio handiko ekimena"

Epe luzerako proiektua da: "Kontuan izan behar dugu dimentsio handiko herri ekimena izaten ari dela, eta horrek zailtasun tekniko eta metodologikoak suposatzen dituela. Azken emaitza soilik ez, beharrezkoa da tarteko ibilbideko lorpenak ere balortzea", azaldu du Guridik. Horregatik orain arte egindako bidearekin oso pozik daude Bagarakoak: "Arrasateko herritar eta eragile askok hartu dute parte prozesuan,

eta tarteko hainbat helburu lortu dira dagoeneko: Azoka Plazaren eta kontsumo ohituren gaineko hausnarketa gizarteratzea, administrazio publikoko ordezkari politikoei zein teknikoei herriarrek batera lan egitea, izaera ezberdineko herri eragileak saretzea...".

GÜreztatu prozesuaren hirugarren fase honetan aspektu teknikoekin ari dira lanean bereziki: "Aurreko bi faseen aldean, kanpora begirako informazioan intentsitatea galdu da. Era berean, barneko lanak ez du etenik izan, baina aspektu teknikoek prozesua geldotzen dute, eta horrek intentsitate galera dakar". Hala ere, Guridik azaldu duenez, talde eragilerak kide berriak batu dira, eta partaideak "gogotsu" daude: "Irailetik aurrera proiektu arkitektonikoak bere bidea hartuko duenez, talde eragilearen eginkizunen artean dago herri mailako kon-

tsumo arduratsuaren gaia lantzearena; Azoka Plaza ahaztu gabe, noski".

Udala: "Biteri ez da egokia"

Udalak ekain amaieran onartu zituen gauzatze-fase horrek aurrera egin dezan ezinbestekoak diren neurriak; proiektu gidatzailea izango da oinarria. EAJk ez du begi onez ikusten eta egungo beharrek zeintzuk diren finkatu behar direla adierazteaz gain, azoka Biteri plazan kokatzea posible izango litzatekeen aztertzea eska-

tu dute. EAJko bozeramaile Juan Karlos Garitanoren arabera, Biteri plaza leku "aproposagoa" da azoka "dinamiko" bat lortzeko.

Horren aurrean Inazio Azkarragaurizar alkateak eta Joxe Etxebarria hirigintza zinegotziak honakoa diote: "Azokak prozesu parte-hartzaile bat eraman du eta bertan jende askok hartu du parte. Prozesu horretan azokaren beharren gaineko azterketa egin zen eta behar horiek dagoeneko finkatuta geratu dira; postu fin-koen eta mugikorren zenbatekoa

OPOSIZIOAREN IRITZIA

Juan Karlos Garitano | EAJko bozeramaile

"Egun dagoen lekuan, azokak ez ditu bideragarritasun baldintzak betetzen"

"Azoka egun dagoen lekuan mantentzea erabaki okerra da. 1970eko hamarkadan garajeak aurreikusten ziren soto baten azoka ezartzea erabaki zen eta gure ustez, leku horrek ez ditu azokaren bideragarritasuna bermatzeko baldintza minimoak betetzen. Kontsumo ohiturak, merkataritza eskaintza eta kontsumitzaileen behar eta eskariak izugarri aldatu dira azken 45 urteetan. Hala ere, Bilduk bertan mantendu gura du, bi milioi euro gastatu eta azokaren gainbeherari buelta ematea espero dute. Azoka Plazak porrot egiten badu euren izango da ardura bakarra. Aditu guztiek diote azoka batek bideragarria izateko irisgarria, kalearen maila berean egotea, irekia eta argi naturala izatea eskatzen duela. Egungo kokalekuak ez du baldintza horietako bat ere betetzen. Bestalde, parte hartze prozesua oso aberasgarria izan da. Parte hartu duten guztiek ilusioz eta gogoz aritu dira eta definitu diren ezaugarriei bat gatoz. Hala ere, Biteri plazako pergola ingurua azoka txukun, irisgarri eta erakargarri bat egiteko egokiagoa dela deritzogu".

ESANAK

"Herritar eta eragile askok hartu dute parte; tarteko hainbat helburu lortu dira dagoeneko"

ONINTZE GURIDI | BAGARA

DATUA

1.851.451

EUROKO AURREKONTUA

Lau fase aurreikusten dira eta guztiak batuz gero 1.851.451 eurokoa da aurrekontu osoa. Lehen fasean igogailua jarriko da —152.264 euro— eta %10a Jaurilaritzak jarriko du.



ateratako argazkian. | JOKIN BEREZIARTUA

eta horien ezaugarriak planoetan jasota daude. Beraz, orain gai horren gainean aritzea denbora galtzea litzateke". Gainera, behar horietarako Biteri plaza ez da nahikoa, Etxebarriaren arabera: "Biteriko azalerak ez du behar horiei aurre egiteko ematen".

Proiektu gidatzailea, onartuta
Ikuspuntu ezberdinak egon arren, proiektu gidatzailea onartu zuen Tokiko Gobernu Batzarrek. GÜrez-tatu prozesuaren bigarren fasean sortutako diseinu arkitektonikoaren lantaldeak garatu zuen txos-

ten baten oinarritu da Pablo Telleria Zueco arkitektoa proiektu gidatzaile hori egiteko. Lau dira proiektu gidatzaile horren helburuak: etorkizuneko merkatuaren zirriborro eta irudien bidez orain arteko itxaropenak formalizatzea, obrak izango duen kostuaren estimazioa kuantifikatzea, proiektuak beharko dituen faseak zehaztea eta prozesu osoak izango duen kronologia zehaztea.

Egungo azokak 2.809 metro koadro ditu guztira, eta 1960ko hamarkadaren erdialdean eraikitako etxebizitza bloke baten

azpian dago kokatuta. Azokaren zati estalia postu finkoez eta mugikorrez osatuta dago eta proiektu gidatzailearen arabera etorkizuneko azokak, bi postu eredu horiez aparte, espazio berria izango du. Espazio finkoa egungo azoka ereduaren jarraipena izango da, postu finko zein mugikorrek. Espazio moldagarria, berriz, azoka dinamizatzeko duten ekintzak antolatzeko izango litzateke eta espazio berria, azkenik, Mondragones kalearen mailan egongo litzateke azokaren ahalmen komertziala indartzeko. Txostenak aurreikusten du espazio bakoitza erraz bereizteko modukoa izango dela.

Lau fasetan egingo litzateke
Azokaren berritze lanak lau fasetan egitea aurreikusten da. Lehen fasean igogailua jarriko da eta aurten gauzatzea espero dute. Gainerako hiru faseak noiz hasiko diren aurrerago erabakiko da. Lehen fasearen aurrekontua da 152.264 eurokoa eta Eusko Jaurlaritzak %10 jarriko du -10.950 euro-. Azokaren ohiko jarduera ez du oztopatuko eta irisgarritasunean asko irabaziko da. Gainera, hurrengo faseetan egingo diren lanetarako mesedegarri izango da igogailu berria. Hiru hilabete beharko dira gutxienez.

Bigarren faseak *Berria* zatia du izen- eragingo ditu aldaketa handienak. Egungo aldapa ordezkatuko dute, izan ere, ez du Jaurlaritzaren irisgarritasun legea betetzen. Gainera, Mondragones kalean aurreikusita dagoen gun e estali berrirako ezinbestekoa izango da. Horrez gain, *Berria* fasean solairu berri bat eraikiko litzateke horretarako beharrezkoak diren esku-hartze guztiekin. Telleria Zueco arkitektoek gomen datzen dute jarduera eten edo beste leku batera eramatea, "segurtasuna bermatzeko". Bigarren fasearen aurrekontua da 421.217 eurokoa eta lanek sei hilabete iraungo lukete gutxienez.

Hirugarren faseko *Iparralde* zatia- lanek azokaren kontzeptu tradizionalari "jarraipen berri" bat ematea dute helburu. Azoka barruko iparraldeko hegala "modu integral" baten berrituko litzateke -postu finkoak zein mugikorrak, komunak...- eta barruko eskailera kentzea ere aurreikusten da. Barruko instalakuntza guztiak berrituko lirateke, eraikinaren egituraren eskua sartu barik. Aurrekontua da 784.033 eurokoa eta lanek sei hilabete iraungo lukete.


Laugarren eta azken fasean *Mendebalde* zatia- azokaren mendebaldeko zatia egokitzeko lanak egingo lirateke. Balio anitzeko gunea izango denez, etorkizunean askotariko moldaketak egiteko moduan utziko da. Aurrekontua da 493.935 eurokoa, lau hilabetetan egiteko.



Igogailua jartzea aurreikusten da hasieran, azoka irisgarriago egiteko.




Azoka Plazaren itxura berri posiblea, goitik begiratuta.



Azoka Plaza barrutik eta atzetik ikusita.



Azoka Plaza berrituaren sarreretako bat, Mondragones kaletik.



Beste sarrera, Mondragones kaletik ikusita. | IRUDIAK: PABLO TELLERIA ZUECO

Azoka izan daitekeena, bost iruditan

Goiko irudiek erakusten duten Azoka Plaza berritua zirriborrea da, eta Pablo Telleria Zueco arkitektoaren proiektu gidatzailetik daude aterata. Igogailua, Mondragones kalean jartzekoa den estalkia eta irisgarritasunerako lanak dira aldaketa edo berrikuntza aipagarrienak. Proiektu gidatzaileak obrak nola egin daitezkeen markatzen du eta beti egon daitezke aldaketak.

Lehen fasearen barruan igogailua jarriko dute kanpoko eskaileretan eta hori aurten gauzatzea espero du Udalak. Gainerako hiru faseak noiz hasiko diren aurrerago erabakiko da.



Auzotar ugari 'Bihurri'-ren erakustaldia ikusten. | GARI GARITANO



Zapatu gaueko erromerian giro ezin hobea jarri zuen Unsain taldeak. | GARI GARITANO

BERGARA

Aldai-Egiako auzotarrak irabazle Angiozarrekoak atzera bota ostean

Auzotarrak pikea egiteko gogoz geratu ziren; atzo, San Kristobaleko elizan meza eta luntxa egin zuten

MAIDER ARREGI | BERGARA

San Kristobal jaiei jarraipena eman diete asteburuan Aldai-Egiako auzotarrak. Zapatuan, lehen aldiz, Angiozarkoen aurkako pikea, apustua, egitekoak ziren, baina

azken unean Angiozarkoak atzera egin eta ez ziren aurkeztu. "Aise irabazi diegu, kar-kar", zioten umorez Aldai-Egiakoek.

Gauean auzo afaria egin zuten. Nagusienak elizaren goialdean

dagoen elkartean batu ziren, 15 bat lagun. Eliza aurreko belardian aldiz, gazteenak, 20 bat. "Langostinoak ditugu jateko", zioen pozik Gari Garitano auzotarrak. Giro ezin hobean, Unsain musika tal-

dearen trikiti doinuekin lagun-duta, erromerian gozatu zuten afalostea.

Tolosako taldearen aurretik baina, urdaiazpiko pare baten zozketa ere egin zuten algar

artean. "Trikiti doinuak bukatzean *agrofesta* egingo dugu. Guk jarriko dugu musika ordenagailu batekin goizaldera arte", zioen DJ lanak egin zituen auzokoak.

Meza eta herri kirolak

Atzo meza izan zuten eguerdian. Ondoren, auzoko erretiratuen dako mokadutxo banatu zuten. Herri kirolendako tarte ere izan zen Ernesto *Bihurri*ren erakustaldiarekin.

Eta Bergarako trikiti eskola-ko gazteen emanaldiak bukaera polita eman zien aurtengo jaiei San Kristobalen.



JOKIN GARITAONANDIA
ALDAI-EGIA

"Pikea egiteagatik auzokoen artean antolatu genuen, baina pena izan da, atzera bota dira eta azken momentuan. Batzuekin pike sanoa dago, beste batzuekin aldiz, ez horren sanoa, kar-kar. Txikitatik elkar ezagutzen gara eta!".



GARI GARITANO
ALDAI-EGIA

"Ez dugu entrenatu beharrik izan, gure talde propioa sortuta geneukan, dena prest pikea egiteko; gero, atzera bota ziren Angiozarkoak. Eskerrak bertako auzotarrak animatzen diren erromerian ondo pasatzeko".



IÑIGO ZUBELDIA
ELOSU

"Musikariok kiloko langostinoak ditugula afaltzeko esan digute eta animatu gara ona etortzera Elosutik. Erromerian joko dut Unsain anaiekin. Kalejira eska dezakete edo dantza suelta; eskatu eta jo egingo dugu guk".



JOSE FELIX LARRAÑAGA
ANGIOZAR

"Txikito bat hartzera eta bi auzoen arteko pikea ikustera etorri naiz. Oraintxe bertan esan didate ez dagoela pikerik, pena, ikusteko gogoz geratu beharko. Beno, tragotxo bat hartzeko parada egingo dut lagunekin".



JUAN INAZIO UGARTE
ANGIOZAR

"Durangon bizi naiz baina astero, zapaturo, etortzen naiz Angiozarrera. Pikea, apustua dagoela esan didate eta horregatik etorri naiz San Kristobalera. Orain bidaia aprobetxatuko dut eta txikito bat hartu".

OÑATI

Astotrastoren konpainian, jai paregabeak pasa dituzte Triana auzoan



'Ilinti' kafea egin zuten emakumeak, kafe-baso bana eskutan dutela. | I. SORIANO

IRATI GOITIA | OÑATI

Astotrastoren jaitzietarekin ekin zieten jaiei Oñatiko Triana auzoan egubakoitzean, eta asteburu osoan zehar ez da ekitaldirik falta izan. Egubakoitzean bertan, buruhandiak izan zituzten eta baita erromeria ere.

Zapatuan helduek zein umeez gozatzeko moduko egitaraua izan zuten. Besteak beste, 15:00etan auzoko tradizio den *Ilinti* kafea hartzeko elkartu ziren helduak. Umeek, berriz, asko disfrutatu zuten abentura parkean eta ur-pistolen gerran. Gaueko erromerian asko izan ziren jo eta su dantzan ibili zirenak eta *txupitei-xiak* arrakasta izan zuen.

Atzo, meza eta luntxa izan zituzten. Ondoren, auzo bazkaria; 30 lagun elkartu ziren. Arratsaldean, berriz, pailazoak eta herri-ko bertsolarien saioa.



Astotrasto, Triana auzotik egin zuen ibilaldian, egubakoitzean. | IMANOL SORIANO

ANTZUOLA

Antzuolarrak jaietarako motorrak berotzen hasi dira asteburuan

- Bariku arratsaldean, Tartalo eta Mari Sorgina buruhandi berriak aurkeztu zituzten
- Atzo, domeka, herriko erretiratuek bazkaria egin zuten eskolako patioan

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Euskal mitologiako bi pertsonai nagusiak buruhandi bilakatu ditu Iñaki Mata antzuolarrak. Bi hilabeteko lanaren ostean, bari-kuan aurkeztu zituzten Tartalo eta Mari Sorgina buruhandiak. "Gure sustraiekin zerikusia duten pertsonaia atseginak nahi genituen buruhandi bilakatu aurtengoan. Iaz, Antzuolako pertsonaiak egin genituen: Alardeko Buruzagia eta Mairua", azaldu zuen Jone Larrañaga kultura teknikariak.

Bi pertsonaien gaineko informazioa eta diseinua eskuratzeko, Internetera jo zuela zioen Iñaki

Mata artistak: "Behin diseinua eginda, buztinaz burua egin nuen; gero molde eta ondoren kartoi-ara atera nituen margotzeko", eta gaineratu: "Ohorea da buruhandiak egitea nire herrirako; iaz egin nituen lehenengoak eta erronka bat izan da; asko disfrutatu dut". Umeek ere gozatu zuten Mataren emaitzarekin. "Askok gustatu zaizkigu, Tartalo da politena; gainera, ez digu beldurrik ematen naiz eta begi bakar bat izan eta korri asko egin", zioten gaztetxoek. Oierrek, berriz, nekaztutako korrikaldiaren ostean, "gogor" jo zutela zioen irribarrez.

Erretiratuen bazkaria

Atzo, urtero egiten duten moduan, herri bazkaria egin zuten eskolako patioan herriko erretiratuek. Giro ezin hobean, 120 lagun batu ziren bazkaltzeko. "Egun oso polita izaten da. Lagunekin solasaldi polita egin eta festak ate joka ditugula gogorarazten digu urtero bazkari honek. Primerako giroa izaten da, eta aurtun, eguraldia ere lagun izan dugu", dio Genaro Laskurainek, Landatxope elkartearen lehendakariak.

Ima Beristain alkatea eta Nagore Dos Santos Gizarte zinegotzia ere bertan izan ziren.



Ima Beristain buruhandi berriekin udaletxeko balkoian. | IMANOL SORIANO



Eskolako patioan 120 erretiratu batu ziren urteroko bazkaria ospatzeko. | JOSETXO ARANTZABAL



Tartalo eta Mari Sorgina buruhandi berriak Herriko Plazan. | IMANOL SORIANO

ARRASATE

Eskola Politeknikokoei diploma banatu zaie

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko 179 ikaslek karrera amaierako diplomak jaso zituzten bariku arratsaldeko ekitaldian. Hain justu ere, Goi Mailako Heziketa Zikloetako ikasleen artean banatu zituzten diplomak. Egindako ahalegina eta merezimendua aitortu nahi izan zaie modu horretan.



NIRE USTEZ

JOSU
ZUGASTIUtikan espainiar
errepublika

Bergaran egon nintzen aurrekoan... eta harri-duraz ikusi nuen espainiar banderen kopurua hazi egin dela *normaltasun* handiz, gure ibarreko hiriburuan. Izan ere, Espainiako legeen aginduz udaletxean dagoenari eta noizbehinka epaitegian egoten denari Fraiskozuri plazakoa batu zaie. Lehenengo biek ohiko bi koloreak dauzkate; azkenak hiru.

Iraganeko gertaerak lausotu zaizkigu, batxilergoko historia liburuek hautsa hartu ahala eta iraganaren irakurketa erromantikoak ugaritu ahala (espainiar errepublika independentziaren eta iraultzaileen Arkadiaren ataritzat saltzen duten irakur-

ketak). Baina datuak hor ditugu. Eta bakoitzak ematen dizkien ñabardurak gorabehera, burugorrrak dira.

Gogora ditzagun Azañaren hitzok: "Si esas gentes van a descuartizar a España prefiero a Franco. Con Franco ya nos entenderíamos nosotros". Edo Negrin-enak: "Antes de consentir a nacionalistas que nos lleven a desmembraciones que de ningún modo admito, cedería el paso a Franco". Gogora dezagun birritan ukatu zigutela autonomia euskaldunoi, gerrak onartzea beste aukerarik utzi ez zien arte. Gogora dezagun Errepublikak nola zapaldu zituen 1934ko Asturiasko meatzariak, Franco jenerala bidaliz... Gogora dezagun! Eta ez gaitezen hain inozoak izan; geure errepublika da behar duguna.

"Gogora dezagun:
geure errepublika da
behar duguna"Mankomunitateak deituta bilera egingo dute, enpresei
hiri hondakinen bilketaren berri emateko

Eguaztenerako, uztailak 16, Arrasateko zenbait enpresatako ordezkariak bilerara deitu ditu Debagoieneko Mankomunitateak. Udaleko ordezkariak, teknikariak eta Hondakinen Bulegoko hezitzaileak bilduko dira enpresarekin. Helburua da azaltzea hiri hondakinen bilketak nola funtzionatzen duen, Arrasaten azaroan jarriko den sistema berria dela eta.

Mankomunitateak enpresekin biltzeko beharra ikusi du: "Arlo batzuetako jardueren ondorioz edo eremu konkretu batzuetan oso informazio zehatza zabaldu behar dela ikusita, industrialdeetako enpresa eta establezimendu guztiekin harremanetan jartzeko beharra ikusi dugu". Bi bilera egingo dira, 11:00etan eta 18:30ean.



ANE ELORDI

Segurtasun neurri berriak prest

Kanpanzar atzean utzi eta Arrasateko sarreran dagoen Bizkaia etorbide gaineko zubiaren lanak bukatu dituzte. Ekainaren erdialdea ezkerreko ibili dira Caldereria Markulete enpresako langileak konponketa lanetan; segurtasun neurriak hobetzea zuten helburu. Horretarako, segurtasun hesiak jarri dituzte, baita sarea ere, 2,25 metroko altuerakoak.

'Arrasate Andredetan'-ek
udal plana du esku artean

Martxoan hasitako hausnarketa prozesuak eman ditu bere fruituak, eta erronkak finkatu ditu taldeak

ANE ELORDI | ARRASATE

Eguenean egin zuten bilerarekin, *Arrasate Andredetan* prozesuak etapa berri bati ekingo dio. Hogeita hamar bat pertsona bildu ziren Emakumeen Txokoa antolatutako bilera irekian. Martxoan hasi zuten diagnosiarren inguruko hausnarketa egin eta ateratako ondorioak aurkeztu ostean, udal plana diseinatzeari ekin diote.

Eredu berri bateratu baten alde dabilta lanean; izan ere, Bagarako Iraitz Agirrerren esanetan, emakumeei zailtasunak jartzeko zailak parte hartzeko orduan. Hori dela eta, berdintasun politikak martxan jarri nahi dituzte. Besteak beste, herriko eragileekin harremanetan jartzeko nahia adierazi dute, hainbat eremu eta arlotan eragiteko; betiere, kolektiboki eragiteko asmoa erakutsi dute. Bestalde, transmisioan gabezia nabarmena dagoela ondorioztatu dute. Bada, ardatz horiek kontuan izanda, irailerako udal



Egueneko bilera Emakumeen Txokoa. | MAIALEN TORRES

plana aurkeztu nahi dute; aurretik taldean egiaztatuko dute, orain arte bezala, saio irekien bitartez.

Martxoan abiatutako bidea

Martxoan 50 emakume inguruko taldea biltzen hasi zen; norbanakoen esperientziak abiapuntu izanda, besteak beste, elkarrizketa eta tailerrak egin

zituzen. Ekintza horietan oinarrituta diagnostiko bat egin zen, eta hirugarren pausoa izan zen erronka batzuk definitzea. Erronka horiek jomuga bezala jarrita udal planean buru-belarri dabilta lanean.

Bagarako Iraitz Agirrek ontzat jo du izandako parte hartzea eta ekintzara salto egiteko ordua dela adierazi du.

NERE 'ARRASATE PRESS' ZAHARRAK

SERGIO AZKARATE | blogak.goiena.net/nerearrasatepresszaharrak/ | twitter.com/arrasatepress

"Bibolin-jole ona izateko, dohain horrekin jaio egin behar da"

Albina Madinabeitia mondrauetarrari egin eutzien entrebistie: herriko biolinista haundixenetakuei. 80 urte euen, Arrasate Musikalen irekasle zan eta bertako orkestan jotzen euen.

Gaszte hasi zan bioliñe jotzen: "Arrasatetik Bartzelonara joan nintzen ikastera, 8 urterekin, irakaslearen etxera. Bost urte pasa ondoren, aitari irakaslez aldatzea aholkatu zioten, oso doinu gogorra nuelako. Madrilen egin nituen ondorengo ikasketa guztiak; han ikasten ari nintzela, urtero Kontserbatorioko lehen saria jasotzen nuen eta behin Sarasate saria ere jaso nuen".

Bilbora ezkondu, gerrie hasi, senarrangandik banandu, barriro Madrillera juen, eta jubilau ostien Mondrauera etorri zan gurasuekin eta semiakin: "Oso etxeokoa naiz eta hemen oso harrera ona egin didate (...) Arrasate Musikalek meritu handia dauka. Do bat zer den ere ez zekiten haurrek solfeoa, bibolina, pianoa etab. ikastea lortu dute".

Lelengo biarie, Expo ikustera

1958xe zan. Eskola Profesionala martxan euen eta agostuen lelengo biarie organizau euen, Europara.

110 persona juen zien, ikasle izendakuek gehixenak, hiru autobusetan, hogeie egunerako. Alemania eta Holanda bisitau ostien, Bruselasera juen zien, Expo'58 ikustera. Han 4-5 egun egin ostien, etxerako bidie hartu euen.

Argazkixen, atzien Atomium dauela (Bruselas), zutik, ezkerretik eskumara: Jose Luis Abarrategi, On Jose Maria Arizmendiarieta eta Klaudio Pagaldai; belauniko, Eugenio Zabarte eta Juan Leibar.

33. zenbakixe 1989-09-22



Zeu irabazle

Goiena Klubeko txartela erakutsi eta aprobetxatu abantailak.



EUREKA ZIENTZIA MUSEOA Aisia Mikeletegi 43-45 Donostia Sarrera bat erosita eta kupoia+ Goiena Klubeko txartela erakutsita, sarrera bat doan.	ALZU, S.L Ehiza eta arrantza Arantzazuko Ama, 2 Oñati Arropetan %10eko beherapena.	OÑATI GARAJEA Autoen garaje. Konponketak Goribar Auzoa 9 Oñati Oñati %5eko beherapena egiten diren konponketetan.	ESKO SPORT Kirol denda Intxaurtxueta 5 Eskoriatza Arropa eta zapatiletan %10eko deskontua.	LILURA EDERTZE INSTITUTUA RPS: 299/13 LILURA EDERTZE INSTITUTUA Estetika zentroa Bidekurutzeta 7 Bergara %15a laser depilazioan: hanka osoa + izterron-doa (besapekoak opari). %20eko deskontua elikagai intolerantzia proban. %10eko deskontua mikropigmentazioan: begiak, ezpainak edo bekainak. %10eko deskontua fototerapia bidezko aknearentzako tratamenduan. Bazkidearentzat eta lagunarentzat
TXURI URDIN Itzotz Jauregia Anoeta Ibilbidea 24 Donostia %20eko deskontua zapatu eta domekatan (ez bada zubia edo oporraldia). %10eko deskontua zubi eta oporraldietan.	GUZTIZ EDER Estetika zentroa Kalebarria 29 Oñati %5eko deskontua argizari epelarekin eta beroarekin egindako depilazioetan (bekainak eta ezpain gainekoa izan ezik). %10eko deskontua gorputz osoan txokolatea-ekin egindako estalduran eta masajejan.	GRACIAN Mertzeria Bidekurutzeta kalea 6, Bergara 25 eurotik goragoko erosketetan %20ko deskontua.	AQUARIUM Otalora 18 Donostia Bi erosi eta bat ordaindu (Sarrena garestiena ordainduko da)	MIREN GARAI Estetika Etxea Zarugalde kalea 23, 2 ezk. Arrasate Aurpegia garbitzeko tratamenduarekin, eskue-tako tratamendua doan.
LASTAI Koltxoiak eta umeentzako artikuluak Arkatza 1, 49 Pab Gasteiz %5eko deskontu gehigarria helduentzako atse-den arloan. %5eko deskontua haur-kotxe eta automobileko segurtasun-aulkietan. %5eko deskontua sehaska, haur-kotxe eta automobileko segurtasun-aulkietarako denboraldiko ehun-gaietan. %10eko deskontua denboraldiko hau-arropan. (Beherapenetan eta eskaintza berezietan izan ezik).	• JAUJA KIROLAK • JAUJA KIROLAK Irizar pasealekua 1 behea, Bergara Produktu guztietan %5eko deskontua..	LONBIDE OINETAKOAK LONBIDE Oinetakoak Bidekurutzeta kalea 5, Bergara Produktu guztietan %10eko deskontua.	MAGDALENA Gasolindegia Santxolopetegi auzoa Oñati %2ko deskontua gasolindegian erregaia erosita.	MARKIEGI JANTZI DENDA Olarate kalea 2 Arrasate Produktu guztietan %10eko deskontua.
KUTTUNA Estetika Aranburuzabala 19, behea Eskoriatza %5eko deskontua zerbitzu guztietan (beste promozio batzuk izan ezik).	CARAVANAS OÑATE Galdaragintza. Bizikletak Otaui Zuhaitzia, 25 Oñati 50€-ko erosketa egiteagatik, %10eko deskontua stockean dauzkaten oinetako eta ehun-gaietan. (ez du balio beste promoziotarako).	NAREN Fisioterapia eta osteopatia zentroa Belorrieta 5 behea Aretxabaleta %15eko zerbitzu guztietan (Errehabilitazioan izan ezik).	NEBRASKA taberna Zarugalde 35 - Arrasate Tel.: 943 79 09 39 MAHOU garagardo botila, euro bat bazkideentzat Zapatu eta igandeetan, edaria + pintxotxoa doan Interneteko menuetan %5eko deskontua	NINIKA Loradenda Ramon Maria Lili, 8 Bergara %10eko deskontua artikulu guztietan.
PORTALOI optika Erdiko kalea 10, Arrasate %15eko deskontua (ez metagarria beste eskaintza batzuekin eta ez aplikagarria segurtasun betaurrekoetan).	ALDAPE Jatetxea Iturriotz kalea 41 Arrasate Tel.: 943 79 63 69 Astelehenetik ostiralera eguneko menuan (bazkaria) kafea doan (Goiena Klubeko txartelaren titular bakoitzeko). Astebukaeretako menuan (bazkaria edo afaria) kafea doan (Goiena Klubeko txartelaren titular bakoitzeko).	ARGIA Aldizkaria www.argia.com %25eko deskontua harpidetzan. (Bazkide berrientzat soilik).	TABERNA-BERRI Jatetxea Durana kalea 26, Aretxabaleta Tel.: 943 79 20 67 Taberna-Berri jatetxeko otordueta bazkide-txartela erakutsiz gero: Astelehenetik igandera, eguneko menuan, bazkarian kafea doan. Astebukaeretan, eguneko menuan, afarian kafea doan.	ZABALA Jatetxea Labegaraia 14, Bergara Tel.: 943 76 42 57 Zabala jatetxeko otordueta bazkide-txartela erakutsiz gero: Astelehenetik larunbatera, eguneko menuan, bazkarian kafea doan

* Eskaintza honek, GOIENA KLUBEKO txartelaren titular bakoitzeko, kafe bat hartzen du barne.

GOIENA KLUBEKO ABANTAILA GEHIAGO:

Goiena papera: Astelehenetan ere etxean.

Deskontuak: Goienan jartzen duzun iragarki sailkatu eta eskela guztietan.

Urteko kuota: **50 €.** | **943 25 05 05**
kluba@goiena.com | goienakluba.com



goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

Ipuin kontaketa arrakastatsuek literatura-zaletasuna piztu dute

Haurrek bezainbeste gozatu dute helduek ipuin kontalarien saioekin

MAIALEN TORRES | BERGARA

Ikasturte osoan, irri hotsez, ilusiozko begiradaz, misterio doinuaz eta, batez ere, istorioz bete da Bergarako Udal Liburutegia. Izan ere, hilean behin, haur zein helduek mota guztietako istorioak entzun ahal izan dituzte ipuin kontalarien ahotik. Urrian hasi ziren ipuin kontaketak, eta hileko azken martitzenetan helduentzako saioak egin dituzte. Egubakoitzetan, ordea, haurrak izan dira protagonista.

Udal Liburutegiko arduradun Mila Agirrezabalek azaldu duenez, hasieran zalantzak izan zituzten egitasmoaz: "Ipuin kontaketa saioak antolatzen diren lehen aldia zenez, ez genekien saioetara jenderik agertuko ote zen". Beste herri batzuetako esperientzietan oinarrituta jarri zuten abian aurtengo ekimena, "proba gisa". Lehen saioetara EPako ikasleak eta irakurketa taldekoak soilik gerturatu ziren, baina laster zabaldu zen ipuin kontaketen oihartzuna, eta, azkenerrak, "izugarritzko arrakasta" izan dute. Horregatik, datorren ikasturtean ere egitasmoarekin jarraitzeko asmoa dute Udal Liburutegikoek, nahiz eta oraindik ez duten programarik finkatu.

Ipuin kontaketen egitasmoa herritarren eskaerei erantzuteko jai zela azaldu du Agirrezabalek, "Bergaran badagoelako literaturarekiko sentsibilitatea" eta "sen-

tsibilitate horren aldeko apustua" egin nahi izan dutelako. Batetik, zale askorentzat berria eta ezezaguna den esparru baterako atea ireki dute ipuin kontalariekin, eta, bestetik, jende berria liburutegira gerturatzeko aukera izan da, ipuin kontaketak "jendea literaturara erakartzeko ahalmena" erakutsi baitute.

Ipuin kontaketak haurrentzako soilik diren ustea oso zabaldua dagoela aitortu du Agirrezabalek, baina, ikasturtean zehar, uste hori apurtzea lortu dute. Izan ere, "haurrek bezainbeste gozatu dute nagusiek", eta, Agirrezabalen ustez, eskertu egin dute, irakurketa taldeaz gain, literaturaz gozatzeko beste aukera bat eskura izatea.

Aurtengo saiorik onena zein izan den galdetuta, Agirrezabalek argi adierazi du bakararra aukeratzea ezinezkoa dela: "Istorio guztiek daukate xarma, eta, are gehiago, ipuin kontalari baten ahotan".

Haurrentzako onuragarria

Adin guztietako entzuleak izan dituzte ipuin kontalariek, baina haurrek bereziki gozatu dituzte istorioak. 4 eta 6 urte artekoak gerturatu dira gehien, eta, horregatik, saioak egokitu egin dituzte haien beharretara: ordubete-koak luzeegiak ziren txikienentzat, eta 30 minutuko bi txandatan banatu zituzten.



Helduen saioa pleno aretoan. | MILA AGIRREZABAL



Haurren saioa Santa Ana parkean. | MILA AGIRREZABAL

Ipuin kontaketen bidez haurren afizioa sortzea izan dute helburu liburutegikoek; izan ere, Agirrezabalen ustez, "interesgarria da haurren literaturarekiko sentsibilitatea txikitatik

sortzea, euren garapenerako onuragarria baita". Era berean, gurasoei batera familian goatzeko aukera bikaina izan dira ipuin kontaketak, eta saioetan, ikasteaz gain, "oso ondo" pasatu dute.

Antzerkia eta musika nagusi kultura-egitarauan

Turukutupa, Aritzeta abesbatza eta Travellin' Brothers-en musika izango dira, besteak beste

MAIALEN TORRES | BERGARA

Kulturaz gozatzeko nahi beste aukera izango dute bergararrek aste honetan. Izan ere, udarako aurkeztu duten kultura-egitarau bereziak hainbat proposamen dakartza datozen egunetarako.

Eguaztenean, bergarar gazteenek irudimena dantzan jartzeko eta ikuskizunean parte hartzeko aukera izango dute Potxin eta Patxin pailazoaren eskutik. Aurtun aurkeztu duten *Oihan koloretsua* ikuskizuna antzeztuko dute Munibe plazan, arratsaldeko zazpitan.

Eguenean, Bergarako kaleak erritmo biziz beteko ditu Turukutupa taldearen *Rezikletas* kale ikuskizunak. Taldeko aktore-musikariek perkusioan oinarritutako kontzertu ibiltaria eskainiko dute arratsaldeko zortzietan, San

Martin plazatik hasita. Ikuskizunak, musikaz gain, istorio bat ere badu oinarri, eta ikuslea inplikatzeko da helburu. Gainera, erabiltzen dituzten instrumentu eta tramankulu guztiak birziklatutako edo berrerabilitako materialez osatuta daude.

Egubakoitzean, kontzertuak

Aritzeta abesbatzak kontzertua eskainiko du, 19:45ean. Kontzertua Santa Marina elizan izango da, bertako jaiegunaren aitzakian, eta, urtero legez, Aritzetako aho-tesk ez dute hutsik egingo. Horrez gain, Berumuga zikloak musika beltzaren erritmoak ekarriko ditu Espoloiara. 22:00etan, Travellin' Brothers taldea izango da oholtza gainean, ohikoa duten blues estiloari eutsiz, baina swing eta jazz ukitu berriein.



Otarrea Maider Azkaraterentzat

Maider Azkarate izan da Libre San Martzialan zozketatutako otarrearen irabazlea. Hark erosi zuen San Martzial erromeria egunean txartel saritua, 2.594 zenbakiduna, hain zuzen ere. Pozik jaso du saria Azkaratek; ardo botilaz eta urdaiazpikoz osatutako otarrea, irudietan ikusten denez.

NIRE USTEZ

MAIALEN MADARIAGA



Tradiziotik traizioa

Amatxo, zer da hau? Zergatik egiten diote txistu elkarri?

Une batez zalantzak izan ondoren, eskopetaz josita-ko martxa horri kalejira izena jartzeko ausardia izan du amak, eta hala azaldu dio haurrari:

-Pertsona batzuek ez dituztelako beste pertsona batzuk kalejira honetan parte hartzen ikusi nahi.

Pentsakor gelditu da haurra.

-Amatxo, zuri-gorritz jantzi-tako horiek zergatik egiten dute salto iturri altu horretatik behera? Nik ere nahi dut!

Tradizio handiko erantzun erraz bezain eraginkor batera jo du amak:

-Eta leihotik behera botako balira, zu ere botako zinateke?

Hor amaitu da galdeketa.

-Amatxo, zergatik jotzen dute danborra?

Umearen etengabeko galdereaz apur bat gogaituta, zera esan dio:

-Tradizioa delako.

Oraingoan, ama gelditu da pentsakor. Zer da tradizioa? Emakumeak kalejira jakin batzuetan parte hartu ahal ez izatea aldaezinezko tradizioa al da? Eta antimilitarista batek herrian ospatzen den urteroko danborradan parte hartzea tradizioa edo traizioa ote da?

-Amatxo, goazen aurrera!

Hala oihukatu dio haurrak danborradari segika doala. Pentsamendu horiek utzi, eta umeek daukaten inozentzia berarekin jokatzeko erabaki du amak. Danbor makilak jostailu bat dira txikienentzat, eta hala ikusi nahi lituzke berak ere. Ondo pasa jaietan!

"Umeek daukaten inozentzia berarekin jokatzeko erabaki du amak"

Sanmartinetako txosnak esplotatzeko deialdia egin dute

Udalak bi txosna jarriko ditu San Martin jaietan, eta haien esplotazioa eskuratzeko deialdia zabalik egongo da hilaren 22ra arte. San Martin plazan jarriko dute lehena, eta odoloste-pintxoak saldu beharko dira bertan. Munibe plazakoan, berriz, taloak banatuko dira. Baldintza guztiak eta izen-emate orria: *Bergara.net*.

Positiboki baloratu dute Oxirondo azokako haurren lehen merendola

- Bertaratutakoak pozik geratu dira esperientziarekin
- Ospakizun askotako lehena izatea espero dute

GARAZI AIESTA | BERGARA

Parte hartu dutenen hitzetan, lekua oso aproposa da haurren ospakizunak egiteko. Izan ere, oso gertu daude umeentzako parkea eta azken orduko erosketatxoak egiteko dendak.

Lehen ospakizuna ekainaren 24an egin den arren, apirilean aurreratu zuen Bergarako Udalak azoka umeentzako jaiak egiteko erabiltzeko aukera egongo zela. Udala herritarrekin eta herriko elkarte batzuekin lanean dabil

Azoka Bergaratzen prozesu parte-hartzailean. Helburua da Oxirondo azokaren eraikinari erabilerak eta eduki berriak ematea.

Lehen ospakizunarekin helburuak eta erronkak bete direla ikusita, Udalak zerbitzu parte-hartzaile horrekin aurrera jarraitzeko asmoa agertu du.

Baldintzak zehaztuta

Ospakizunetarako materiala Udalak ipiniko du, baina antolatzaileek arduratu beharko dute mate-

rialak bera, espazioa eta ingurua zaintzeaz.

Ospakizunak astelehenetik ostiralera 15:30etik 19:00etara eta azokako espazio jakin bat erabiliz egin ahal izango dira. Espazio horretan, baina, gehienez hirurogei pertsonako jaiak ospatzeko aukera egongo da

Edozelan ere, ezin da ahaztu Oxirondo merkatarien azoka bat dela, eta, beraz, Udalak eskatzen die partaideei ingurukoekin errespetaz jokatzeko.



Neska-mutikoak txokolatada egiten Oxirondo azokan. | OXIRONDO

Garbitasuna eta errespetua zainduko direla bermatzeko, zerbitzua eskatzerakoan berrogeita hamar euroko fidantza jarri beharko dute festaren antolatzaileek. Bada, diru kopuru hori eta eskaera orria eraman beharko dira

kultura etxera, gutxienez astebeteko aurrerapenarekin. Hala ere, aurrez aipatutako baldintzak egoki betetzen badira, itzuli egingo da diru hori.

Arautegi zehatza eskuragarri jarri du Udalak webgunean.

Aitziber Plazaola | Auzipetua

"Oso ondo hartu gintuzten alderdiek Batzar Nagusietan"

Dena dela, eta aurreko 40 kideak absolbitu zituzten arren, Segikoak izatea egotzita irailean hasiko den epaiketan zigortuak izan daitezkeela ohartarazi du

JULEN IRIONDO | BERGARA

Irailaren 22an hasiko den epaiketan 28 lagun epaituko dituzte; horietako bat da Plazaola.

Aurreko 40en absoluzioaren ondoren, ze irakurketa eragiten dizu zuen epaiketa ere egitekoa izateak?

Gure kontra duten akusazioa da beste 40en kontra zuten berdina, Segiko kide izatea. Gainera, gure kontrako operazioa egin zutenean, esan ziguten 40 hauen ondorengo ginela; hortaz, beraiek absolbituta, ez diogu zentzurik ikusten gu epaitzeari. Gure kontrako frogak berdinak dira, eta horregatik eskatzen dugu epaiketa bertan behera lagatzea. Kontua da, juridikoki gauza bestelakoa dela. Auzitegi Nazionalak berak sententzia desberdinak eman izan ditu horrelako auzietan, epaile sala desberdina izateagatik edo momentuaren arabera. Ezin dugu ahaztu, gaur egun ere badagoela jendea espetxean Segiko kide izatearren. Horrek kezkatu egiten gaitu, ze Auzitegi Nazionalako aurreko sententziak baldintza batzuk sortzen dituen arren, ez du bere horretan jurisprudentziarik sortzen. Beraz, gure epaia bestelakoa izan daiteke.

Epaia dena dela, epaiketak berak bakarrik hainbat kalte eragingo dizuela salatzen duzue.

Epaiketa bera zigorra da guretzat. Zitatzioak heldu zitzaizkigunean ikusi genuen irailaren 22tik abenduaren 18ra 30 saio aurreikusten



Aitziber Plazaola. | J.I.

direla, eta saioak ez dira jarraian: aste batean bi egun, hurrengoan hiru, hurrengoan bat... Ni, adibidez, ikasten eta lanean nabil; lana utzi beharko dut, ikasketak antolatu beharko ditut, eta, bestetik, Madrilera bidaiak, gastu ekonomiko handia... Euskal Herrian bide berri bat hasi zen duela urte batzuk, konponbiderako urrats desberdinekin, baina oraindik Espainiatik, lehengo errezeta zaharrekin, Euskal Herria errepresioaren eta gatazkaren bide horretara kondenatu nahian ari dira; sententzia dena dela, halako epaiketek hori erakusten digute.

Zuen kasuan ere absoluzioa eman-go balitz, Auzitegi Nazionalen zerbait aldatzen dabilen zantzuak

izango litzateke?

Ez dakit; hori Auzitegi Nazionallean jakingo dute. Nik bai uste dudana da aurreko 40en sententziak balio izan duela, adibidez, ikusteko inkomunikazioak ez duela inongo bermerik ematen. Sententzia horrek, juridikoki, orain arte Auzitegi Nazionalak onartuta zituen eta zalantzan jartzen ez zituen gauza batzuk agerian laga ditu, eta uste dut ezin dugula ukatu hori badela aldaketa bat, eta pozteko da gainera, ze aldaketa hori eman bada izan da eskaera bat egon delako. Horrek ez du esan nahi Auzitegi Nazionalak bere horretan aldaketa egin duenik; baina espero dut, poliki-poliki urratsak egitea eta konponbidearen bide horretan epaitegiek ere, baita Auzitegi Nazionalak ere, bere papera jokatzea.

Gipuzkoako Batzar Nagusietan izan zarete; han jasotako erantzunetik, zer nabarmenduko zenuke?

Oso ondo hartu gintuzten. Alderdi politiko guztiek gure hitzak entzun zituzten, errespetaz, kezka agertu zuten orokorrean, eta, batez ere, aurrera bide bat egiteko borondatea. Guk esan genien aurrerantzean ere beraiekin harremanetan jarraitu nahi dugula eta beraiek horretarako presuntasuna agertu zuten. Elkarrekin bide bat zabaltzeko aukerak ikusten ditut, eta oso pozik itzuli ginen alde horretatik.

Zabalik dago Udal Egutegirako argazkiak bidaltzeko epea

GARAZI AIESTA | BERGARA

Irailaren 25era arte bidali ahal izango dira Udal Egutegirako argazkiak. Aurtengo gaia ura da, bere forma eta moldaera guztietan.

Izan ere, Bergarako Udalak argazkilariei uda aprobetxatzeko dei egin die, kamerak atera eta irudi originalak lortzeko, alegia.

Aukeratutako irudiak ordaindu egingo dira eta gero Udal Artxibategian jasota geratuko dira, Udalaren erabilerrako. Hala ere, erabilera horien berri emango zaio argazkiaren autoreari eta haren baimena eskatuko da.

Argazkiarekin lotutako edozein baimen lortzea, aldiz, argazkilaria beraren ardura eta lana izango da.

Aukeraketa, urteroko legez, Udaleko Euskara batzordeak egingo du.

Tradizio bihurtu da egutegia

Urteen poderioz, bergararren artean tradizio bihurtu da urtero kaleratzen den egutegia. Izan ere, ondo jasotzen ditu herriarekin lotutako irudi eta informazio guztiak.

Bada, egutegiak bere horretan jarrai dezan, herritarrak kamerak atera eta parte hartzera deitu ditu Udalak.

Gobernuz kanpoko erakundeek eska ditzakete diru laguntzak

GARAZI AIESTA | BERGARA

Hilaren 7an zabaldu zen deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren bidez, eta 30 egun naturaleko epea izango dute interesatuek proiektuak aurkezteko.

Proiektuak bi motatakoak izan daitezke: batetik, garapen bidean dauden herrialdeetako egoera hobetzea helburu dutenak, eta, horrekin lotuta, herrialde horiekiko bergararren interesa piztera bideratutako programak.

Eskaera egiten duten GKEek, gainera, Euskal Autonomia Erkidegoan edo Nafarroan egon beharko dute errolatuta eta

administrazio-egitura iraunkorra izan beharko dute Bergaran edo Debagoiengan.

54.200 euroko laguntza

Bada, laguntzak banatzeko orduan hainbat irizpide finkatuko dira, proiektua sentsibilizaziorako edo lankidetzarako den arabera.

Programaren trinkotasuna defendatzeko, Udalak eskatzailerako bakoitzarekin elkarriketa bat egitea erabaki dezake.

Hala, elkarriketak egin eta dokumentu guztiak jaso ostean, Udaleko Gizarte Zerbitzuak hiru hilabete izango ditu, gehienez, erabakia hartzeko.



Olakua auzoko autobus geltokian ateratako argazkia, uztailaren 2an. | O.E.

Kaleak garbi mantentzeko deia egin gura du Udalak

Lurrera botatako zikinkeriak grabatu ditu bideo batean, adibide moduan

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Lurrera zikinik ez botatzeko eta kaleak garbi mantentzeko deia egin gura die Udalak herritarrei. Horri lotuta, gainera, bideo bat egin du erakusteko zenbat plastiko eta zikin botatzen dituen

jendeak lurrera, litxarkerien, gozokien, zukuen edo izozkien pakete edo plastikozko bildukinak, esaterako. Bideo horretan urarekin jolasean ibilitako eta apurtutako globoak ere ageri dira, lurrean, iturri ondoan, eta baita

pipen azalak ere. Herriko plazan, eta parke eta kale ezberdinetan hartutako irudiak ikusten dira bideoan.

Udal webgunean zintzilikatu duen bideo horrekin, mezu hau xe zabaldu gura du Oñatiko Uda-

lak: "Herriko kaleak garbi mantentzea guztion lana da".

"Birziklatu egiten da, eta hori ondo dago, baina lurrera zikinik ez botatzea ere bai", gehitu du Leire Egañak, Ingurumen zinegotziak.

Ikastetxeekin batera

Honen inguruan ikastetxeekin batera programa bat egitea da Udalaren asmoa, datorren ikasturtetik aurrera, jakin arren umeek ez ezik nagusiek ere zikin asko botatzen dituztela lurrera. Uda ostean hasiko da Udala programa hori prestatzen eta mezua berriz zabaltzen.

Zabaldu dute jaien egitarauaren azala aukeratzeko bozketa

O.E. | OÑATI

Aurtengo San Migel eta Errosai-xo jaien programa jasoko duen egitarauaren azala herritarrek aukeratzeko dute, bakoitzak bere iritzia emanda. Eta gaur, astelehena, zabaltzen da aukera hori.

Kultura etxeko sarreran

Kultura etxeko sarreran daude ikusgai azal lehiaketara aurkeztu diren lan guztiak; nagusien zein gazteen kategoriakoak. Lan horien artean bozkatu behar du herritarrek. Hain zuzen ere, nagusien kategorian aurkeztu diren lanen artean. Izan ere, herritarren

bozka gehien jasotzen dituen lana izango da aurtengo herriko jai nagusien egitarauaren azalean ikusiko den irudia.

Lanak aurkezteko baldintza bakarra irudian agertu beharreko testua zen: Oñatiko jaixak 2014. Lana entregatzeko neurria zein zen egokiena ere aipatzen zen baldintzetan, baina teknika, esaterako, egilearen aukeran uzten zuen. Hau da, argazkia, pintura, marrazkia edo collagea entregatu ahal izan dira. Egubakoitz eguerdian bukatu zen lanak entregatzeko epea. 500 euro irabaziko ditu herritarren lan gogoenaren egileak.



O.E.

Gidariekin bete dute ohitura

Herriko gidari, mekaniko eta ibilgailuen sektorean lana egiten dutenek bete dute, aurtan ere, urteroko ohitura. Gidarien zaindaria da San Kristobal, eta uztailak 10 dituen bakoitzean egin ohi izan duten moduan, aurtan ere meza, ibilgailuen bedekapena eta afaria egin dituzte. Lore sortak ere jarri zizkieten automobilerik.

Gaur, kulturartekotasun eguna ospatzeko dute udaleku irekietan

Kulturartekotasun eguna ospatzeko dute gaur, astelehena, udaleku irekietan dabiltzan ume eta gaztetxoek. Ohi moduan, 10:00etan elkartuko dira denak Eteon eta handik Foruen plazara joango dira, hantxe ospatzeko dute eta kulturartekotasun eguna. Ume denak jaitsiko dira, taldeka, bakoitza bere begiraleekin, eta batera pasako dute goiza.

Urritik aurrerako ur ekintzetarako izenematea, zabalik

Datorren urriaren 13tik aurrera Zubikoa kiroldegian eman go diren ur ekintza eta ikastaroetarako izenematea gaur, astelehena, zabalduko dute. Hala, gaurtik eta hilaren 18ra arte apuntatu beharko dira interesatuak kiroldegiko bulegoan, ordutegi honen barruan: 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara.

Algarvera joateko bidaia antolatu du Pake Lekuk irailerako

Pake Leku elkarteak hamar eguneko bidaia antolatu du Portugaleko hegoaldeko kostara joateko, Algarvera, hain zuzen ere. Irailaren 15etik 24ra izango da bidaia, baina izena datorren astean eman behar da: uztailaren 22a eta 23a dira horretarako egunak. Bidaiaren egitaraua Pake Lekun dago ikusgai.

Eltzia egitasmoaren ate irekiera bertan behera gelditu da

Herritarrek Eltzia prozesua bertatik bertara ikusteko eta ezagutzeko ate irekien eguna egin gura zuten aste honetan. Baina, egoera egokia ez dela hausnartu dute erabiltzaileek, Bagarak eta Udalak. Hau da, Eltzia ez litzatekeela behar den bezala aurkeztuko. Hala, atzeratu egin dute aurkezpen ekitaldia.

Mikel Ugarte, hirugarren Euskadiko akuatloi txapelketan

Euskadiko akuatloi txapelketan Mikel Ugarte oñatiarrak brontzezko domina eskuratu zuen Plentzian (Bizkaia). 23 urtez azpikoetan, berriz, lehena izan zen. Atletismoa eta igeriketa bateratzen ditu akuatloiak. Hala, lehenik 2,5 kilometro korrika egin zituzten, 1.000 metro igerian gero eta beste 2,5 kilometro korrika bukatzeko.

NIRE USTEZ



ALAZNE GURIDI

Opor usaina

Egun hauetan nabari zaigu jada, oporrak hurbil ditugula; ilusioz gabiltza, hurrengo egunetarako planak ahotan hartuta. Laster ordutegi, ohitura eta betebeharren zama ganbaran utziko dugu eta atsedenaren izenean hainbat ekintza egingo ditugu.

Batek esan zidan izugarrizko joan-etorriak egingo dituela bizikletaz eta korrika. Beste batek, berriz, ohean presa gabe geratzeko dela, gorputzak nahikoa duela esan arte. Liburuak eskuetan izateko irrikaz dagoena ere ezagutzen dut. Baita seme-alaba eta senarrarekin harreman sakona eta lasaia bilatuko duena ere. Hondartza, jaiak, kontzertuak, isilgune eta isiluneak, kultura ezberdineko herri eta pertsonen hartu-emanak... Bakoitzak jakingo du, zerk laguntzen dion egiazko atseden hartzen.

Urrutira begiratu gabe, opor garaia tristuraz hartuko duenik ere bada. Urte osoan zehar langabezian egoitea tokatu zaio, eta orain ez dauka ilusiorik egun hauek. Esperantza bakarra, besteok kanpoan garen bitartean lanerako aukera izatea du. Hauxe izango litzateke berarentzat atseden hartzeko modua.

Oporretara goaz, denok ez bada ere.

Han edo hemen, eguzkiak edo itzalak leundu eta goza ditzatela, bada, mutur luzeak, begi-zuloak, bihotz gogortuak eta harreman nekatuak.

Ondo izan.

"Bakoitzak daki zerk laguntzen dion atseden hartzen"

ESKORIATZA

Mazmelako parrokiako teilatua konpondu dute

- Elizpean dagoen pilotalekua ere txukundu dute azken asteotan
- Hormako pitzadurak estali, margotu eta argiteria jarri dute azken horretan

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Obretan murgilduta dabiltza azkenaldian Eskoriatzako Mazmela elizatean. Batetik, Andra Mari parrokiako teilatua konpontzen ibili dira azken asteotan. Hango auzo-alkate Iban Diazek

azaldu du teilatua guztiz berritu dutela, eta eliza barruko sabaia ere konpondu dutela, itoginekin hondatuta zegoelako. Horren harira, gogorarazi du eraikinaren egoera zela-eta azkenaldian ez zela inongo elizkizunik egiten;

azken horren bueltan, gaineratu du, dena dela, elizkizunak berreskuratzeko asmorik ez dagoela.

Pilotalekuko argiteria

Bestetik, elizpean dagoen pilotalekuak ere itxura berria du. Hona-ko hau esan du Diazek: "Egoera eskasean zegoen. Ez zuen argirik, eta, hortaz, ez zen ezer ikusten. Egunez ere pilotan egiteko txarto zegoen. Bestalde, hormek ere pitzadurak zituzten".

Debagaraiaaren (Debagoieneko landa garapenerako elkarte) eta Diputazioaren diru laguntza aprobetxatuta, horma horietako pitzadurak estaltzeko eta margotzeko eta argiteria jartzeko proiektua aurkeztu zuten, eta baita onartu ere. Lan horiek 2.000 euroko kostua izan dute. Diaz pozik dago emaitzarekin: "Txukun geratu da. Orain edozeinek egin dezake pilotan, librea da eta".

Azkenik, elizatera doan errepidean ere lanean dihardute, bide bazterrak konpontzen eta babes-bazterrak jartzen.



Hondakinez betetako zaborra dago oraindik eliza ondoan. | MIRIAN BITERI

Zinegotzi izateari utzi dio Iñaki Madinabeitiak

M.B. | ESKORIATZA

Aldaketak daude osteraren Eskoriatzako Udalean. Eliza-teetako zinegotzi Iñaki Madinabeitiak dimisioa aurkeztu zuen ekaineko ohiko osoko bilkura amaitzean, eta, gaia oraindik tramitatzen badabil-tza ere, Madinabeitiak berak jakinarazi du udal jarduera dagoeneko utzi duela; informazioa helarazteko batzarre-tara baino ez da joaten.

Orain dela hiru urteko udal hauteskundeetan bi zinegotzi lortu zituen Elizateen Elkar-teak: Iñaki Madinabeitiak eta Iker Akizuk hartu zuten orduan kargua; azken horrek utzi egin zuen, eta haren ordeztu Rosi Arkarazo sartu zen. Zerrendei begiratuz gero, Dorleta Ape-rribaik bete beharko luke orain Madinabeitiaren lekua.



Iñaki Madinabeitia. | M.B.

NIRE USTEZ



AITOR AGIRIANO

Hitzen boterea

Azken egun hauetan hitzek duten garrantzia handia darabil buruan bueltaka. Ba al da hitzez adierazi ezin daitekeenik? Ezetz esango nuke. Hala ere, askotan ez da erraza izaten buruan duzuna azaltzeko modu egoki bat aurkitzea. Batzuetan gaizkiulertuak suertatzen dira. Beste batzuetan, aldiz, oso argi hitz egin duzula iruditzen zaizun arren, zure mezua lausoa da gainontzekoentzat. Lausoa edo ezberdina.

Horren adibide argi beza-la Whatsapp famatua dauka-gu. Mugikorretarako aplikazio famatu hau sortu zenetik gero eta gutxiago hitz egiten dugu telefonoz eta gero eta gehiago erabiltzen ditugu mezuak elkarren artean komunikatzeko.

Baina komunikatzeko bidea ezberdina izan arren, azken finean, hitzak dira protagonista. Hitz serioak, jostagarriak, iraingarriak... denetarik hitzak, gehienetan hauek daukaten garrantzia kontuan hartu gabe erabiliz. Zenbat aldiz konturatu ote gara lagun bati mezu bat bidali eta bere erantzuna jasotzean gaizki ulertu duela ikusi? Edo bidalitakoa ulertu behar ez zuena moduan ulertu duela konturatu?

Pentsatzen jarritz gero, hitzek guk uste duguna baino botere handiagoa daukate. Hitz batek, nahiz eta gauza bakarra adierazi, ez du esanahi bera denontzat. Beraz, kontuan izan dezagun denon egunero-kotasunean hauek duten garrantzia.

'Gazte konkis' abentura irteera hasiko dute gaur

Udaero programaren bueltan, Leixargarate aldera joango dira gaur, astelehena, Aretxabaletako eta Eskoriatzako 40 gazte. Lau egun emango dituzte han, eta telebista programaren formatua izango du irteerak. Hain justu, taldekako abentura lehiaketa izango da.

Lekeitiora doaz gaur 107 erretiratu eta hilaren 17an afaria dute nagusienek

Hitzordu bi dituzte asteen Eskoriatzako erretiratuek: gaur, Lekeitiora doaz 107 lagun; 08:30ean herritik irtengo dira, eta, Mundaka bisitatu ostean, Gernika azokara joango dira; jarraian, Lekeition bazkalduko dute. Egubakoitzean, hilak 17, 80 urtetik gorako 48 lagun elkartuko dira Elixoste elkartearen, 19:00etan.

Donostiako su artifizialak ikustera joateko irteera

Eskoriatzako Olazar erretiratuen elkarteak irteera antolatu du abuzturako. Donostiako su artifizialak ikusteko aukera dago abuztuaren 13an. Interesatuak elkartearen bulegotik pasa behar dute, martitzenetan edo eguenetan, 11:00etatik 12:30era; 15 euro balio du irteera horrek.

Gazte egitasmoetarako laguntzak eska daitezke irailera arte

Dagoeneko zabalik dago Eskoriatzako gazteen egitasmoetarako diru laguntzak eskatzeko epea. Irailaren 3a baino lehen aurkeztu behar dira eskaerak udaletxeko erregistroan, 09:00etatik 14:30era. Gazteak herri bizitzan parte hartzera bultzatzea du helburu; aurrekontua 600 euro da.

ARETXABALETA



MIRARI ALTUBE

Ainhoa Caberoren ikasleen lanak

Uztaila amaitu bitartean, Ainhoa Caberoren ikasleek ikasturtean zehar izandako margo ikastaroko lanak ikus daitezke Arkupen, ohiko ordutegian. Askotariko margoak daude ikusgai, 35 bat lan guztira; besteak beste, paisaiak eta natura hilak.

Egubakoitzean hasiko dira Portasolgo jaiak

M.B. | ARETXABALETA

Aretxabaletako Portasolgo jai batzordeak dena gertu du auzoko festetarako. Egubakoitzean, hilak 17, hasiko dira: 18:30ean, txupinazoa botatzearekin batera, buruhandiek eta erraldoiek kaleak hartuko dituzte herriko txistulariak ondoan dituztela. Jarraian, txikiteoari hasiera emango diote trikitilarien laguntzarekin.

Gauean, 22:00etan, Txerrikumeak, Galerna eta Gaupa-heroes musika taldeen kontzertuak izango dira Aretz taberna parean. Zapatu eta

domekan ere askotariko ekintzak izango dira; umeei, musika-ekin eta kirolarekin lotuta daudenak, besteak beste.

Ekarpen eske

Urtero moduan, jaiak prestatu ahal izateko auzotarren ekarpena "ezinbestekoa" dela gogorarazi dute. Hori dela eta, bideak errazte aldera, bakoitzak eman dezakeen kopurua gutun-azal batean sartzeko eta honako hiru toki hauetan uzteko eskatu du jai batzordeak: Aretxabaleta okindegian, Imanol harategian eta Brasileña kafetegian.

Tiritirantesen 'Hankaz gora' izango da etzi

M.A. | ARETXABALETA

Eguaztenak kale antzerkiarendako gorde ditu Aretxabaletako Kultura Sailak, eta, oraingoan, Tiritirantes taldeak *Hankaz gora* eskainiko du Durana kalean (19:00); zirku-ko akrobaziak, malabarrak eta sua, hori guztia keinuekin eta umorearekin bat eginik.

Bestalde, udako zinemari dagokionez, *Tarzan* (94 min) filma dute neska-mutikoei, euskaraz; astelehenetan, martitzenetan eta egunetan izango da, Arkupen (19:00).



Madergia enpresako langileak joan den martitzenean hasi ziren zubi zatiak ekartzen. | JOKIN BEREZIARTUA

ARAMAIO

Bihar jarriko dute Iturrizuri eta Matxain kaleak lotuko dituen zubia

Nafarroako Madergia enpresak zubia zatika ekarri eta kalean bertan muntatu ostean, bihar ekarriko dute garabia zubi berria dagokion lekuan jartzeko

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Iturrizuri eta Matxain kaleak lotzeko zubia bihar jarriko dute. Izan ere, Plan Orokorrean jasotzen zen bi kaleak lotzeko beharra; hau da, Iturrizuri kalea garatu zenean Plan Orokorra jasotzen zuen Matxain kalearekin lotu behar zela. Bada, Udalak orain jarriko du zubia; izan ere, azaldu dutenez, orain dute aukera zubi hori jartzeko.

Nafarroako Madergia enpresa ari da lanekin eta joan den martitzenean hasi ziren zubiaren zatiak ekartzen. Udaleko aholkulari teknikoak azaldu du zein izango den prozesua: "Hasi dira zubi zatiak ekartzen eta langileek kalean bertan muntatuko dute. Zubia erabat muntatuta dagoenean, garabi batek jarriko du dagokion lekuan. Aste pare bateko lana izango zela esan ziguten baina dena aurreratu eta zubia bihar jarriko dute", adierazi du Oier Ezkerrak.

Horrek esan gura du zubi berria aurreikusitakoa baino lehenago jarriko dutela.

23 metro luze, eta egurrezkoa

Zubia egurrezkoa da erabat eta 23 metro inguru luze da; egunotan, Iturrizuri kaleko aparkalekuean egon da.

Oso malda txikia duenez, eta egurrezkoa izan arren, Udalak ez du espero irristatzeko arrisku handirik egongo denik. Gainera, herrian badaude egurrezko bes-

te zubi batzuk eta Udaleko langileek badituzte mekanismoak labainkortasun arazoak konpontzeko; metalezko sarekak jartzea, esaterako.

Bestalde, zubia jartzeko lanen aurrekontua 30.000 euro inguru da, eta, Oier Ezkerrak adierazi duenez, obraren kostua Udalak hartuko du bere gain.



Zubia jarriko duten lekua, Iturrizuri kaletik begiratuta. | J.B.

ANTZUOLA

Badatoz herriko jaiak

Eguenean hasiko dira Antzuolako jaiak. Eguerdian, umeen ikuskizuna eta herri bazkaria izango dira. Nagusienendako txanda arratsaldean etorriko da. Jaiak ofizialki ikurrin-dantzarekin hasiko dira, 19:45ean. Aurretik, baina, txosnagunean luntxa egongo da, 19:00etan. Gauean, musika izango da plazan Bentazarreko Mutiko Alaien eskutik. Zurrategin, berriz, Imanol magoaren erakustaldia. 00:00etan hontza jaitziko da.



GOIENA

ELGETA

Kantsatzekek mendi irteera antolatu du zapaturako Pagoetara

Bost bat orduko txangoa egingo dute Zarauztik abiatuta; izenematea zabalik da eguenera arte

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Elgetako Kantsatzeke mendi taldeak antolatu du irteera uztailerako ere. Hilaren 19an, zapatua, egingo dute Elgetako herriko plazatik 08:00etan abiatuta. Asmoa da Zarautzeraino autoan joatea. Hortik abiatuko dute mendi ibilbidea oinez. Bost bat orduko txangoa izango dela aurreikusten dute antolatzaileek. Pagoetara —678 m— joango dira lehenengo, eta Orion amaituko dute mendi irteera.

Izena emateko epea zabalik dute eguenera arte, hilak 17. Udaletxean, kantsatzeke@gmail.com helbide elektronikoan edo Kantsatzekek Facebook-en duen orrialdean eman daiteke izena. Eskatzen dituzte: izen-abizenak

eta telefono zenbakia. Parte hartzeko adinez nagusi izatea ere bada eskaeretako bat. Antolatzaileek jakin gura dute, baita ere, parte-hartzaileak prest dauden autoa eramateko. Izenematea 10 euro da, gehienbat garraio gastuak ordaintzeko. Badirudi aste bukaeran eguraldia lagun izango dutela.

Hurrengoak opor ostean

Urte hasieran aurkeztu zuten Kantsatzeke mendi taldeko ordezkariak 2014ko irteeren egutegia, eta horren arabera abuztuan ez dute irteerarik antolatuko. Hilabeteko atseden izango da, irailerako eta urrirako txango bana dituzte -eta aurreikusita.



Elgetarrak Peña del Castillora egindako irteeran. | KANTSATZEKE

LEINTZ GATZAGA

Abuztuan udal zerbitzuak zabalik egongo dira

Udal langileek txandaka hartuko dituzte oporrak, eta ohiko ordutegiarekin jardungo dute

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Udako oporraldian eta abuztuko erdialdeko asteetan batez ere, gure herrietako zerbitzu asko gutxitu egiten dira nabarmen, batzuk hutsean ere gelditzeraino.

Ez da hori izango bada, Leintz Gatzagaren kasua. Izan ere, udaletxetik dagoeneko jakinarazi dute normal jardungo dutela abuztu osoan. Eta langile gutxiagoren artean izan arren ere, herritarrei arreta emateko udaletxearen ordutegia urte osoko berbera izango dela: 09:00etatik 14:00ak arte.

Gatz Museoa eta Labidea

Xehetasunetan sartuta, gizarte laguntzaileak martitzenetan etortzen segituko du; Gatz Museoa urtean izaten duen ohiko funtzionamendua izango

du; baita Labidea taberna-saltokiak ere. Baina hori bai, udal aparejadorea, adibidez, ez da abuztuan izango.

Zerga bi

Bestalde, beste bi jakinarazpen helarazi dituzte udaletxetik, zergekin lotutakoak, hain justu. Izan ere, urari eta zaborrei dagozkien zergak ordaintzeko borondatezko epeak oraingo astean zabalduko dituzte.

Urari dagokionez, bihar (martitzena) hasi eta irailaren 14ra bitartean ordaindu daiteke, borondatezko epean. Zaborraren kasuan, berriz, gaurtik abuztuaren 31ra arte izango da borondatezko epe hori.

Kontuan izan, behin borondatezko epeak bukatuta, gainkarguarekin kobratuko dituztela zerga biak.

Goiena Klubeko uztaileko zozketak

Goiena Klubeko bazkideok irabaz ditzakezuen sariak hauek dira. Hartu parte!



Motxila eta umeentzako lau ipuin

Arrasateko Intersport Loramendi dendak emandako Quicksilver motxila eta Pamiela argitaletxeko lau ipuin.

Parte hartzeko sariaren izena:
Motxila eta ipuinak

INTERSPORT
LORAMENDI

PAMIELA
argitaletxea



www.harremandenda.org

Bidezko Merkataritzako produktuak

Otarra
Bidezko merkataritzako produktuez osaturiko otarra.

Parte hartzeko sariaren izena:
Otarra



ARRIKRUTZ
oñatiko kobak

Sarrerak
Arrikutz kobak bisitatzeko,
6 sarrera zozketatuko ditugu.
Parte hartzeko sariaren izena:
Arrikutz



argia

Jokoa
Kirolaz Badakit 2 joko.
Parte hartzeko sariaren izena:
Jokoa



PAMIELA
argitaletxea

Liburua
'Hiru gutun Iruñetik' Patxi
Zubizarretaren hiru liburu.
Parte hartzeko sariaren izena:
Liburua

PARTE HARTZEKO:

SMS: KLUBA [Sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira

Telefonoz: 943 25 05 05

E-postaz: kluba@goiena.com

WhatsApp: KLUBA [Sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.
Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Taldearen fitxategi automatizatu baten sartuko direla.
Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com



goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

KIROLA

TXIRRINDULARITZA

Antzuolako garaipenarekin bosgarrena du Estevezek

- Aspaldiko partez esprintean erabaki da lasterketa
- Eneko Lizarralde bergararrak hirugarren egin du

LARRAITZ ZEBERIO | ANTZUOLA

Zirauna-Infisport taldeko Imanol Estevez gasteiztarra nagusitu zen atzo, domeka, 69. Antzuola Sarian. Dozena bat txirrindulari taldean iritsi ziren helmugara eta esprintean nagusitu zen Estevez. Bere denbora: 02:55:28.

Denboraldiko bosgarren garaipena du gasteiztarrek eta profesionalek salto egiteko gogoz dago. Aipatzekoa Craig Wallace taldekideak egindako lana. 19 urteko eskoziarra Asentzioko igoeran nabarmendu zen, eta berak jaso zuen Mendiko saria.

Txanponaren beste aldean Gipuzkoa taldeko Eneko Lizarralde bergararra. Nahiz eta lasterketa ona egin —3. sailkapenean—, emaitza gazi-gozoa izan zen atzokoa Lizarralderen dako. "Podiuma egitea beti da polita, baina helburua irabaztea zen eta hain gertu ikustea... Gogorra da egia esan. Akaso astebete barru gehiago baloratuko dugu gaurko podiuma, baina momentuan...". Indartsu ikusten du bere burua 20 urteko bergararrak, baina azaldu zuenez atzokoan atzetik aurrera egin zuen lasterketa guztia. Helmugara iritsi baino bi kilometro lehenago egin zuen bat aurreko taldearekin, eta nekatuegi iritsi zen azken esprinterak.

Lasterketa azkarra

Borrokatua eta oso azkarra izan zen atzoko lasterketa. 23

urtetik beherako 165 txirrindularik hartu zuten irteera, eta ihesaldi saiakera gehienek porrot egin zuten. "Ez da sekula minutu eta erditik gorako tarte zabaldu", zioten epaileek lasterketa amaieran.

Tropela aurreikusitako denbora baino 15 minutu lehenago iritsi zen helmugara. Estevezen batz besteko abiadura 44,45 kilometro ordukoa izan zen.

Sasoi betean daude amateur mailako txirrindulari gazteak. Nahiz eta lasterketa azkarra jokatu 122 iritsi ziren helmugara.

Asentzio erabakigarria

130 kilometroko ibilbidean bi mendate igo zituzten txirrindulariek: Deskarga eta Asentzio.

Deskargako igoera ez zen erabakigarria izan, baina lehen aukeraketa egiteko balio izan zuen. Jesus Soto (Latorre), Iban

Gartzia (EDP) eta Craig Wallace (Zirauna) izan ziren lehenak.

Asentzioko igoerak bigarren selekzio bat egin zuen, tartean helmugara lehen postuetan iritsiko ziren gizonen aukeraketa. Zirauna taldeko Craig Wallace iritsi zen lehenengo Asentziara. Jarraian, Julen Amezketa (Seguros Bilbao) eta haren atzetik Alvaro Trueba (Baqué).

Sari banaketa

Lasterketa amaitutakoan egin zuten sari banaketa Antzuolan. Estevezek eta Wallacek sari bana jaso zuten. Talde onenaren saria, ostera, Lizarte taldearendako izan zen eta Lehendakari saria Sabiñanigoko Jose Arcas (Lizarte) txirrindulariarendako.

Antolatzaileak, bestalde, gusura agertu ziren. Eguraldia lagun izan zuten; jende ugari bide bazterretan; eta lasterketan ez zen aparteko ezusterik gertatu.



Txirrindulariak eskolako aterpean lasterketarako prestatzen. | JOSETXO ARANTZABAL



Zirauna-Infisport taldeko Imanol Estevez, garailearen saria jasotzen. | JOSETXO ARANTZABAL



Txirrindulariak irteera puntuan. | JOSETXO ARANTZABAL



CRAIG WALLACE
MENDIKO SARIA

"Oso lasterketa polita izan da. Hasieratik egin du lan handia talde osoak. Nik Asentzioko igoeran eman dut guztia, eta lehena iritsi naiz. Tropela, baina, ez zegoen urrun eta Imanolen aldeko apustua egin dugu esprintean bera delako onena. Erabaki ona izan da".



ENEKO LIZARRALDE
3. SAILKATUA, BERGARARRA

"Indartsu ibili naiz azken hilabeteotan eta gaurko helburua irabaztea zen. Imanol zen nire beldur handiena. Bukaeran oso azkarra da, eta gora ere oso ondo doa. Bi kilometroren faltan egin dut bat aurreko taldearekin, eta nekatuegi heldu naiz".



JORGE ARCAS
LEHENDAKARI SARIA

"Ez zen denboraldi hasierako helburua baina Lehendakari sariak liderra naiz martxotik eta elastikoa mantendu nahi dugu orain. Irailera arte eutsi behar diogu; zortzi edo bederatz lasterketa gelditzen dira. Poliki-poliki joango gara aukeran ditugun puntuak hartzen".



JOSEBA LEZETA
ANTOLATZAILE TALDEKOA

"Ondo joan da lasterketa. Izan da borrokatua eta ez du inork minik hartu. Gure aldetik, nahikoa. Gero, eskerrak emateko arrazoiak ere baditugu. Jende asko gerturatzan da bidegurutzeak zaindu edo bestelako zereginetan laguntzera, eta eskerrak eman nahi ditugu".

SAILKAPENEN LEHEN HAMARRAK

1. Imanol Estevez (Zirauna)
2. Carlos Jimenez (Baqué)
3. Eneko Lizarralde (Gipuzkoa)
4. Eduardo Armengol (Telco)
5. Egoitz Fernandez (Lizarte)
6. Julen Amezketa (S. Bilbao)
7. Jorge Arcas (Lizarte)
8. Josu Zabala (Caja Rural)
9. Alvaro Trueba (Baqué)
10. Craig Wallace (Zirauna)

25 | ARETO FUTBOLA | La Kantera garaile Zaldibarko 24 ordukoan



Lasterketa amaierako esprinta; aurretik Imanol Estevez. | JOSETXO ARANTZABAL



Tropelaren burua Antzuola parean. | JOSETXO ARANTZABAL



Antonio Soto —Latorre— eta Ivan Gartzia —EDP— Deskarga igotzen. | J.A.



Tropela Deskarga igotzen, atzean Antzuola. | J.A.



Jorge Arcas, Lehendakari saria. | J.A.



Lizarte taldeko txirrindulariak tropelaren buruan. | J.A.

IMANOL ESTEVEZ
GARAILEA

"Asentzioko
igoera nola
egin dugun
erabakigarria
izan da"

Gasteiztarra da eta bete berriak ditu 21 urte. Hirugarren urtea du amateur mailan, eta uste du unea iritsi dela profesionaletara salto egiteko.



Zorionak. Nola ikusi duzu lasterketa?

Oso azkarra izan da hasieratik. Deskarga oso azkar igo dugu eta horrek dezente murriztu du aurreko taldea. Zorionez bost taldekide ginen talde horretan, eta horrek aukera eman digu Asentzioko igoerarako ondo kokatzeko. Gero, Wallace taldekideak eraso jo du, eta nik indarrak gordetzeko aukera izan dut. Banekien azkarrena nintzela aurreko talde horretan, eta argi ibiliz gero garaipena lortu nezakeela.

Azken metroetan erabaki da lasterketa.

Ezagutzen nuen helmuga aurreko urteetatik eta ondo kokatzeko aukera izan dut. Talde osoaren garaipena da. Asentzioko igoerara nola iritsi garen, eta nola egin dugun erabakigarria izan da garaipena lortzeko.

Denboraldi honetan irabazten duzun bosgarren lasterketa da honakoa.

Bai, indartsu nabil. Ea zorte pixka batekin datorren urtean profesionaletan egon naitekeen. Aurreko bi urteetan ere emaitzak hor egon dira, baina ezinezkoa izan da.

MENDI BIZIKLETA MARTXA

Aurpegiak lokaztuta, nekatuta baina irribarretsu amaitu dute EskoXtrem

- ▶ 145 txirrindulari irten ziren Fernando Eskoriatza plazatik zapatu goizean
- ▶ Ibilbide teknikoa prestatu zuten, eta labainkor zegoenez, are gogorragoa izan zen

JAGOBA DOMINGO | ESKORIATZA

Gogorra eta polita; hitz horiek erabili zituzten zapatuan EskoXtrem mendi bizikleta martxa egin zuten kirolariek ibilbidea deskribatzeko. Lokatza artean eta pista estuetatik egin zituzten 37 kilometroko ibilbidea –luzea– edo 21 kilometrokoa –motza– Fernando Eskoriatza plazatik abiatu ziren 145 txirrindulariek.

Bizikleta gainean hiru ordu pasatxo egin ostean, aurpegiak lokaztuta baina irribarretsu iritsi ziren EskoXtrem mendi martxaren 25. edizioan parte hartu zuten txirrindulariak. Aurtengo ediziorako gainera, ibilbidean hainbat aldaketa egin zituzten antolatzaileek berau teknikoagoa bihurtze aldera, eta helburua lortu dutela argi geratu zen. Batek baino gehiagok bizikleta esku artean eraman behar izan zuen aldapa batzuetan; izan ere, aurtengo edizioak bizikleta gainean abilezia nahikotxo eta sasoitsu egotea eskatzen zuen. Hala ere, kirolariek zein antolatzaileek pozik amaitu dute 25. EskoXtrem martxa eta mendi bizikleta martxa gurean osasuntsu daudela frogatu dute; besteak beste, debagoiendar askok parte hartzeaz gain, Errioxatik, Nafarroatik eta kostaldetik ere jendea gerturatu zelako Eskoriatzara.

Bide beretik jarraitzeko

Antolatzaileak esker oneko agertu ziren EskoXtrem martxaren 25. edizioa prestatzen lagundu zuten guztiekin. Izan ere, Rosa Lasagabaster, Eskoriatzako Udaleko kirol aholkulariaren eta martxaren antolatzailearen arabera, berrikuntza nahikotxo egon ziren eta taldekide askoren laguntza ezinbestekoa izan zen. Egunean bertan,



Txirrindulari bat martxa amaitzen. | IMANOL SORIANO



Mazmela inguruan. | I.S.



Txirrindulari bati zauriak osatzen. | I.S.

antolatzaileetako batzuk martxa baino ordubete lehenago abiatu ziren seinale eta marka guztiak lekuan zeudela ikusteko.

Martxa amaitzerakoan, txirrindulariek inkesta bat bete behar izan zuten. Antolatzaileen arabera, balorazio "oso onak" lortu zituzten hor, eta datorren urterako "bide beretik" jarraitzeko animoak jaso.

Jausiak ez ziren falta izan

Martxan ezusteko bat ere izan zuten; bederatzigarren kilometroan txirrindulari batek aurreko erruberaren kontrola galdu zuen eta jausi egin zen. Erorkean itzulipurdia egin zuen airean eta zutik lurreratu bazen ere, ostean labaindu eta bizkarrean min hartu zuen. Bestelako erorketak ere egon ziren ibilbidean zehar, baina horrelako martxa batean, eta lokatza kontutan hartuta, normaltzat jotzen diren gertaerak izan ziren.



IBAN DIAZ
ESKORIATZA

"Eguraldia pena bat izan da; eguraldi hobearen bila aldatu dugu martxa urritik uztaileira baina itxura denez ez dugu asmatu. Sendak labainkor xamar zeuden eta horrek ibilbidea zaildu du, baina hala ere polita izan da".



IÑIGO BITERI
ESKORIATZA

"Lokatx larregi ez zegoen arren ibilbide nahiko teknikoa izan da. Lehenengo hoge kilometroak labainkorragoak zeuden, ostean azkartxoagoa zen ibilbidea eta errazago egiten zen. Hala ere helburua lortu dugula uste dut".



LANDER BILLAR
ESKORIATZA

"Ibilbide motza egin dut azkenean. Txirrindulari bat jausi egin da eta hari laguntzen egon garenez motza egin behar izan dut; dena den proba polita izan da. Honez gain beste martxa batzuetan ere parte hartzeko ohitura dut".



PATXI GARIN
ZALDIBI

"Internet bidez izan nuen martxaren berri eta Zaldibitik etorri naiz. Normalean etxe inguruko martxetan parte hartzen dut, hala ere, kanpora joateko ohitura ere badut, hurrengo Leon inguruan egingo dut".



LUIS MARI MENDAROKETA
ARRASATE

"Aldapa tekniko eta gogorrak egon dira ibilbidean, batzuetan bizikletatik jaitsi eta oinez egin behar izan ditut. Gaur bizikletan ibiltzera baino bizikleta paseatzera irten naizela uste dut, baina gustura ibili gara".

ARETO FUTBOLA

La Kantera taldea irabazle Zaldibarko 24 ordukoan, La Union mendean hartuta

- Zapatuan jokatu zuten txapelketa, Arrasaten
- Jende asko batu zen harmailetan lehiak ikusteko

IRATI GOITIA | ARRASATE
La Kantera taldeak lortu zuen garaipena Zaldibarko 24 orduko txapelketan. La Union taldearen aurka neurtu behar izan zituen indarrak finalean. Azken horrek ezustekoa eman zuen. Izan ere, ez zen inoiz final batera iritsi aurretiaz. La Kanterako taldekideak 4 eta 1 gailendu ziren. Hala, euren dako izan ziren irabazlearen garaikurra, bildotsa, urdaiazpikoa eta gazta. Bigarrenek urdaiazpikoa, gazta eta oroigarria eraman zituzten etxera. Bestalde, Iker Sanchez izan zioten txapelketako jokalaririk onenaren saria (La Kantera taldekideak).

"Jende asko"
Aurreikusi bezala, 02:30ean jokatu zuten finala eta jende asko egon zen norgehiagoka ikusten. "Beste urte batzuekin alderatuta, beteta egon zen Zaldibar", adierazi du Ander Arizaleta antolatzaileak. Izan ere, iaz goizeko bostak aldera jokatu zuten finala, askorentzat berandu. "Joan zen urtean taldekideak eta mozkor batzuk besterik ez ziren egon finala ikusten. Zapatu honetan, baina, jende dezente egon zen eta giro polita". Finalean ez ezik, egunean zehar ere jende asko batu zen Zaldibarko harmailetan parte-hartzaileak animatzeko.

Taldeetako kideak gustura gelditu ziren txapelketarekin Arizaletak esandakoaren arabera. Guztira hamahiru taldek eman zuten izena Zaldibarko 24 ordukoan jokatzeko.

Epalleenganako errespetua
Bestalde, Arizaletak nabarmendu nahi izan du "oso pozik" geratu direla antolatzaileak jendeak erakutsi duen jarrerarekin. "Joan zen urtean iskanbila pixka bat izan zen epaileekin, baina aurten errespetatu egin da euren lana. Beraz, alde horretatik ere oso pozik gaude", azaldu du antolatzaileak.



Zaldibarko 24 orduko txapelketako irabazleak. | XXXXXXXXXX



Arrasaten zapatuan jokatu zen Zaldibarko 24 orduko txapelketako argazkiak. | IMANOL SORIANO

MENDI LASTERKETA

"Hotz handia pasatu dugu Aralarren": Agirrebalzategi

- Ehunmilak proba jokatu du aste bukaeran Oñatiko mendi lasterkariak
- Gorlatik pasatu ziren egubakoitz gauean, 22:00ak inguruan

MIRARI ALTUBE | BERGARA

Egubakoitzean hasi eta atzo arratsaldea artean mendiz mendi ibili dira hainbat kirolari; izan ere, Ehunmilak proba jokatu da aste bukaeran. 168 kilometro egin dituzte 11.000 metroko desnibela-ekin eta izena emandako 295 lagun artean hainbat debagoiendar zeuden. Irabazleen artean, ezustekorik ez, Javi Dominguez nagusitu zen (23:29:10) Imanol Alesonen aurretik (24:40:29). Eta nesken artean Silvia Trigueros ez zuen aurkaririk izan (28:48:23).

Denbora ezin hobetu

Bosgarrenez egin du Ehunmilak Iker Agirrebalzategi oñatiarrak. Eta bosgarrenez, bukatu ere bai (34:32:02). "Hasi ondo egin nintzen baina 90. kilometroaren bueltan belaun inguruan molestiatxo batzuekin hasi nintzen. Orduan suabeago hartzea erabaki nuen", zioen atzo eguerdian, eta gaineratu: "Ez dut nire denborarik

onena hobetu; 30 ordu eta erdian eginda daukat-eta. Horren azpitik sartu gura nuen baina zaila da halako mendi lasterketa luzean, arazotxo bat ez bada beste bat beti sortzen delako. Hori jakinik, eta, proba ezagututa, helburua bukatzea zen, eta hori lortu dut beste behin".

Eguraldi eskasa izan zuten, gainera: "Nahiko txarra egin digu, esandakoa baino euri gehiago egin du-eta, bai egubakoitz gauean, baita zapatu eguerdian ere. Eta Aralar inguruan ipar-haizea zela

eta euriarekin bustita hotz handia pasatu dugu; izan ere, Txindokira igo eta Aralar inguru hori 1.400 metrotara pasatzen da, denbora luzean, gainera", zioen. Hori horrela, bidea lokaztuta, bustita eta labainkor, baina ez zuen aparteko arazorik izan.

Gorlan jende asko

Debagoienean ere egin dute sartu-irtena mendi lasterkariek, izan ere, Gorlatik pasatu ziren egubakoitz gauean, 22:00ak inguruan. Anoa postua ere bazegoen bertan Pol Pol mendizale elkarteko kideen ardura, eta lagun asko elkar-tu ziren mendizaleei animoak emateko. "Gorlan eta Zumarragan jende asko zegoen, oraindik goiz zelako. Madarixan ere 50 bat lagun topatu genituen animatzen, nahiz eta 02:30ak izan".

Bost aldiz egin eta bostak bukatuta pozik zegoen Agirrebalzategi: "Helburua beti da hobetzea, baina bukatuta bakarrik ere a ze poztasuna".



Hainbat lasterkari Gorlako anoa postura iristen egubakoitzean. | IMANOL SORIANO



Silvia Trigueros, emakumeetan txapelduna, Gorlara iristen. | IMANOL SORIANO

ESANAK

"Helburua hobetzea da baina bukatuta ere pozik"

I. AGIRREBALZATEGI | LASTERKARIA



Aretxabaletako kuadrilla iaz, txapelketa jokatzen. | GOIENA

FUTBOLA

Etzi arte zabalik kuadrillen arteko futbol 7 txapelketako izenematea

M.A. | ARETXABALETA

Hirugarrenez deitu du Aretxabaleta kirol elkarteak Debagoieneko kuadrillen arteko Futbol 7 txapelketa. Zapatuan, uztailaren 19an, jokatuko dute Ibarra futbol zelaian, eta izen-emate epea eguaztenean itxiko dute.

16 urtetik gorakoendako

Txapelketan parte hartzeko baldintza bakarra dago: 16 urte izatea (1998an jaiotakoak barne). Izena eman gura dutenek hona bideak: Udaetxabaletako Twitter, Tuenti edo Facebook bidez; udaetxabaletake@gmail.com helbidean; edo whatsapp bidez, 635 20 64 33 zenbakian. Izena

ematearekin batera 100 euro sartu behar ditu kuadrillak La Caixako honako kontuan: 2100 6838 42 0200011554.

Sariak hiru onenei

Hiru onenek jasoko dituzte sariak. Hona: lehenengoak, 600 euro; bigarrenak, 300 euro; eta hirugarrenak, 100 euro.

Aurreko urteetan legez jatekoa, edatekoa eta musika izango direla partiduek iraun bitartean Ibarra futbol zelaian jakinarazi dute UDAko kideek, baita sari bereziak ere: "Eta partidu politik eta giro ona ez dira faltako beste behin", diote antolatzaileek.

FUTBOLA

Eibarrek gaur egingo du lehen entrenamendu saioa Agorrosinen

M.A. | BERGARA

Lehenengo mailan jardungo duen Eibar taldeak gaur hasiko du aurre-denboraldia; Bergaran hasi ere. Agorrosin futbol zelaia etorriko da entrenatzera astean birritan -hori da behintzat asmoa- eta gaur du lehenengo saioa.

Uztailaren eta abuztuaren

Goizetan elkartuko dira Agorrosinen, 10:30ean. Eta gaur lehenengo saioa izango bada ere uztailaren beste hainbat egunetan etorriko dira: 16an, 18an, 22an, 23an eta 24an. Lehenengo Mailan jardungo duten taldeei dagoeneko bukatu zaizkie oporrak, hor-

taz, abuztuaren ere bertan izango dira Gaizka Garitanoren mutilak hiru astetan. Behin denboraldia hasitakoan, oster, astean birritan etorriko dira.

Belar naturaleko zelaia

Eibarko eta Bergarako klubek akordioa egin dutelako datoz armaginak Debagoienara. Oraindik guztia zehaztuta izan ez arren, hiru urterako hitzarmena izango delakoan daude. Izan ere, belar naturaleko futbol zelaia gura dute Eibarko jokalariek entrenatzeko eta Ipuruz gain, herrian ez daukate besterik. Inguruan ere ez daude halako asko, eta Bergara-

koa bakarrik hamar kilometrora daukate. Eibartarrek, gainera, ezagutzen dute Agorrosin, tarteka erabili izan dute-eta.

Zelaiaren mantentze lanak

Bergarako klubak ez du dirurik jasoko futbol zelaia uztararen. Agorrosinen mantentze-lanak, baina, Eibarrek hartuko ditu beregain. Gainera, zelaia jaso eta hainbat egokitzapen lan egingo dituztela aurrean jakinarazi dute Bergara kirol elkarteko kideek, "euro askotako inbertsioa".

Bestalde, Agorrosin erabiltzearen trukean Eibarrek urtero lagunarteko partidu bat jokatuko du bertan (sarreraren dirua Bergararendako izango da). Abuztuaren 2an, zapatua, izango da aurrean, Santanderko Racing taldearen aurka, 19:00etan.

MENDIA

Batzar orokorra egingo du Pol Pol mendizale elkarteak eguaztenean

M.A. | BERGARA

Bergarako Pol Pol mendizale elkarteak batzar orokorra du etzi, uztailaren 16a, 19:30ean (lehen deialdia 19:00etan), egoitzan bertan.

Aurtengo eta iaizko gorabeheren berri emango dute, hala nola, diru kontuak eta asmoak; eta zuzendaritza batzorderako bi

kide berri izendatuko dituzte bazkideek. Horretaz gain, lokal berri baten proiektua aurkeztuko dute batzordearen baimena eskatzeko.

Mendizale elkarteko bazkideek galderak eta eskaerak egiteko aukera ere izango dute bukaeran, hortaz, guztiak daude gonbidatuta batzarrerara.

ZIKLISMOA

Eguaztenerako eman behar da izena Tourrera autobusean joateko

Autobusa antolatu dute Oñatik Tourreko etapa bat ikusi eta Markel Irizar animatzera joateko. Eguaztenean, itxiko dute izena emateko epea, hortaz, interesatuek Lizarralde Kirolakera jo dezatela (150 euro helduak, 75 euro umeak). Hilaren 22an irtengo du autobusak Olakua tabernatik, 14:30ean.

Alain Anton | Saskibaloi epailea

"Partidu askok dituzte momentu kritikoak, eta horiek kudeatzeko erak bereizten ditu epaileak"

- "Partiduaren kontrola" mantentzeko gaitasuna ei da ezaugarri garrantzitsuetako bat
- Bost urtean hiru kategorია ezagututa, datorrenean EBAn ariko den jakiteko zain dago

JULEN IRIONDO | OÑATI

Alain Antonek (Oñati, 1986) hiru denboraldi egin zituen Probintzial Mailan –bat erdizka–, bat Maila Autonomikoan eta azkena Nazionalen. Espainiako Txapelketan maila ona eman eta gero, hil amaierarako jakingo du non ariko den datorren denboraldian. Hark prestatzen jarraitzen du: entrenatzaile ikasketak egiten ari da, jokoaren ezagupen maila handiagoa izan eta epaile lanak hobeto egiteko.

Martxa ona daramazu epaile modura; bost urtean, hiru kategoría.

Bai, daramadan denbora laburrerako, bai. Lekuak egon dira igotzeko, eta zortea eduki dut, orain arte. Batzuetan gaizki ohitu zaitezke horrekin, arriskutsua izan daiteke. Kontua da jokia ondo ulertzea, eta kategoriara ondo moldatzen bazara, beti izango duzu ahalmen hori pauso bat aurrera emateko.

Eta oraintxe zaude beste pauso bat emateko aukera izan dezakezun une batean; noraino gustatuko litzaizuke iristea?

Niri gustatuko litzaidakeena da Espainiako Federazioan sartzea. Beste koska bat igotzea da, eta hor dena da askoz ere serioagoa, beste erkidego batzuetako epaileekin-eta ibili behar duzulako. Gauza serioagoa da: arratsalde horretan duzu partidua hori bakarrik eta kito. Euskaditik irten eta Kantabriara joan zaitezke, Burgosera... Niretzat da *hobby* bat; gero eta serioagoa izan daitekeena, baina *hobby* bat.

Polita izan daiteke, beraz, EBAn arbitratzea, nahiz eta aukerarik izango ez bazenu, ez litzatekeen ezer gertatuko.

Erakargarria da kategoría igotzea eta hurrengo denboraldian beste liga batean egotea. Baina, beste ikuspuntu batetik, lehenengo urtea izan dut liga honetan [Nazionalen], eta da liga bat ezin izango nukeena esan erabat menperatuta dudarik; beraz, beste urte bat horrela, lanean jarraitzea, ez zen inongo tragediarik izango. Eta hurrengo urtean egon daiteke beste Espainiako Txapelketa baterako aukera; eta beti ikasten da. Ateratzen zara hemendik eta kanpoko txapelketa bat ikusten duzunean, ikusten duzu hainbeste jende hain prestatuta...

Arautegiagatik bai [adibidez, 24 segundoko jabetza muga ez dago denetan], baina bestela ere desberdina izango da kategoría batean edo beste batean jardutea.

Ematen du ezetz, baina zenbat eta gorago, orduan eta gutxiago

pitatzen da, gero eta tontakeria gutxiago pitatzen dira. EBAn, adibidez, estatistika ofizialak daude; webgunean sartu eta ikus dezakezu bakoitzak zenbat falta egin dituen, eta abar. Eta maila horretan, adibidez, erabaki bakoitzak pisu handiagoa du. Dena neurtzen da askoz gehiago; ez du esan nahi gauza askoz gehiago uzten direnik, baina zerbait adierazterakoan segurtasun askoz handiagoa izan behar da. Mugimendua eta kokapena neurtuko dizute; ez hainbeste erabakian asmatzen duzun edo ez, baizik eta nola egiten duzun lan, jokaldi bat jasotzeko. Horrek ematen du segurtasuna; ondo kokatuta ez bazaude, intuizioaren arabera jokatu duzu, eta hori oso gaizki ikusia dago Espainiako Federazio mailan. Ondo kokatuta ez bazaude, berdin da asmatzen duzun edo ez; eta hori zigortu egiten dute; asmatu arren, zigortu egin dezakete.

Hain justu, Tenerifen, Espainiako Txapelketan, egin zizueten jarraitpena epaileei.

Martxotik maiatzera astero bi azterketa egin behar izan ditut, espresuki, Espainiako Txapelketa nindoalako; eta han bertan ere azterketa bat egin behar da, 25 galderako test bat, araudiaren gainekoa. Final-zortzirenetarako epaileak izendatzeko, hamabi epailetik zortzi behar dira, eta kanpoan geratzen diren aurrenekoak dira azterketa gaitzen ez dutenak. Gure kasuan, denek gaitzen gaituen, eta beste irizpide batzuk erabili zituzten aurreraketa egiteko.

Eta han ikusitakoaren arabera erabakiko dute EBAr jautzia egiten duzun ala ez? Ala urte osoan jarraitzen zaituztete?

Bai, han ikusitakoaren arabera, batik bat; gero, egin diezaiokete galderaren bat hemengo federazioari, eta hemengo informea lagungarri izan erabakia hartzeko. Baina txapelketa hartan euren gustuko gertatu ez bazara, ez zara igoko. Ez zaielako gustatu lan egiteko era, komunikazioagatik, apatikoa irudituz zaitzaizkielako... Lau begirale egoten dira Espainiako Txapelketan, eta bosgarren bat, koordinatzailea. Pentsa zenbat begitatik pasatzen zaren eta zenbat iritzi egon daitezkeen.

Aipatzen ari garenez gain, non egiten dira epaileen arteko desberdintasunak?

Asko baloratzen dena da partiduen kontrola. Eta partiduen kontrola da baita aulkixan gertatzen diren gauzak ere. Partidu askok dituzte momentu kritikoak,



Alain Anton, Errekaldeko kantxan. | JULEN IRIONDO

"Zenbat eta gorago, orduan eta gauza gutxiago pitatzen dira"

"Txapelketa bat ikusten duzunean, ikusten duzu jendea hain prestatuta..."

"Hobby"-a dut; gero eta serioagoa izan daitekeena, baina 'hobby'-a"

eta momentu horiek nola kudeatzen dituzten, hori da epaileak desberdin egin ditzakeena. Abisu bat ematea, erabaki bat hartzea... Jokaldi normalean bi aukera daude, zigortu edo ez; baina, une batean, partidua exijitu diezake aulkia kontrolatzea, entrenatzaile kontrolatzea, edo entrenatzaile bati teknika adieraztea; edo bi teknika adieraztea eta aldagelara bidaltzea. Horiek aurrera nola eramaten dituzun, horrek erakusten du epaile batek ze gaitasun duen partidua bat aurrera ondo ateratzeko, jakinda edozeinek eduki dezakeela egun txar bat. Baina ematen du partiduen kontrola dela teknika bat adieraztea, eta ez; agian, une batean, begirada bat izan daiteke jokalaria bati, eta adieraztea non dagoen muga, beste ezer egin gabe.

Erabakietan koherentzia ere garrantzitsua da.

Fisikoa den eta kontaktu asko dagoen joko baten, ekintza asko

muga daude. Eta muga horretan, jakin behar duzu koherente izaten. Lehen izan dena beste aldean ere izan egin behar da; bestela, orduan bai izango dugu entrenatzailearen kexa, eta okerrera izan daitekeena, arrazoi izan dezakeela. Garrantzitsua da partidua kontrolatzea, baina ezin dena da ez ulertzea agian zure erabaki bat izan dela protesta horiek eragin dituen. Horretarako, garrantzitsua da jakitea zure arbitrajea kanpotik ikusten; epaile denek ez dute gaitasun hori. Baina beti saiatu behar dugu jakiten kexa horietan arrazoirik dagoen edo ez. Guk ezagutzen ditugu entrenatzaileak eta euren erreakzioak; entrenatzaile asko lasaiak dira, eta kezak ari diren momentuan zure buruari galdetzen diozu: "Hau zergatik ote dabil kezak? Ze normalean ez da-eta horrelakoa...". Eta orduan saiatzen zara autokritika egiten, istant batean. Kontziente izan behar dugu zenbateraino ari garen koherente izaten, ze ildo jarraitzekotan geratu garen partidua aurretik, eta betetzen ari garen edo ez. Ze hori hitz egiten dugu eta aurrez partiduko bi epaileon artean. Arbitraje batek izan dezakeen gauza txar bat da epaile batek bai adieraztea gauza batzuk eta besteak ez. Horrek egin dezake lasai zegoen partidua piztea.

Baina egongo dira entrenatzaile maltzurak ere, zure erabakietan eragiten saiatzen direnak, publikoa kontra jartzen ahaleginduz...

Egoten dira maltzurkeriak entrenatzaileen partetik; segurtasun falta adierazten duten epaileekin gertatzen da askotan. Nik badut nortasuna, eta ez zait normalean pasatzen. Baina, halakoetan, beste epailea konturatu egin behar da, eta hori kontrolatu. Eta entrenatzailea lan psikologiko zatar bat egiten ari bada, epaile bat saiatu behar da bestea psikologikoki partiduan mantentzen, eta hori bai da lan zaila, ze lehenengo konturatu egin behar zara-eta zer gertatzen ari den. Baina maltzurkeria asko ez dira kanpotik ikusten; entrenatzailea eta zu baino ez zarete ohartzen, eta beste epailea beste puntan dago. Ikusten duzu laguna apur bat apatiko, eta gertatuaz ohartzea oso garrantzitsua da. Gertatzen dena da hemengo ligan gehienok ezagutzen dugula elkar, eta epaile asko argi egoten dira entrenatzaile batengandik zerbait arraroa ikusi orduko. Partiduaren kontrola edukitzeko, detaile horiek inportanteak dira.

Esaten eta egiten dugunak koherentea izan behar du

"Oso tipikoa da umeei 'ez garrasi egin!' esanez oihu egitea", dio adituak

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Umeei gurasoek eta hezitzaileek esaten dietena eta egiten dutena bat etorri behar dira; perfekzio-rik ez dago, baina koherentzia bilatu behar dute gurasoek. Hori xe da Bergarako Luzaro psikomotrizitate eskolako Alvaro Beñaran adituak 0-6 urte arteko guraso eta hezitzaileei ematen dien gomendioa.

Guraso.com atariak jasotzen du horren gaineko artikulua interesgarria.

Kontraesana

Eskola barruko eta eskolatik kanpoko errealitateek "talka" egiten dute batzuetan, Beñaranen iritziz: "Haurrek jasotzen dute eskolan ikasten dena gauza bat dela eta bizitza erreala beste gauza bat dela. Saiatu behar dugu zatiketa hori gainditzeko, eskolan bizi dugunaren eta handik kanpokoaren artean koherentzia egon dadila, eta ikasleek ikustea hel- duok transmititzen duguna egiaz- koa dela", esan du.

Errezeta bera ematen du etxe barruko eta etxetik kanpoko errealitateetarako. Adibideak ematen ditu Beñaranek: "Oraindik oso tipikoa da haur bati ez jotzeko esatea ipurdiko bat ematen diogun bitartean, edo *ez garrasi egin!* esanez haurrei oihu egitea". Haurrek ikusten dute bote- rea duenaren arabera jokatzeko dutela ingurukoek, eta ez dela egia bestea kontuan hartzen dela. Eta honakoa esaten du adituak: "Ez dut esan nahi haur batek garrasirik ez duenik entzun behar, baina desberdina da haur bati erantzun bat ematea hari lagun- tzeko edo erantzun bat ematea haur horri eraso egiteko, nahiz eta modu inkontzientean egin eraso".

Zailtasun egoeretan

Haurra gurasoak edo hezitzaileak zailtasunetan jartzen ari denean —besteak jotzen, oihu egiten, hozka egiten...— gaizki sentitzen dira helduak, eta haur horri lagundu beharrean, kontraeraso egiten diote.

Bestalde, heldua nekatuta dagoenean, ez da konturatzen nekatuta dagoelako jokatzeko duela modu batera edo beste batera. Horrelakoetan distantzia emo- zionala hartzeko gomendatzen du adituak. Izan ere, esku artean helduak duen egoera kudeatzeko, emozioak gutxitzea ezinbesteko- tzat jotzen du.



Mutikoa, garrasika. | SHARON MOLLERUS

Pentsamendua garatzeko aproposak dira igarkizunak

Juan Cruz Igerabidek umeendako tresna ona direla esan du EHUKo udako ikastaroetan

L.K. | ARRASATE

Oraingo astean *Guraso.com* atari- an ematen da Juan Cruz Igera- bidek egindako jardunaldi baten berri; ondorioetako bat hauxe da: igarkizunak eta hitz jolasak pentsamendua garatzeko tresna ona direla umeendako.

Juan Cruz Igerabide idazle eta Filologian doktoreak hitzaldia egin zuen EHUKo udako ikasta- roetan, Donostian, *Bertsolaritza eta ahozkotasuna hezkuntza arau- tuan* izeneko ikastaroan, hain zuzen ere. *Mintzo ez isilik* liburua abiapuntu hartuta ahalegindu zen igarkizunek eta hitzaren

jokoek umeengan duten garran- tzia azaltzen. Hitzaldiak, hain zuzen ere, *Igarkizunetik iragar- kizunera* zuen izenburua. "Igar- kizunak aspaldiko zerbait diren arren, gaur egun ere mundu guz- tian zehar erabiltzen dira", esan zuen. "Igarkizun hauen muina jakin-mina da, eta horrez gain abstrakzio ahalmenaren hasta- pena dira; haurrak garatzen duen pentsaera logikoaren laguntzaile, hain zuzen ere".

Komunikazio emozionala

Hizlariak esan zuenez, gizakion arteko lehen komunikazioa emo-

zionala da eta komunikazio horrek jarraitu egiten du bizitza guztian behar. Beraz, hitzaren jolas horiek umezarotik etorri behar diren zerbait dira. Hasieran, horiek, sehaska-kanta gisa, umea lasaitzea eta suspertzea dute helburu. "Hau- rra lasaitu eta suspertu ez ezik, sehaska kantez eragin hipnotikoa suspertu eta komunikazio emo- zional bat lortzeko gaitasuna ere badute", esan zuen Igerabidek hitzaldian.

Igerabidek azpimarratu zuen igarkizunek joko metaforikoa bultzatzen dutela, eta bizitzaren ispilu ere badirela. Pentsamendua garatzeko tresna oso aproposak direla uste du Igerabidek. "Aha- lik eta gehien ezkutatu behar dute erantzuna, beti ere pista eta azalpen argiak emanaz".

Iragarkizunak, Igerabideren ustez, beste pauso bat dira: "Pen- tsamendu magikotik pentsamen- du zientifikora igarotzeko bide naturalizat har daitezke".

Etxean erraz egin daitezke edari eta izozki freskagarri eta naturalak

L.K. | ARRASATE

Sasoiko frutarekin eta urarekin, zuku, sorbete, izotz-edari eta izozki goxo-goxoak egin daitez- ke etxean.

Limonada

Limonadaren oinarria ura eta limoia dira, nork bere gustuko neurrian ipinita. Ez bota azukre larregi. Beste edozein frutarekin ere egin daiteke edaria.

Sorbetea

Sorbetea egiteko, aukeratutako fruta zuritu behar da, eta mamia txikitu pure moduko bat lortu arte. Ura gehitu ondoren. Bes- te edukiontzi batean ura egosi behar da azukre apur batekin almibarra lortu arte. Nahastu

guztia eta sartu izozkailuan. 30 bat minuturo nahasketa irabia- tu, sorbetea izotz-bloke unifor- me ez bihurtzeko.

Izotz-edaria

Izotz-edaria egiteko, guztiz izoz- tu behar da fruta eta ur nahas- keta. Bloke izoztua eskuartean hartuta, zati txikitan birrindu. Irabiagailuarekin amaitu lana. Neurtu noiz zerbitzatu behar den, luzaro itxaronez gero gehie- gi urtuko da-eta.

Izozkiak

Merkatuan badaude moldeak, baina egin daitezke ere plasti- kozko poltsa luzeak beteta. Egosi ura eta azukrea eta gehi- tu frutaren mamiari.



Etxean egindako limonada. | SAGE SOLAR

ARGITALPENA

Ohean txiza egiten duen umea, 'Nire potxolina maitea'-n

L.K. | ARRASATE

Nire potxolina maitea ipuina argitaratu du Elkarrek, eta egokia da 8 urtetik gorako umeendako. Alaine Agirre Garmendiak idatzi du, eta Eider Eibar Zugazabeitiak egin ditu ilustrazioak. Alai- a da bertako protagonista eta arazo bat dauka: txiza egiten du ohean. Anaiak zirikatu egiten du, amak errieta egiten dio eta, txiza ohean egiteari utziz gero, aitak oparia egin- go diola hitza ematen dio. Alaiak, baina, ez du ulertzen nolatan utz diezaiokeen txiza egiteari, nahi gabe egiten duelako. Azkenean, irtenbide bat aurkitzen du: bere potxo- linari berba egiten hasten zaio, samurtasun handiarekin, modu maitekorrean.

Haurtzaroan sarri izaten den arazo bati buruz idatzi du Alaine Agirrek, delikade- ziaz eta hizkuntza landu batean.

IRTEERA

Zirauntza ibaiaren iturburura ibilaldi erraz eta polita

L.K. | ARRASATE

Umeei egiteko irteera eroso eta polita egin daiteke Ziraun- tza ibaiaren iturburura (Araia, Araba).

Abiapuntua Araiaiko Intu- xi auzoan dago, Energia Berriz- tagarrien Museoaren ondoan. Eraikuntza ezkerretatik ingu- ratuz gero, haritz baso batera sartuko da ibiltaria. Harri kos- korrez egindako bide batera ailegatu eta ezkerre- ra jo behar da. Ajuria eta Urigoitia burdi- nola zaharren paretik doan bide horrek egurrezko atetzar batera darama. Bidea jarrai- tuta eta ezkerretara —25 bat metrora— metalezko iturria dago, eta gero, aldatxoa bat. Goiko burdinola ikusteko gunea dago han eta, pixka bat aurre- rago, atsedeen hartzeko gune bat mahaiekin. Bidegurutzea dago gero. Ezkerretatik ibai- ren pare-paretik doan ur-jau- ziraino iritsi eta eskumako bidea hartu behar da.



KULTURA

Jai elektronikoa Arrasaten

- ▶ Egubakoitzetik domekara Electrogaia 2014 jaialdia egingo dute Santa Marina auzoan
- ▶ Euskal DJ ugari elkartuko ditu jaialdiak, eta musika elektronikoa izango da nagusi

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE
Tekno, house, tech house, minimal, deep... soinu elektronikoaren jarraitzaileek hitzordu garrantzitsua dute aste bukaeran Arrasaten. Aurreko urteetan moduan Santa Marina auzoa izango da elkargunea, eta egubakoitzetik domekara bitartean euskal panoramako DJ onentsuenak gerturatuko dira bertara.

Musika elektronikoaren barruan era askotariko proposamenak daude; klasikoagoak, organikoagoak, esperimentalagoak... Electrogaia 2014 jaialdia erakusleihu zabala izango da, eta nork bere gustua egiteko aukera izango du, hala musikariek nola jarraitzaileek.

Antolatzaile lanetan diharduen *Aldapak* aditzera eman duenez jaialdiaren helburuak hainbat dira: "Musika elektronikoaren esentzia zabaltu eta proposamen artistiko ezberdinak ezagutzera eman. Tartean, nola ez, bertako artisten lana ezagutzera ematea".

DJ zerrenda luze batek osatzen du Electrogaia 2014 jaialdiko egitaraua; 35 proposamenetik gora eskainiko dituzte Arrasaten aste bukaeran. Izen garrantzitsuenen artean nabarmentzen dira, esaterako, Iñaki Cerqueira *Kirrin*, Imatxilaut eta Alain Elektronische.

Debagoienean ere bada musika elektronikoarenganako interesa eta jaialdian parte hartuko duten artistei dagokienean aipatzekoak dira beste batzuen artean, Daniel, Erkorek Liher, Iban Arce, Maik-On, Nakato Nakas, Jack D Dani, DJ Elektit, Djarmen, Irraghoreound eta Asier Galiano.



Iñaki Cerqueira *Kirrin* izango da artista gonbidatuetakoa bat. | LONELY OWL RECORDS

Jaialdiaren egitura
Hiru egunerako egitaraua gertatu dute antolatzaileek; egubakoitzetik domekara bitartekoa. Punk kontzertuak iragarri dituzte egubakoitzerako, jaialdiari hasiera emateko. Gero etorriko da festa elektronikoa.

Hala, musika elektronikoak zapatuan izango du benetako protagonismoa. Eguerdian hasiko dira emanaldi ezberdinak eta antolatzaileek aurreikusten dute festa goizaldera arte luzatuko dela; 06:00ak inguru arte.

Ez da urruti ibiliko, izan ere makina bat artista daude iragarrita musika elektronikoaren jaialdi horretan. Santa Marina auzoan egingo dira ekitaldi guztiak, eta antolatzaileek barra zerbitzua ere antolatu dute. "Udalaren laguntza izan dugu eta eszenatokia eta txosna ipiniko ditugu aste bukaerarako", esan du *Aldapak*. Ez dute sarrerarik kobratuko.

Performance bisuala
Zapatuan, zuzeneko musika saioekin batera instalazio artistiko berezia egongo da ikusgai Santa Marinan. Elorriotik dator proposamena eta Summum Art proiektuko burua den John Frazierrek sinatzen du. Ezer gutxi jakin dugu ikusgai egongo den instalazioaren inguruan: artistikoa, berritzailea eta ikusgarria izango dela. Baliabide teknologiak, soinu berriak eta lengoia digitala uztartzen ditu Frazierrek bere muntaietan.



'ALDAPA'
ANTOLATZAILEA

"Kanpora joan behar izaten dugu jaialdi handiak ikustera"

Laugarren urtea da Santa Marina auzoan musika elektronikoaren inguruko jaialdia antolatzen dutela. Diote aurtengo dela "potoloena".

DJ asko elkartuko dituzue Arrasaten. Erraza da horrelako programa lotzea?

Erraza ez da. Euskal Herri osotik etorriko dira —Gasteiz, Bilbo, Donostia, Irun, Legazpi, Arrasate, Eskoriatza, Bergara...—. Azkenean, ia denak dira lagunak, eta horrela lortzen dugu halako kartelera bat osatzea.

Zeintzuk dira izarrak?
Guztiak esango nuke. (Barre). Akaso denbora gehiago dararmatenak nabarmendu daitezke: Alain, Imatxilaut, Iñaki Cerqueira *Kirrin*...

Modan dagoen musika estiloa da zure ustez?

Ez nuke esango modan dagoenik, baina minoritarioa ere ez da. Musika elektronikoaren barruan estilo garrantzitsu asko daude, eta gero eta jarraitzaile gehiago dituen musika estiloa da, zalanza barik.

Halako jaialdi asko egiten dira hemen?

Lehen gehiago. Orain kanpora joan behar izaten dugu jaialdi handiak ikustera. Madrilera,artzelona, Londresera... Sónar jaialdia dut buruan.

"Gero eta jarraitzaile gehiago dituen musika estiloa da"

ELECTROGAIA
EGITARAUA

UZTAILAK 18, BARIKUA

17:00 Punk kontzertuak + DJ saioak.

UZTAILAK 19, ZAPATUA

12:00 Electrogaia jaialdia: 35 proposamen.

Egun osoan, Summum Art performance bisuala.

UZTAILAK 20, DOMEKA

06:00 Electrogaia DJ's.

Egubakoitzean,
punk kontzertuak

Eskualdeko sei punk talderen kontzertuarekin emango diote hasiera Electrogaia 2014 jaialdiari. Egubakoitzean, 17:00etan hasita, Aramaioko El Exterminio de la Raza del Mono taldea; Aretxabaletako Krisis; eta Arrasateko Kadena Perpetua, Repelencia, Transgresion eta WC taldeak izango dira protagonista Santa Marinan. Ostean entzungo dira lehenengo DJ saioak. Lehen saio horrek sei bat orduko iraupena izatea aurreikusten dute antolatzaileek.

El Exterminio de la Raza del Mono talde aramaioarra . | JAGOBA DOMINGO

Galarrixako ibilbidean 'Loramendi'-ren istorioa eta jaiotetxea ezagutu dute

Atzo, Bedoña auzokoek ibilbide gidatua egin zuten

MAIDER ARREGI | ARRASATE

Bedoña auzoko Loramendi elkar-teak, 50 urte beteko ditu uztaile-ren 31n. Ospakizunetan murgil-duta daude auzotarrak; hala, atzo Galarrixako ibilbidea egin zuten auzoko toki berezi eta esangura-tsuak ezagutzeko. Ez zen, baina, edonolako ibilbidea izan. Bisita gidatua, baizik.

Tartean, Juan Arana Ezpeleta, *Loramendi*, poeta eta idazlea-ren jaiotetxera, Mendibitzu base-rirra, joan ziren. "Egun, *Loramendi* zenaren bilobak bizi dira etxe horretan. Arkua bakarrik geratzen da, baina. Izan ere, oso egoera kaxkarrean zegoen erai-kina eta dena berritu behar izan

zuten. Interesagarria dela deritzot elkartearen izena nondik datorren gogoraraztea gure auzoko gazteei ere", kontatu du Andoni Iñarra elkarteko lehendakariak. Ibilbidean barrena, toki ezkutuak eza-gutzeko aukera izan zuten. "Jen-de gutxik daki ferra-lekua dagoe-nik Bedoñan. Bertan izan gara", dio Iñarrak.

Elkartearen gaineko balora-zioa egiteko eskatuta, positiboa dela dio: "Hamabi urte inguru daramatzat bazkide nik neuk. Ia ehun bazkidek osatzen dugu Lora-mendi elkartea. Txikia da eta umeekin lasai egoteko aukera daukagu. Auzotarren elkargunea da, gainera; bertakoen bilgune

izateko asmoz sortu zen orain dela 50 urte-eta. Bestalde, Bedoña batu kultura taldearekin ados-ta, elkartea uzten diegu bertan ikastaroak egiteko, adibidez", azaldu du.

Elkar-teak 50 urte

Uztailaren 31n, San Inazio egu-nean, elkar-teak 50 urte beteko ditu. Hala, hilaren 20an, domekan, Goikobaluren emanaldiaz goza-tzeko aukera izango da mende erdia ospatzeko. Bedoñako elizan, 12:30ean, egingo dute emanaldia Goikobalu abesbatzakoeak.

Ondoren, luntxa ere egingo dute, auzokoekin batera, ospaki-zuna borobiltzeko.



'Loramendi' ren omenez jarritako monolitoaren aurrean auzotarrak. | M.A.



'Loramendi' bizi zen etxeko arkua soilik mantentzen dute egun. | ANDONI IÑARRA



AMADEO EZPELETA
BEDOÑA

"Ibilbide polita eta ederra egin dugu. Batzuek ez zuten auzoa ondo ezagutzen eta ondo etorri dira azalpenak. *Loramendi* jaio zen etxe aurrean ere egon gara. Bere iloba Agustin bizi da bertan. Plaka bat dago jarrita han poeta gogoratuz. Elkarteko bazkide naiz, gainera, eta esan nahi dut auzoarendako ona izan dela".



IBAI ORMAETXEA
BEDOÑA

"Eguraldi ona izan dugu. Goizeko bederatiak aldera irten gara eta hamabiak pasatxo iritsi gara elkartera. Bi ordu eta erdiko ibilbidea egin dugu! Pozik ibili naiz aitona eta amonarekin auzoko historia gertutik ezagutuz. *Loramendi* non jaio zen ere ikusi dugu. Orain salda eta txorizoa jatera joango gara".



PILAR CALVO
BEDOÑA

"Buelta ederra egin dugu, itzalarekin. Auzoko kontuak entzunez, gustura ibili gara denok elkarrekin. *Loramendi*-ren ama gure tartekoa zen, esaterako. Hemen familia handia daukat, senarra ere hemengoa da. Orain, saninaziotan, 50 urte beteko du gure elkar-teak. Datorren astean ospatuko dugu".

Iñigo Arregi: "Basterretxeak ondare garrantzitsua utzi du"

Gaur emango diote Nestor Basterretxea euskal artistari azken agurra Donostian, 20:00etan

M.A. | ARRASATE

Nestor Basterretxea zapatu goizean hil zen Hondarribiko etxean, familiakoek inguratuta; 90 urte zeuzkan (Bermeo, 1924). Haren lagun Iñigo Arregi arrasatearrak azkenaldian oso gaixorik zegoela dio eta penaz, gogoratu du Nestor Basterretxea. "Oso artista garrantzitsua izan da. Zalantza gabe, euskal eskulturaren erreferentea da. Bere lanak betiko geratu dira orain gure artean; nortasun handiko obrak egin ditu, oso lotuak

Euskal Herriarekin. Ondare oso garrantzitsua utzi du Basterretxeak", gaineratu du.

Euskal eskulturgintzako bi maisu handiak elkarrekin izan ziren 2012an Trapagarango (Bizkaia) Meatzaldea Goikoa parkean, hain zuzen ere Arregi artistak jarritako eskulturaren inaugurazio ekitaldian.

Gorritz jantzita, corten altzairuan eginda, hiru metrotako alturako lan deigarria goraiatu zuen orduan Basterretxeak.



Basterretxea eta Arregi, 2012an, Meatzaldea Goikoa parkean. | IÑIGO ARREGI

Gurean hainbat lan

Debagoienean, Arantzazuko Santutegiko kriptan egindako margoak dira Nestor Basterretxearen lanen artean garrantzitsuenak. 1982an bukatu zituen kriptako margo guzti horiek egiten.

Ezin utzi aipatu gabe, Arantzazura bidean, Uribarri auzoan dagoen altzairuzko monumentu handia. Euskal artzainak omentzen dituen eskultura abangoardista da, 1998ko irailaren 20an inauguratu zutena. Bertan, haxe irakurri daiteke: "Euskal Herriak euskal artzainari".

Euskal eskultura irauli bazuen ere, margolaria eta zine zuzendaria ere izan zen Basterretxea.

Familiak esan du ez duela beilatokirik jarriko. Hala ere, azken agurra emateko ekitaldia egingo diote gaur, astelehena, Donostian, 20:00etan hasita.



Ikusle bat eta Jon Zabal magoa aho zabalik 100 euroko billetea eskuartean duela. | M.A.

KRONIKA

Aho zabalik usteko gaitasuna

MIRARI ALTUBE | ARRASATE
Jon Zabal mago bilbotarrak txundituta utzi zituen arrasatearrak. Askok ezagutzen zuten, aurretik ere egonda dagoelako, baina beste behin ere aho zabalik geratu ziren haren trukuen aurrean.

Seber Altube plazan izango zela ekitaldia iragarrita egon arren Biteri plazan egin zuen, euritik babesteko. Eta elkartutakoek, herritar mordoa, gustura jarraitu zuten haren azken ikuskizuna: *El suceso*.

Pentsamenduak asmatzen
Esku-arten ez zuen ezer ekarri; ez mahairik, ez kapelarik, ezta hauts magikorik ere. Etengabeko berriketa –txistekak eta umorea beti lagun– eta burua erabili zituen; burua, gainerakoenen buruetan

FITXA	
MAGIA	
JON ZABAL MAGOA	
UDAZABAL EKIMENeko EKITALDIA	
Generoa:	Ilusionismoa.
Non:	Biteri plaza, Arrasate.
Eguna:	Egubakoitza, uztailak 11.
Iraupena:	Ordubete.

sartzeko. Izan ere, mentalista da Jon Zabal. Ikusleak lagun hartuta egin zuen ordubeteko saioa, eta pentsamenduak asmatzen ez duela parekorik erakutsi. Bi gutun-azalen artetik bat aukeratzeko esan eta magoak gura zuena hartu zuen ikusle batek, bestean 100 eurokoa zegoen-eta. Paperean hainbat pentsamendu eta izen idazteko eskatu bost laguni eta guztiak asmatu zituen: film bat; lagun baten izena; oporretan joateko paraje bat; eta umetako oroitza-pen bat. Seigarrenari marrazkia egiteko esan eta baita magoak berdina egin ere. Beste bati, ostera, hamar berben artetik bat aukeratzeko eman zion, eta asmatu egin zuen berba hori ere. Horiek guztiak gertatu bitartean, ikusleak harrituta aho zabalik.

Eta ikuskizun guztietan legez une gorena bukaeran iritsi zen. Ikusle bat auto batean sartu eta beste norabait bidali zuen lagun-tzaile batekin, munduko herrialde batean pentsatzeko esanda. Magoak, ostera, koadernoan idatzituen izen hori. Gero telefonoz deitu eta zein herrialde zen galdetuta magoak idatzitakoa esan zuen hark.

Hori guztia umoreak, askotan txiste txarrek, lagun eginda. Izan ere, umorea "giltza" da haren esanetan, "ikusleak distraitzeko, lasaitzeko edo urduritzeko". Eta ikusle horiek, batez ere helduek, irribarrea ahoan zutela jarraitu zituzten magoaren esanak.



Jon Zabal magoa ikusleekin jolasean. | M.A.



Ikuslea eta magoa marrazten bakoitza bere koadernoan. | M.A.



Ikusleak adi-adi. | M.A.

Bluesa, swinga eta umorea The Romanticosen eskutik

Udalak antolatutako '7x7 kultura kalean' ekimenaren barruko azken ekitaldia izan da

M.A. | ARETXABALETA
The Romanticos hirukote gipuzkoarrak agurtu zuen 7x7 kultura kalean ekimena egubakoitzean, Aretxabaletan. Iralabarri plazan eskaini zuen kontzertua eta inguruan elkartutako umeek eta helduek gustura jarraitu zituzten blues, swing, funky eta rock doinuak.

Giroa berotzea kostatzen
Euriari baimena eskatu eta doinu goxo, dantzagarri eta alaiekin bete zuten Iralabarri ordubetez. Iker Pirisen gitarra eta ahotsa gidari zirela orain bluesa, orain

swinga eta gero rocka izan ziren, beti umoreak lagun eginda. Umeak dantzan eta kantuan jarri gura izan zituzten musikariek, baina giro hotza berotzea kostatu egin zitzaion. Helduak, ostera, gustura haien inguruan eserita eta berriketan.

Ohikoak ez diren guneetan
Kultur ekitaldiak kalera atera gura izan ditu Udalak 7x7 kultura kalean antolatuta. Lehenengoz egin dute Aretxabaletan, eta ekitaldiok ohikoak ez diren plaza, kale eta bazterretara eramatea zegoen helburuen artean. Hainbat



Umeak lurrean eserita The Romanticos taldearen doinuak entzuten. | M.A.

eratako ekitaldiak izan dituzte herritarrek, horien artean, txotxongiloak, kontzertuak eta kirol erakustaldiak, eta antolatzaileak pozik daude izandako erantzunarekin.

Haien esanetan batzuek jende gehiago elkartu dute, beste batzuek gutxiago, baina orokorrean kopuru polita izan da guztietan, kontuan hartuta eguraldiak ere ez duela asko lagundu azken asteotan.

Estreinaldia eginda ikusi egin behar datorren urtean jarraipenik izango duen ekimenak.

Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



AKUPUNTURA

INTEGU

Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34

ALBAITARIAK

ETXEBERRIA JULIO

(DEBAGOIENeko ALBAITARI OFIZIALA)

Bergara / 609 54 16 13

DENTISTAK

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO

Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65

Elgeta / Torrealdea 2 behea ezk. / 943 76 80 06

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Oñati / Atzeko kalea 6 behea

620 12 48 43 / 943 71 61 82

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO – BIOACUSTICA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA

TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)

Arrasate / Nafarroa etorbidea 11

943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

NEUROLOGIA

AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA

(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

OSTEOPATIA

BENGOA NEREA

Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKOLOGOAK

ARKAITZ IRAZABAL PSIKOLOGO KLINIKOA

Bergara / 646 06 28 18

arkaitz.irazabal@gmail.com

GARMENDIA LANDER

PSIKOLOGO KLINIKOA - PSIKOTERAPEUTA

Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86 / 669 10 13 93

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA

(AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

PSIKIATRIA

IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

YOGA

SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behea

943 76 11 38 / 639 23 57 53.

GURE MUSIKA TALDEAK

LORD WITCH



Lord Witch bergararrak. | LORD WITCH

"Zuzenean defenda dezakeguna grabatu dugu diskoan, besterik ez"

- Lord Witch bergarrek 'El elixir de la vida' diskoa kaleratu dute ekainean
- Nazioarteko banaketa izango dute Metal On Metal banatzaileari esker

JAGOBA DOMINGO | BERGARA

Lord Witch bergarrek hamar urte bete dituzte, eta *El elixir de la vida* diskoa kaleratu dute. *Dragon flight* kaleratu zutenetik taldeak hainbat aldaketa izan ditu, baina oraingoan gogotsu eta indartsu datoz, gudariak bali- ra bezala munduan zehar heavy metala defendatzeko asmoz.

Dragon flight duela bost urte kaleratu ostean, zer aldatu da?

Bost urte horiek nahiko gogorrak izan dira. Kantu berriak prestatuta geneuzkan, baina taldekide batzuekin arazoak izan genituen. Lord Witch-ekiko konpromiso falta zutela sentitzen genuen eta taldetik alde egin zuten. Ordutik hona, hainbat musikari probatu ditugu, eta batzuk taldean sartu ziren arren, denbora batera gauza bera gertatu zitzaigun. Beraz, oraingo formazioa lortu artean denbora nahikotxo pasatu da, baina bide luzeak merezi izan

du. Taldekide berriak Lord Aitor eta Lord Oskar dira, lehena teklatuan eta bigarrena abeslari. Bi urte inguru daramatzate Lord Witch-en eta denbora hori guz- tiori diskoa prestatzeko eskaini diogu. Esan bezala, hainbat kan- tu eginda genituen, baina mol- datu egin behar izan ditugu. Izan ere, disko berrirako kantuak bi gitarristarentzat konposatuta zeuden, baina, estudioan geun- dela, gitarristak hainbatetan kale egin zigun eta azkenean ni [Lord Uge] bakarrik geratu naiz gita- rrista. Horrek lan handia eman

dit, beste gitarraren pasarteak ikasi behar izan nituelako eta hainbat moldaketa egin nituelako. Horrez gain, Oskarren abes- teko modura moldatu genituen kantu batzuk eta teklatuak ere protagonismo handia hartu du; nolabait, base erritmikoan txer- tatu da. Oskarrena kurioa izan zen, aspalditik lagunak gara eta urteak daramatza abesten eta gitarra jotzen, egun batean nire etxean agertu zen eta ordutik hona Lord Oskar bihurtu da. Beraz, *El elixir de la vida* diskoan, formazio berriarekin egindako kantuak eta aurretik konposatu- riko abestiak daude.

Beraz, bide luzea izan da.

Bai; *casting* antzeko batzuk egin genituen, batez ere gitarristekin, eta, egia esan, ez genuen pertso- na aproposarekin topo egin; gita- rristak oso alferrak direla ohar- tu naiz. Hori ikusita, eta zuzene- ko batzuetan gitarrista

"Teklatuak protagonismo handia du kantu berrietan"

ZERTZELADA



EL ELIXIR DE LA VIDA

Estiloa: Heavy metal.

Egilea: Lord Witch (Bergara, 2014).

Argitaletxea: Autoekoizpena.

Iraupena: 40:54 minutu.

Heavytik tenpo eta giro irekiagoak

Bergarako taldea bueltan dator ave fenix-aren moduan. Uge gidatutako taldea Danbeka lehiaketan ezagutu genuen. Penintsulako heavy klasikoaren (epikoaren) patro- i guztiak betetzen zituen, zale askoren gozamenerako. Orain, baina, hainbat partaide aldatu dira, tartean abeslaria, eta beste esparru batzuetara zabaldu dira. Asko dira oraindik heavyaren ezaugarriak, baina batez ere teklatuari esker bestelako giroak lortu dituzte eta erdibideko tenpoak dira gehienak. Bitxia da abeslari berriaren tonua eta tarteka hastapenetako Bumbury ekarri dit gogora. Heavyya baino epikoagoa da lan hau eta muga estilistiko dezente apurtzen ditu, batez ere *Estrella sin cristal* kantuak.

IKER BARANDIARAN

bakarrarekin taldeak funtziona- tzen zuela ikusita, ardura nire gain hartzea erabaki nuen. Hori bai, diskoa egiterakoan oso garran- tzitsua izan da zuzenean defenda dezakegun hori grabatzea; sor- presa asko izan ditut talde baten diskoa entzun eta zuzenean iku- si ostean dagoen aldearekin.

Nola joan da grabazioa?

Grabazioa etxeko estudioan egin dugu eta nahasketak eta maste- rizazioa Aretxabaletako Auryn Studioan egin ditugu Tristan Iniguez teknikariarekin. Kontua da grabazio prozesua luze joan del; gutxi gorabehera, urtebete eman dugu lanean. Nork bere lana du, horrek dakarren ordu- tegi kaosarekin; eta, horrez gain, Lord Aitor teklatu-jotzaileak sei hilabete eman zituen atzerrian. Joan zenerako bere zatiak gra- batuta utzi zituen, baina, diskoa nahasten hasi ginenean, tekni- kariak berriz ere grabatzeko gomendatu zigun, emaitza hobea lortzea posible zelako; beraz, urte erdiz itxaroten egon ginen. Hala ere, itxaronaldiak merezi izan duela uste dugu; pozik gaude egin dugun diskoarekin.

Banaketa nazioarte mailan egingo duzue.

Metal On Metal banatzaileari esker, besteak beste, Japonia, Alemania eta baliteke Mexikora ere gure diskoak heltzea. *Con- cierto para ell@s* irratsaioko Txema Sanchezi esker ezagutu genuen Paco Mate. Disko batzuk bidali genizkion, eta, itxura denez, gus- tatu egin zitzaizkion. Egia esan, aukera paregabea da; horrez gain, guk ere saltzen ditugu. Orain arte estatu mailan disko nahiko- txo eskatu dizkigute eta Berga- rako eta Arrasateko tabernetan ere salgai daude.

Eta aurkezpena noizko?

Kontua da lan egutegiak direla -eta hainbat kontzertu bertan behera utzi behar izan ditugula. Besteak beste, Pontevedrara, Asturiasera eta Bartzelonara joateko eskaintzak genituen, bai- na... lana lana da. *El elixir de la vida* etxean aurkezteko gogoa daukagu; hasiera baten, irailean egingo dugu, Laino skate parkean, eta, hortik aurrera, estatuan aur- kezteko asmoa daukagu, baina pausoz pauso joan behar dugu.

1. ETXEBIZITZAK

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. San Andres auzoan etxebizitza ematen da errentan. Pisu argitsua, guztiz altzarizatua, kanpoaldera ematen duena, hiru logela, bainugela, sukalde independentea, egongelaeta balkoi zabala. Hirugarren solairua. Igogailurik gabe. 634 70 98 01 edo 943 04 49 74

Donibane Garazi. Apartamentua errentan ematen da uztaillean, abuztuan eta iraillean. Bi logela, sukaldea, egongela eta komuna. Etxe inguruan baratza eta barbakoa. Asteko 330 eurotik 390 eurora artean. Kontakua: 0033 559 37 16 66 edo mendizangoan@yahoo.fr

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate edo Bergara. Etxea edo estudioa hartuko nuke errentan Arrasate edo Bergaran. Hilean 300 euro ordaintzeko prest. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 637 18 07 23

Arrasate. Etxebizitza behar dut errentan. Hilan 500 euro ordain ditzaket. Ebert Sanchez. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 648 00 86 55

Bergara. Etxebizitza txikia edo estudioa hartuko nuke errentan. 616 39 49 91

Oñati. Bikote euskalduna errentan hartzeko etxebizitza bila. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 685 79 73 00

105. ETXEA OSATU

Bergara. Logela ematen da errentan, sukaldea eta komuna erabiltzeko aukerarekin. Leku lasaia da. Kontratua egiteko aukerarekin. 637 18 07 23

Donostia. Antigua auzoan, Ondarreta hondartzatik 50 metrora eta EHU-tik 8 minutu oinez, beste bi ikaslerekin 2014-2015 ikasturtean etxebizitza osatzeko kide bila gabilta. Etxebizitzak hiru logela (armairu eta ikas-mahaiekin), bi komun, guztiz hornituriko sukaldea, jangela, egongela, terraza eta trastelekua ditu. Hilean 350 euro, gastuak barne (komunitatea, zabor tasa, ura eta berokuntza). Interesa izanez gero, deitu zenbaki hauetara: 630 11 53 02 (Maiden) edo 638 33 29 37 (Ane) edo 646 34 75 49 (Eduarne).

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Antzuolan umeak zaindu. Antzuolan bi ume, 8 eta 2 urtekoak, zaintzeko pertsona bat behar da. Irailaren 1ean hasteko. 615 79 27 35 edo 943 78 62 25

402. ESKAERAK

Arrasate edo Bergara. Neska arduratsua lanerako gertu: nagusi eta umeak zaindu, bulego, atari zein elkarteak garbitu edo dendaria. 943 08 14 33

Arrasate. Emakume euskalduna plantxa eta etxeko lanak egiteko gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 699 54 17 27

Arrasate. Emakumea, geriatria laguntzaile titulua duena, gertu nagusiak zaindu edo ospitalean gauak egiteko. 943 25 05 72 edo 658 70 56 94

Bergara edo inguruak. Bergarako emakume arduratsu eta esperientziaduna etxeko lanak egiteko prest: garbiketa, pertsona nagusien edota umeen zainketa. Interesatuok deitu telefono zenbaki hauetara: 607 45 68 13 edo 943 76 15 94

Bergara. 20 urteko mutila gertu konponketa eta berritze lanetan aritzeko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 638 62 85 02

Bergara. Adin ertaineko emakumea, informeak dituen, umeak eta nagusiak zaindu zein etxeko lanak egiteko gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 610 34 97 88

Bergara. Mutila lan bila dabil, nagusiak zaintzeko, baita baserrietan ere. Esperientziaduna eta dokumentuak egunean dituen. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 631 15 19 94 edo 688 69 07 28

Bergara. Neska euskalduna umeak zaintzeko prest. Interesatuok deitu telefono honetara: 649 37 71 26

Bergara. Neska gertu 19:00etatik 21:00etara lan egiteko. 696 84 19 51

Bergara. Pertsona arduratsua eta informeak dituen garbiketa lanak egiteko prest. Interesatuok deitu telefono honetara: 696 27 25 34

Bergara. Psikopedagogia eta Haur Hezkuntzako ikasketak dituen neska batek umeak zainduko lituzke irailetik aurrera. Esperientziaduna. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 669 64 64 27

Bergaran, Arrasate edo Oñati. Mutila gertu nagusiak zaintzeko. Esperientziaduna eta sei hilabetez San Juan de Diosen lan egindakoa, erizaintza ofizial moduan. Gauetan ere lan egingo nuke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 639 66 57 88 edo 943 78 62 19

Debagoiena. 22 urteko neska euskaldun eta arduratsua haurrak zaintzeko prest. Esperientziaduna. Tel.: 677 54 43 10

Debagoiena. Bertako neska nagusiak zaintzeko gertu. Deitu telefono zenbaki honetara: 637 18 07 23

Debagoiena. Emakumea batek nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan lan egingo luke. Bertakoa naiz eta esperientzia daukat. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 633 84 65 30

Debagoiena. Garbiketarako egiten edo biltegian lan egingo nuke. Gasteizen ere lan egiteko gertu. 633 52 95 02 edo 696 38 10 07

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Egueneko 16:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:

PREZIO BEREZIAK GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan.

Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.

Egubakoitzean + Astelehenean: 22 € (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

- Profesionalen moduluak.

Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).

Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

1. ETXEBIZITZAK

101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

2. GARAJEAK

201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

3. LOKALAK

301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

4. LANA

401. Eskaintzak
402. Eskaerak
403. Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA

501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

6. MOTORRA

601. Saldu
602. Erosi
603. Alokatu
603. Konpondu
604. Bestelakoak

7. ANIMALIAK

701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

8. DENETARIK

801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805. Trukatu
806. Galdu
807. Aurkitu
808. Bestelakoak

9. HARREMANAK

901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

10. RELAX

Debagoiena. Geriatria tituludun neska lan egiteko gertu Debagoienean. Ospitalean gaua pasatu edo etxean gaixoak zaintzeko. Autoa daukat. 600 00 51 60

Debagoiena. Mutil arduratsua, lege-papereak dituen, nagusiak zaintzen eta garbitasunean aritzeko gertu Debagoienean. Etxean bertan bizi izaten, orduka edo egunez. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 688 48 47 76

Debagoiena. Mutil esperientziaduna gertu nagusiak zaintzeko Debagoienean. Etxean bertan bizi izaten edo orduka. Baserrietan ere bai. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 662 43 08 54

Debagoiena. Mutil langile eta arduratsua lanerako gertu Debagoienean. Eskarmentua dut garbitasunean eta nagusiak zaintzen. Sukalde laguntzaile eta garbiketan ere jardun naiteke. Lege papereak eguneratuta daukat. 632 26 01 84 edo 658 74 94 63

Debagoiena. Mutila gertu nagusiak zaintzeko orduka edo etxean bertan bizi izaten Debagoienean. Atari eta abarren garbiketak, eraikuntza peoi eta abarretan ere aritu naiteke. 602 07 12 06

Debagoiena. Mutila lan bila Debagoienean. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 636 60 48 51

Debagoiena. Neska arduratsua, erreferentzia onekoa, nagusiak eta umeak zaindu edo garbiketarako egiten aritzeko gertu. Etxean bertan bizi izaten, egunez edo orduka. 654 24 07 05

Debagoiena. Neska euskalduna haurrak zaintzeko prest. 688 61 11 01

Debagoiena. Neska gertu garbiketarako egin eta nagusiak zaintzeko, etxean bertan bizi izaten. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 662 23 10 47

Debagoiena. Neska gertu lanerako: sukaldelaguntzaile, garbiketarako, nagusiak eta umeak zaintzen eta abar. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 663 40 92 67

Debagoiena. Neska gertu nagusiak zaindu edota etxeko lanak egiteko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 686 71 77 93

Debagoiena. Neska gertu ume eta nagusiak zaintzeko edota garbitasun lanetan aritzeko. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. Baita asteburuetan ere. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 645 01 05 84

Debagoiena. Neska lanerako gertu: sukalde laguntzaile, nagusiak zaintzen, ostalaritzan eta abar. Autoa daukat. 636 11 23 40

Debagoiena. Neska nagusiak zaindu edota garbitasunean jarduteko gertu. Etxean bertan bizi izanda, egunez zein orduka. 610 99 70 46

Haurrak zaindu. Datorren ikasturterabegira, psikologian lizentziatutako neska euskalduna haurrak zaintzeko prest. Esperientzia handia dut. Interesatuok deitu telefono honetara: 615 73 68 07

Tabernan lana. Neska gaztea irailetik aurrera asteburuetan tabernan lan egiteko prest. Esperientziaduna. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 637 85 88 27

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Bergara. Uztaillean zehar goi mailarako matematika eskolak emango dizkidan norbait behar dut. Pneumatika eta abar. 943 76 03 75 edo 605 26 24 62

Ingelesa. Irailetik aurrera 2014-2015 ikasturte osoan zehar, etxean Arrasaten, DBH 2-ko mutiko bateri ingelesko eskolak emateko mutil baten bila gabilta. Astelehenean, arratsalde, egunak zehazteke. Jaioterrikoen semea bazara, hobe. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 688 65 73 49

6. MOTORRA

602. EROSI

Karabana. Bigarren eskuko karabana erosiko genuke. Salgai baduzu deitu telefono zenbaki honetara: 635 20 18 56. Eskerrik asko.

7. ANIMALIAK

703. EMAN

Katakumeak opari. Katakumeak ematen dira opari. Oso politak dira. Interesatuok deitu 666 40 65 58 telefono zenbakira.

Txakurkumeak opari. Txakurmeak ematen dira opari. Ama Border Colliea eta aita ezezaguna. Txakurkumeak konpromiso barik ikus-teko aukera. Deitu 663 38 40 52 edo 663 91 12 61 telefono zenbakietara

8. DENETARIK

802. EROSI

Eskoriatza. Lursaila erosiko nuke, Eskoriatzatik gertu. Lursaila salgai baduzu deitu telefono zenbaki honetara: 618 76 34 40

Esku-soinua. "Reducida" erako esku-soinua erosiko nuke. Salgai baduzu deitu telefono zenbaki hauetara: 657 79 53 62 edo 943 76 35 06

804. HARTU

Bizikletak. Botatzeko dagoen edo erabiltzen ez duzun bizikleta baduzu, nik jasoko nuke. Berdin da zein egoeratan dagoen. Iñaki. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 699 06 23 95

805. TRUKATU

Hizkuntza trukea. Alemaniera eskolak jasoko nituzke eta gaztelaniazkoak emango nituzke trukean. Alemaniera oinarritzko maila daukat. Hizkuntza turkeara egiteko interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 663 65 76 06

Hizkuntza trukea. Ingelesa praktikatuko gura nuke eta trukean euskara edota gaztelania erakutsiko nituzke. Aretxabaletakoa naiz. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 628 51 22 78

806. GALDU

Patinetea galdu. Oxelo etxeko Freestyle patinete morea galdu genuen duela hilabete edo gehiago. Mutiko batena denez, asko eskertuko genuke aurkitu duenak bueltatuko bala. Aurkitu baduzu deitu telefono zenbaki honetara: 667 53 40 07. Eskerrik asko.

9. HARREMANAK

904. BESTELAKOAK

Autoan Debagoienetik Bastidara. Egunero autoz Bastidara joan behar dut irailetik aurrera. Inguru haie-taradoan norbaitekin gastuak banatu nahi ditut. Orduetgia adosteko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 680 34 29 60

Emakumea gizon bila. Emakume euskalduna, 58 urtekoa, gizonetako euskaldun eta, ahal bada, ezkongabe bila dabil. Interesatuok deitu telefono honetara: 650 95 10 02

ETXeko Sukalderaino

Ainhoa Sanchez | Telebistako aurkezlea

- Miss Araba eta Miss Euskadi izan zen 2010ean, eta modelo jardun zuen
- Karlos Argiñano sukaldariarekin dabil lanean telebistan azken urteotan

"Afaria da nire momentua, musika jarrita lasai kozinatzea dut gustuko"

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Modelo lanetan jardun zuen hainbat urtean Ainhoa Sanchezek (Aretxabaleta, 1987) eta Miss Araba eta Miss Euskadi izan zen 2010ean. Azken urteotan telebistan dabil lanean Karlos Argiñanoren alboan, gustura ibili ere.

Ainhoa Sanchez zelakoa da?

Oso alaia, beti nago-eta pozik.

Ze harreman duzu sukaldearekin?

Lan kontuengatik errezeta mordo ikasi ditut eta gustuko dut sukaldean jardutea.

Zein da zure espezialitatea?

Ez dakit ba... Nik arroza eta barazkiak ditut gustuko. Postreei dago kienez, ez dakit ezer egiten.

Zertara gonbidatuko zenuke lagun on bat?

Oso zinemazalea naiz; hortaz, zinemara eta afaltzera.

Eta etsairik handiena?

Etsaia? Gogorra da gero hori! Ez dut uste etsairik dudanik.

Zeinekin gustatuko litzaizuke mahaiaren bueltan eseri?

Lagunekin eta mutilarekin beti gustura, baina ospetsu bat esatekotan, Zidanerekin.

Sukaldean jarduteak erlaxatu egiten duela diote batzuek...

Nik ere bai; bizkor bazkaltzen dut, eta afaria da nire momentua. Lasai-lasai kozinatu musikarekin, eta

gero lasai afaldu mutilarekin.

Nolatan telebistan aurkezle?

Euskal Telebistako *Uyyyyy!* saioan hasi nintzen lagun baten bitartez; proba egin eta erreportari lanetan jarri ninduten. Urte pare bat egin, eta Karlos Argiñanoren produkzio-etxetik deitu zidaten gero.

Zer eman dizu modelo izateak?

Lagun onak eta esperientzia bat; bizitzan guztiak erakusten du.

Zer gurago, modelo ala telebistako aurkezle?

AUKERAN...



WIKIPEDIA

Lehen platera: Arroza, edozein eratar.

Bigarrena: Barazkiak; kalabazina, esaterako.

Postrea: Flana.

Edatekoa: Ura.

Modelo lanetan ez nintzela ni ikusi nuen, antzezten nenbilela sentitzen nintzen, eta aurkezle nabilenean ni neu naiz.

Argiñanok kontatutako txisteak kontatzen dituzu gero zeuk?

Oso txarra naiz txisteak kontatzen, eta motza, gainera, harrapatzeko. Etxera iritsi izan naiz txiste bat kontatzeko gogoz, eta ordurako ahaztuta daukat.

Zer da telebista munduan gustuko ez duzuna?

Guk Zarautzen grabatzen dugu programa, bertan; hortaz, ez dago ezer txarrik. Okerrena da oporrak ez ditudala gainerakoekin hartzen, besterik ez.

Mundiala jarraitu duzu?

Bai.

Zein jokalaria ezagutuko zenuke?

Finalera iritsi diren taldeak ez ditut gustuko; hortaz... Nik Zidane dut gustuko.

Iratxoek hiru desio betetzeko aukera eman dizute.

Nik eta nire inguruek osasuna eta maitasuna izatea... Eta dirua, bidaiatu ahal izateko.

Zure bizitzako anekdota bat.

Ez dakit ba... Karlosekin beti dago zerbait eta beti egiten dut barre, baina eguneroko kontuak dira. Eta kalean ez zait aparteko ezer gertatu, jendea hurbildu izan



Ainhoa Sanchez, Aretxabaletako Herriko Plazan. | M.A.

"Lan kontuengatik errezeta mordo ikasi ditut azken urteotan"

zait argazkiak ateratzeko, baina besterik ez.

Miss izan zinenean edo orain zara ezagunagoa?

Orain, telebistan nabilenetik.

Telebistako aurkezle izateko zer da ezinbestekoa?

Naturaltasuna dut gustuko nik.

Damu zara...

Ez dut aparteko damurik. Egingakoak hala erabaki nituelako momentu hartan egin nituen.

Zer errepikatuko zenuke?

Aurretik egin baditut, seguru asko errepikatu egingo nituzke. Zorteduna naizela uste dut eta ez dut inolako kexarik.

Zerk beldurtzen zaitu?

Altuerak.

Etxera iritsi, sofan eseri eta...

Kirola egitea dut gustuko eta segituan joaten naiz kiroldegira edo korrikan egitera. Jenio bizia dut eta deskargatu beharra daukat.

Nora joango zinateke gustura?

Edozein tokitara. Iaz India eza-gutu nuen, horren kapritxoa nuelako, eta edozein lekuk balio dit orain.

Ze aholku konpartituko zenuke?

Topera bizi behar dela, azken eguna balitz bezala, eta, are gehiago, oraingo egoerarekin, gazteok dugun etorkizunarekin. Momentua bizi eta positiboak izan.

PATRIZIAREN GUTIZIA



Patrizia Vitelli

ARROZA OILASKOAREKIN

Batzuetan izen luze eta ulertezinak dituzten errezetek erakartzen gaituzte, eta ez gara konturatzen etxean urtetan eta urtetan egiten dabiltzan platerak direla, gehienetan, ondoen egiten digutenak.

Adibide moduan gaur proposatuko dizuedan honako arroz hau jarriko dizuet. Zentzua galtzeko moduko arroz oilaskoarekin.

Nik uste dut prestatu nuenean horren gozo ateratzeko gakoa izan zela paellari bota nizkion gozagarriak: paellendako bereziki egindako gozagarria erosi nuen, azafraia oinarri duen osagarri naturalez osatutakoa.

Amaren errezetan oinarrituta

Errezetari dagokionez, berriz, *Javirecetas* (*javirecetas.hola.com*)



Paella-ontzian limoi apur batekin ateratzen da arroza. | THE COOK ROCKER

izeneko blogetik ateratakoea da. Hark dioen moduan, amaren errezetan oinarritutakoea da oilasko bularkiarekin egindako arroz hori. Eta aipatzen du umeei jaten emateko erosoagoa dela bularkidun arroza. Blog beretik ateratakoea da curryarekin eta carbonara eran egindako tagliatelleen errezeta.

Kasu honetan, egin nuen gauza bakarra izan zen ordezkatu

jakien koloratzailea lehen esan dizuedan gozagarriarengatik.

Erabili dudan arroza da, berriz, arroz-ale biribila (Brillante markakoea; marka horrek merkatu-ratzen duen arroz mota da). Izan ere, arroz mota horrek zaporeak bereganatzeko izugarrizko ahalmena dauka. Gainera, ez da gehiegi egiten eta arroz aleak beti solte geratzen dira.

Fitxa

- Denbora: 50 minutu.
- Zailtasuna: ★★★★★

OSAGAIAK

- Brillante arroza, 100 g.
- Barazki salda, litro erdi (bi basokada).
- Oilasko bularkia, laukitxotan zatituta.
- Ardo zuria, baso erdia.
- Piper berdea, laurden bat.
- Tipula erdi.
- Ilarrak.
- Berakatz, ale bat, zurituta.
- Tomate bat.
- Olio.
- Gatza.
- Piperbeltz beltza.
- Azafraia, koilarakadatxoa.

Prestaketa

- Olio tanta batzuk dituen paella-ontzian takotxotan zatitutako tipula eta piperrak eta berakatz ale osoa salteatuko ditugu zortzi bat minutuz.
- Bularkia gehituko dugu, hori ere dadotan zatituta, eta gorritzen utziko dugu, su-eztitan. Gatza egin eta piperbeltza bota.
- Bularkia gorrituta dagoenean, zuritutako eta hazi bako tomatea botako diogu, hori ere takotxotan zatituta.
- Baso-erdi ardo zuri gehitu, eta su-txikian loditzen utzi. Barazki salda gehitu eta irakin egiten duenean, arroz gehitu eta azafrai koilarakadatxoa bota. Pare bat bider eragin eta 18-20 minutuz ukitu barik egosten utzi. Azken minutuan bota ilarrak, pare bat bider eragin eta sutatik kendu. Paella-ontzian atera limoi tanta batzuekin.

Xiaomik, 'Apple txinatarra'-k, salmentak hirukoiztu ditu

26 milioi gailu saldu ditu 2014. urtean, helburua dagoeneko gaindituta

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Apple txinatarra ipini diote gaitzizen bezala, eta izenez bakarrik ez, zifretan ere gerturatzen dabil, aldea oraindik nabarmena bada ere, sagartxoaren handikiaren-gana. Xiaomi teknologia-etxeak hirukoiztu egin ditu salmentak aurtengo lehen seihilekoan, 26 milioi gailu salduta. 60 milioi mugikor saltzea da urte amaierarako nahia.

Helburuak gaindituz

2013an baino %267 mugikor gehiago saldu dituzte Xiaomikoek 2014an, eta urte erdian besterik ez, gainera. Smartphoneak oso prezio merkean egiteagatik da ezaguna Txinako enpresa, eta, hain zuzen, jaioterrian gotortu da, merkatu biziki zatikatuan eta prezio baxuan, lehiakideen prestazio maila bertsuko gailuak eskainita. Hala, emaitzek, oraingo, 2014ko lehen seihilekoaren salmentak jakinarazi berrikan, zabalkundean asmatu dutela erakutsi dute eta iaizko kopuru osoa jada aurtengo lehen hilabeteetan gainditua dutela ikusi da. Androiden oinarritutako



Xiaomi etxeko Lei Jun fundatzailea telefonoak aurkezten. | VR-ZONE.COM

MIUI sistema eragilea darabilte eta 2014an 60 milioi mugikor gura dituzte saldu.

Telebistak ere fabrikatzen ditu Xiaomi etxeak, eta aurkeztu berri duten katalogoan tabletak ere badakartzate. Hala eta guztiz ere, eta hazkundearen ziztu biziko bilakaera ikusita, ematen du, oraindik orain, Apple, Samsung eta Lenovok

Txinako merkatu erraldoian duten nagusitza ukitzetik urrun dagoela. Are urrunago, analisten iritziz, enpreson mozkin maila handitik, Xiaomik merke bai, baina fabrikazio kostuaren prezio berean edo apur bat txikiagoan saltzen dituelako gailuak eta etekinak softwarea eta zerbitzuak salduaz datozkiola, nagusiki.



Seme-alaben lorratza, GPSz

Seme-alaba txikiak ez galtzeko gailutxo atera berri du LGk, KizOn. Haurri eskumuturreko bat jantzi eta kokapenaren jarraipena egiten zaio gurasoan mugikorrean duen aplikazioaren bitartez. GPSa du, wifira konekta daiteke eta egitura sendokoa da, ez hausteko. Kolore bizi eta marrazki ugariarekin atera dute.

Windows 7ren laguntza tekniko etengo dute 2015an

Windowsen blog ofizialetik jakinarazi da Windows sistema eragilearen zarpigarren bertsioari laguntza tekniko zerbitzua etengo diotela datorren urtean, joan den apirilean Windows XPrekin egin zuten moduan. Data zehatza 2015eko urtarrilaren 13a da.

Droneen zirkulazioa erregulatu egin du Espainiako Gobernuak

Pilotatze lizentzia bat behar da, edozein delarik ere, gailu hegalarien kontrolerako, eta galarazita daude hiriguneen gainetik hegaldiak. 25 kilotik gorako droneek erregistratuta eta plaka identifikatzaile batekin egon behar dute, nahitaez.

Enpresentzako lainoa 2 tera handitu du Googlek, doan

Sareko handikien artean lehia eremu da enpresen zerbitzuen alorra, estrategikoa etorkizunean

J.B. | ARRASATE

Lainoko biltegi zerbitzuetan urte hasieratik beherapenak eskaini eta gero, zerbitzua doako bilakatu du Googlek eta Panzura zerbitzu-emailearen bitartez 2 terabyteko tokia eskaintzen hasi dira. Enpresen datu eta fitxategiak lainoratzeko saiakera berria da. Sareko handikiak euren gaitasun guztiarekin enpresen datuen bila dabilta lehiak gaur egun.

Handien arteko lehia

Enpresei zerbitzuak eskaintzeko saiakeran sakontzen jarraitzen du Googlek, eta, berriki, enpresa eta erakundeentzako lainoko biltegi ahalmena handitu du, doako bertsioan. Aurrerantzean, 2 terabyteko biltegiratzeko espazioa eskainiko du Googlek enpresentzat, eta debalde.

Google Cloud Platform lainoko zerbitzuak urtarrila ezker



Kutxa-gotorra, hodeietan. | GOOGLE

drama beherapenak eskaintzen eta urte hasieran bezeroei biltegiratzeko zerbitzuetan %68ko beherapena eskaini zien. Hain zuzen, prezio lehia handia dago Google-

ren, Amazonen eta Microsoften artean enpresei lainoko zerbitzuak eskaintzeko orduan. Analistek uste dute etorkizunean lainoan datuak gordetzeagatik bakarrik

kobratu ere ez dela egingo, baina epe ertain baten izango omen dela hori, ez orain berehala. Oraingo, handiki guztiak enpresak mota horretako zerbitzueta gerturatu eta mesfidantza uxatzen saiatzen dabilta. Zerbitzu eta software estra eskainiko dute ziurrenik gerora, errentagarritasunaren bila, etorkizuneko negozio estrategikoa bezala.

Googleren eskaintza berriaren kasuan, zerbitzu-emaile Panzura enpresa da, haren bazkide dena. Kasu horretan, lainoko datuen sarbidea doakoa izango da, baldin eta enpresak kokapen bakarretik behar badu zerbitzarietara sarbidea. Kokapen bat baino gehiago behar izatekotan, zerbitzuarengatik ordaindu egin beharko dute enpresek.

'Tribual', taldean jolasteko euskal tribiala sarean da

J.B. | ARRASATE

Ahalik eta azkarren bost galdera sortari erantzun eta beste bi lagunekin lehiatuz jolasten da. *Hitzo-kei*, *Mikroipuina*, *Argazkiak identifikatzea* eta halako atalak ditu. Doan eskura daiteke, Androiderako, Google Playn.

Lagunekin

CodeSyntaxek bere lehen aplikazio mugikorra jarri du merkatuan: *Tribual*. Joko bat da, euskaraz, dohainik. Oso mekanika erraza du, eta, bakarka jokatzen den arren, partida bakoitza bi laguni bidaltzen zaio, sare-

ko partidak osatuta. Bost galderako sortak erantzutea da koxka, ahalik eta azkarren. Galdera bakoitzarekin hiru erantzun erakusten dira; bi okerrak dira, noski. Sistema automatikoen bidez sortu dituzte galderak, eta eraberritzea eta gehikuntza ere ziurtatu dute horrela. Galde-sorta bakoitza bi jokalaririk desberdinek ikusiko dute, eta, hortaz, beti, bata edo besteak irabaziko du. Jokatzeko, sareko konexioa eduki behar da.



Aplikazioaren pantaila-irudia. | CS

TELE-BEGI

OIHAN VEGA

Cuatro, Telecinco eta Zazpi

Spainiaiko telebista kateek, batez ere Cuatro eta Telecinco, aste osoa daramate munduko futbol txapelketan Brasilek Alemaniaren kontra jasotako jipoi historikoa gorai-patzen, 1 eta 7! Bizkor ahaztu zaie *Roja* maite eta garaiezina Holandaren aurka barregarri geratu zela: 1 eta 5.

Burura etorri zait eskolan haur guztiok inoiz egin duguna: Gure kontrako irainak zeudenean betaurreko itsusiak edo hortzetako aparatu zatarra izateagatik, berehala begiratzten genuela ingurura ea nork zuen gurea baino itsusiagoa zen aparaturik, guk jasotako irainak desbideratu eta bik-tima berriarengan proiektatzeko asmoz. Gauza bera egin dute Cuatro eta Telecincoko esatari eta kazetariak, eurek jasotako irainak estaltzeko edo, egundokoak esan dituzte Brasilen aurka, poztasun tonu sadiko eta makabro batekin. Zeinen gozoa den mendekua ezta? Brasilek irabazi baitzion Espainiari Federazioen Kopako finala. Mendekua gozoa izango da, bai, baina ze edukazio falta den umekeri horietan aritzea. Ea noiz lortzen dugun euskaldunok gure euskal selekzio propioa izatea. Bat eta zazpi, eta zazpiak bat, ez baita gauza bera.

ASTEA GOIENAN				
GOIENA TELEBISTA				
ASTELEHENA, 14	MARTITZENA, 15	EGUAZTENA, 16	EGUENA, 17	EGUBAKOITZA, 18
				
'Harmailatik'	Etxaguen auzoa	Gurutze Gorria	'Amaia DJ'	Sukaldaritza
Eskoriatzan zapatuan egindako EskoExtrem mendi bizikleta martxa ikusi ahal izango da, besteak beste. 19:30	Aramaioiko Etxaguen auzoko bazterrak era-kutsiko dituzte, Mireia Bikuña kazetariak gidatuta. 19:30	Gurutze Gorriko sal-bamendu taldea eza-gutzeko aukera izango da <i>Debagoiena</i> zuzenean saioan. 20:00	Whatsapp eta sare sozialen bitartez gaz-tetxoek eskatutako kantuen bideoak jarri-ko dira saioan. 19:30	Aretxabaletako lñaki Uribetxebarriak odoloste <i>ferrero rotxeak</i> nola prestatu erakutsiko du. 20:00
12:00 Jaiak: Debagoieneko jaiak	12:00 Harmailatik	12:00 Jaiak: Debagoieneko jaiak	12:00 HARIRA	12:00 Debagoiena zuzenean
12:45 Ibilean	12:30 Jaiak	12:50 Antzerkia	12:30 Ur eta lur	12:30 Ikusmira
13:20 Astea iruditán	13:10 7 Akorde	13:20 Harmailatik	13:15 Ibilean	12:45 Jaiak: Debagoieneko jaiak
13:30 Debagoiena zuzenean	13:30 Amaia DJ	13:50 Zorion Agurrak	13:55 Zorion Agurrak	13:30 Erreportajea
14:30 Berriak	14:00 Debagoiena zuzenean	14:00 Debagoiena zuzenean	14:00 Debagoiena zuzenean	13:55 Zorion Agurrak
15:00 Udakoak	14:30 Berriak	14:30 Berriak	14:30 Berriak	14:00 Debagoiena zuzenean
15:45 Ikusmira	15:00 Harmailatik	15:00 Onein	15:00 7 Akorde	14:30 Berriak
16:00 Debagoiena zuzenean	15:30 Onein	15:30 Harira	15:30 Onein	15:00 Amaia DJ
16:30 Berriak	15:55 Zorion Agurrak	16:00 Debagoiena zuzenean	16:00 Debagoiena zuzenean	15:30 Onein
17:00 Jaiak	16:00 Debagoiena zuzenean	16:30 Berriak	16:30 Berriak	16:00 Debagoiena zuzenean
17:20 Erreportajea	16:30 Berriak	17:00 Kantari	17:00 Erreportajea	16:30 Berriak
17:40 Jaiak	17:00 Ikusmira	17:30 Jaiak: Debagoieneko jaiak	17:25 Ur eta lur	17:00 Udakoak
18:25 Zorion Agurrak	17:15 Udakoak	18:15 Ikusmira	18:00 Harira	17:45 Ur eta lur
18:30 Berriak	18:00 Ikusmira	18:30 Berriak	18:30 Berriak	18:30 Berriak
19:00 Amaia DJ	18:15 Ikusmira	19:00 Antzerkia	19:00 7 Akorde	19:00 Ikusi irratia
19:30 Harmailatik	18:25 Zorion Agurrak	19:30 Harira	19:30 Amaia DJ	19:50 Ikusmira
20:00 Debagoiena zuzenean	18:30 Berriak	20:00 Debagoiena zuzenean	20:00 Debagoiena zuzenean	20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak	19:00 Kantari	20:30 Berriak	20:30 Berriak	20:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean	19:30 7 Akorde	21:00 Debagoiena zuzenean	21:00 Debagoiena zuzenean	21:00 Debagoiena zuzenean
21:30 Berriak	20:00 Debagoiena zuzenean	21:30 Berriak	21:30 Berriak	21:30 Berriak
22:00 Harmailatik	20:30 Berriak	22:00 Harira	22:00 Amaia DJ	22:00 Harira
22:30 Debagoiena zuzenean	21:00 Debagoiena zuzenean	22:30 Debagoiena zuzenean	22:30 Debagoiena zuzenean	22:30 Debagoiena zuzenean
23:00 Berriak	21:30 Berriak	23:00 Berriak	23:00 Berriak	23:00 Berriak
23:30 Ibilean	22:00 7 Akorde	23:30 Jaiak	23:30 Jaiak	23:00 Berriak
23:50 Debagoiena zuzenean	22:30 Debagoiena zuzenean	00:00 Debagoiena zuzenean	00:00 Debagoiena zuzenean	23:45 Kontzertua
00:20 Harmailatik	23:00 Erreportajea	00:30 Harira	00:30 Amaia DJ	
	23:50 Debagoiena zuzenean			
	00:20 7 Akorde			

TELE-ALBISTEAK

Oñatiko 'Busti Zaitetz' eguna, Eibarko jokalaria eta Goretti Abaunz, gaur Goienan

'Debagoiena zuzenean' saioan eskainiko dira gai horien erreportajeak

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE
Astelehenetik egubakoitzera bitartean, askotariko gaiak landuko dira Txomin Madinak aurkezten duen *Debagoiena zuzenean* saioan 20:00etan, 21:00etan eta 22:30ean.

Gaur, astelehena
Esklerosia zer den azaltzeko, *Busti Zaitetz* eguna ospatu zuten atzo, domeka, Oñatin. Bigarren urtez antolatu duten eguna nola joan den ikusi ahal izango da gaurko saioko lehenengo erreportaje.

Bestalde, Eibar taldea Bergarako Agorrosinen hasiko da pres-tatzen denboraldi historikoa eta gaur, astelehena, jokalariek Ber-garan egingo dute lehenengo entrenamendua. Bada, entrena-



Domekan Oñatin ospatu zen 'Busti Zaitetz' eguneko irudi bat. | GOIENA

mendu horrek ematen duena ere ikusi ahal izango da saioan.

Azkenik, Oñatiko Goretti Abaunz abeslari gazteak EITBren

Stars.Izarrak kalean saioan parte hartu du eta bertako esperien-tzia kontatuko du *Debagoiena zuzenean* saioan, gaur.

Joseba Egibar jeltzalea 'Harira' saioan izango da eguaztenean

Gipuzkoako zein Euskal Herriko politika eta Eusko Legebiltzarreko jarduna, berbeta gai

A.T. | ARRASATE
Joseba Egibar EAJren bozera-maile Eusko legebiltzarrean eta Gipuzkoa Buru Batzarreko pre-sidente Goiena telebistan izan-go da eguazteneko *Harira* saioan, 22:00etan hasita.

Gaurkotasunezko kontuez ariko da Eneko Azkaraterekin: Gipuzkoako zein Euskal Herri-ko politika kontuez; datorren urtean Udal eta Foru hautes-kundeak direla-eta, Debagoie-neko EAJren alkategaien hau-taketaz; eta lurraldearen egoe-ra politikoaz, ekonomikoaz eta sozialaz.

Horretaz gain, Eusko Lege-biltzarreko jarduna ere berbe-ta gai izango dute: bake ponen-tzia, Kutxabank dela eta EH Bildurekin darabilten hika-mi-



Joseba Egibar. | GOIENA

ka... Baita Andoni Ortuzarrek, EAJren presidenteak, oraintsu Madrilen egindako eskaintzaz ere, Kontzertu Ekonomikoaren tankerako akordio politikoa proposatu baitio Ortuzarrek Espainiari.

ARRASATE IRRATIA

En Tol Sarmientoren diskoa zozketatuko da egubakoitzean

Gaztetxoaren artean modan dagoen En Tol Sarmiento tal-dearen *Zure Mundua* diskoa zozketatuko da Arrasate Irra-tian egubakoitzeko *Uda giroan* irratsaioan. Parte hartzeko deitu 943 25 05 05 telefonora edo bestela idatzi *irratia@goiena.com* helbidera. Hartu parte eta zorte on, entzule!

Gazte informazioa edota baserritarren azoka hizpide, asteen

Uda giroan irratsaioan, mar-titzenetan, gazte informazioa emango du Gazte Bulegoko Dorleta Kortazarrek; 11:00etan izango da hori. Etzi, eguazte-na, berriz, Enplegu eta Gara-pen Agentziako Marga Gar-mendiak baserritarren azo-kari buruzkoak kontatuko ditu 11:00etan baita ere.

Eska ezazu irratian eguraldi iragarpen pertsonalizatua

Astelehenetik egubakoitzera bitartean Joxe Landa egural-di adituak eguraldi iragarpe-nak egiten ditu baina entzuleak toki zehatzen bateko eguraldia jakin nahi badu aukera du iragarpen pertsonalizatua eskatzeko. Horretarako, 943 25 05 05era deitu edo *irratia@goiena.com* helbidera idatzi beharko da.

ZORION AGURRAK



ESKORIATZA
Oinatz Andetxaga Korujo
Uztailaren 19an, 7 urte.
Zorionak, txapeldun!
Ondo pasatu eguna
aitaren, amaren eta
Gentzaneren partetik.



OÑATI
Miren Aberasturi Galdos
Uztailaren 18an, 5 urte.
Zorionak, printzesa!
Ondo-ondo pasatu zure
urtebetetze eguna familia
guztiaren eta, bereziki,
Sararen partetik. Muxu
handi bat. Mua!



ANTZUOLA
Aiora Legorburu Rodriguez
Uztailaren 18an, 9 urte.
Zorionak, Aiora!
Amaiurren eta etxeko
danen partetik.



ARETXABALETA
Oier Portalo Gonzalez
Uztailaren 15ean, 5 urte.
Ondo-ondo pasatu zure
urtebetetzean. Asko
maite zaitugu, Oier, oso
maitakorra eta
bihurritxoa zarelako.
Musu handi bat, bihotza,
etxeko guztion partetik.



ARRASATE
Maialen Martinez Nanclores
Uztailaren 15ean, 2 urte.
Zorionak, txiki! Bi urtetxo
dagoeneko! Ze azkar
pasatu den denbora.
Egun ona pasatu,
etxekoen partetik.



OÑATI
Luka Galdos Etxeberria
Uztailaren 14an, 4 urte.
Zorionak, pottoko!
Azkenian ailau da eguna.
Ondo ospatu! Aittatxo
eta amatxo.



OÑATI
Malen Caro Arriaran
Uztailaren 14an,
urtebete. Zorionak,
maittia! Urtetxo bat
jada; nork esango luke!
Muxu eta besarkada
handi bat etxeko danen
partetik.



OÑATI
Luisa Hernandez
Uztailaren 14an,
urtebetetzea. Zorionak,
amama Luisi! Muxu
potoloak eta besarkada
handi bat etxeko
guztien, baina bereziki,
Marioren eta Enzoren
partetik.



OÑATI
Olaia Molinero Axpe
Uztailaren 13an, 3 urte.
Zorionak! Azkenian hedu
da zure urtebetetze
eguna. Muxu bana
etxeko danon partetik.



OÑATI
Amets Molinero Axpe
Uztailaren 13an, 3 urte.
Zorionak! Zenbat jolas
egin bihar dogun
oporretan! Muxu bana
etxeko danon partetik.



LEINTZ GATZAGA
Amaur Otazu Arzelus
Uztailaren 12an,
urtebete. Aupa,
poxpolin! Honezkero
urtetxo bat! Zelako azkar
pasatu dan! Zorionak eta
patxo handi bat etxeko
danon partetik!



ARETXABALETA
Eider Arias Axpe
Uztailaren 12an, 7 urte.
Zorionak, printzesa!
Ondo-ondo pasatu zure
urtebetetze egunean eta
patxo potolo handi-handi
bat familixa guztiaren, eta
bereziki, Unai eta Iker zure bi
anaia piraten partetik.



ARETXABALETA
Maddi eta Markel Alarcia
Markelek uztailaren 11n, 4 urte eta Maddik abuztuaren
22an, 7 urte. Zorionak eta musu handi bat tia Kontxiren
partetik!



BERGARA
Laia Iñarra Perea
Uztailaren 11n, 2 urte.
Zorionak, politxori. Jarrai
dezazula betiko moduan
irribarre handi batekin
zure albokoak alaitzen.
Muxu potolo bat etxeko
danen partetik.



OÑATI
Ion eta Izar Alzelai
Izarrek uztailaren 11n urtetxo bat egingo du eta lonek
uztailaren 14an, 38 urte. Zorionak, bikote! Amatzoren
eta etxekoen partetik. Ondo-ondo pasatu zuen egunak!



ARRASATE
Manex Muñoz Umerez
Uztailaren 10ean, 7 urte.
Zorionak, txapeldun! Oso
ondo pasatu zure
urtebetetze egunean!
Musu potolo bat
etxekoen eta, bereziki,
zure lehengusu guztien
partetik.



OÑATI
Xabier eta Eider Elguero
Uztailaren 11n. Zorionak
bioi familia guztiaren
eta, bereziki, amatzoren
eta Mikelen partetik!
Oso ondo ospatu eta
patxo handi-handi bana!



ELGETA
Markel Larrañaga Mandaluniz
Uztailaren 10ean, 4 urte.
Zorionak, Markel! Patxo
handi bat etxeko danon
partetik. Ondo-ondo
pasatu eguna.



ARETXABALETA
Oinatz Zabala Frutos
Uztailaren 9an, 7 urte.
Zorionak, txapeldun!
Ondo pasatu zure
urtebetetzean. Muxu
asko Iraideren, aitatxo-
ren eta amatzoren
partetik.



ARETXABALETA
Oier Oroiz Antoñana
Uztailaren 8an, 2 urte.
Zorionak, Oier! Musu
potolo bat etxekoen
partetik, txapeldun! Eta
Naiararen, Marenen eta
Nerearen partetik, beste
musu erraldoi bat!



OÑATI
Ibon Emparanza
Uztailaren 8an, 39 urte.
Zorionak, aitatxo!
Ondo-ondo pasatu
eguna eta patxo handi
bat. Ane.



ARRASATE
Markel Blanco Murillo
Uztailaren 8an, 5 urte.
Zorionak, txapeldun!
Ondo pasatu zure
urtebetetze egunean.
Muxu handi bat zure
famiariaren eta, bereziki,
Haimarren eta Iruneren
partetik.



BERGARA
Sara eta Mikel Unamuno Andueza
Mikelek uztailaren 4an 7 urte eta Sarak uztailaren 20an,
3 urte. Zorionak, bikote! Ondo pasatu urtebetetze
eguna eta musu handi bat etxeko guztion partetik.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Sar zaitez *Goiena.net* atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu;
bete eskatutako datuak, eta bertan argitaratuko da zorion agurra, baita GOIENA paperean ere.

Posta elektronikoa

Mezua bidali *zorionagurrak@goiena.com* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitez Goienaren ordezkariatzaren batera.

Egubakoitzeko
11:00ak arte
jasotako zorion agurrak
bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak
hurrengo astean
argitaratuko ditugu.

AI, ENE!

Euriak ez zaitzala mugikorretik aldendu

Euskal Herrian bizi bazara baina uneoro eta alde guztietan mugikorra erabili gura baduzu, hona hemen asmakizun aproposa.
www.twitter.com



AHOBERO

"Uste dut telebista saio onenetako bat bezala sartuko dela 'Salvame' historian"

KIKO HERNANDEZ | TELEBISTAKO TERTULIAKIDEA

Bost urte bete ditu *Salvame* saioak. Urteurrena ospatzeko egindako prentsaurrekoan, alboko esaldiaz gain esan zuten telebistako aurkezle orok aurkeztu gurako lukeen saioa dela. Zertarako behar dira kritika onak, norbera bere buruaz hain harro egonez gero?
www.formulatv.com

EGURALDIA



Max. **23°**

Min. **13°**

Astea hodeiekin eta euri apur batekin hasiko da. Tenperatura aldaketarik ez.
euskalmet.net

ASTELEHENKOA

goiena

2014-07-14

HAMARREKOA

Aitzol Barandiaran Oporrak hartu berri harrapatu dugu ataundarra; bertsolaria delako ezagutuko dute hainbatek, eta beste hainbatek, Euskadi Irratiko 'Faktoria' saioko lanagatik | TXOMIN MADINA

"Publiko aurrean gabiltzanean, plaza hutsik imajinatzen dut"

1. Barandiaran eta ataundarra. On Jose Migelen tartekoa?

Ez dut uste. Ataunen abizen gutxi izatearen fama daukagu; ez dago sekula esaterik, baina gertu-gertukoa denik ez dut uste.

2. Bertsolaria, kazetaria, gidoilari... Uneoro hitza duzu lanabes.

Bai, eta aldi berean, zorteko sentitzen naiz: horrelako lan baten sorkuntza landu dezakezu, eta egunero punta ateratzeko erreminta ere bada hitza. Batzuetan, mailua da, besteetan sega, aizkora... Hitzaren dohaina hori da: bakarrik mila funtzio egin ditzake.

3. Zein hitzek eragiten dizu irribarrea? Eta zeinek hotzikara?

Irribarrea, eta aldi berean beldurra, askatasuna hitzak eragiten dit; dena den, irribarrea gehiago. Beldurra, tortura hitzak.

4. Nori zor diozu, ala nori leporatu behar diozu, bertsolari izatea?

Uste dut nire kasuan kasualitateari eman behar dizkiodala eskerak. Etxean ez genuen tradizioirik. Ordura arte sekula ere bertso on bat idatzi gabe neukan, baina 11 urterekin Gipuzkoako txapela irabazi nuen bi bertso idatzita: orduan hasi nintzen bertso eskolan, eta bide baten hasiera izan zen.

3. Zer behar du bertso saio batek zu eroso egoteko?

Garrantzitsuenak da mimoz antolatuta egotea: baliabide onenak dituen bertso saio baten mimorik ez bada, go, saioa ez da ondo aterako.



MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

"Munduko hizkuntza guztiak ulertu eta hitz egiteko gaitasuna eskatuko nioke"

AGM

6. Kazetari moduan, aspaldion irratian zabilta. Mikrofonoak, publikoarekin edo publiko gabe gurago? Publikorik gabe. Publiko aurrean gabiltzanean ere, plaza hutsik imajinatzen dut: kontzentratzeko, publikoa ezabatu behar dut.

7. Zertaz konturatzen da bat, irratian egiten duzun eran, egunkariak atzekoz aurrera irakurtzean?

Laguntzen du konturatzen mundua atzekoz aurrera dagoela: zenbat titular eta azal betetzen den ezer esan gabe; eta atzeko orrietan zenbat istorio anonimo dagoen azaleko berriak baino garrantzitsuagoak.

8. Hitz egitean egiten diren akatsen ehizan ere ibili ohi zara irratian. Lan errazegia, gauza onerako?

Ez; inor mindu gabe umorea egiten saiatuta, pentsa zenbat lagun egiten ditudan erredakzioan! Zortea dugu, lantaldean umorez autokritika egiten duen jende asko dago-eta.

9. Musikan ere sartu duzu muturra Bi bala proiektuarekin.

Musikariz eta bertsolariz osatutako lagun taldea batu eta gauza definitu ezina sortu dugu. Iñaki Gurrutxagaren eta nire ikuskizun bat du abiapuntua: etengabe aldatzen den formatua da, sekulako gozamenaren ematen digun proiektu txikia.

10. Oñatin bizi izandakoa zara. Zer nolako esperientzia?

Oso ona. Kanpokoendako Oñatin bidea egitea zaila zela esan zidaten, baina ez zen horrela izan: urtebete oso polita eta intentsua izan zen.

BIHARAMUNA

AINHOA LARRAÑAGA



Botere harremanak

Botere harremanek egituratzen dute gizartea: lan-harremanek, lagun-harremanek, bikote-harremanek, politika-harremanek... Kuriosoa da ikustea nola sortzen, garatzen eta iraungitzen diren pertsonen arteko harremanak. Egin ariketa sinplea: zuen inguruko hartu-emanak aztertu eta konturatuko zarete, beti dagoela balantzari desoreka eragiten dion alderdi bat. Badela boterea duen bat, bestea baino ahaltsuago dena eta honek darama lidergoa.

Boteredunak baditu baliabideak; zigortzeko batzuetan eta saritzeko bestetan. Boteredunarekin esanekoa izateak ez du beti balio, sarritan, behar da kontra egin. Ez da erreza jakitea noiz eta zenbateraino. Kritika ere jakin behar da kudeatzen. Kritika maila bat onargarri izan daiteke. Zaila da neurria hartzea.

Harremanek behar dute oreka puntu bat. Desoreka dagoenean ez da harreman sanoa izaten. Mendekoak eta menperatzaileak izaten dira alde bakoitzean eta horrek dakar alderdi bat antzutea. Horrelakotan norbere duintasunaren alde egin beharra dago, kosta ala kosta. Kritika eta norbere adierazpen askatasuna norberak gorde behar dituen altxorak dira, norbere muina direlako. Inori, inoiz, inon erasotzen laga barik. Ez dago norbere buruaren kontra jotzea baino eraso mingarriagorik.

%30 deskontua
eguzkitako betaurreko guztietan
BILDUMA BERRIAK!

AURRERATU UDA GARAIARI

Ray-Ban, arnette, VOGUE, OAKLEY

eta askoz gehiago...

BEASAIN • DONOSTIA • EIBAR • ERRENTERIA
IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

J. Carlos Guerra, 1 • Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIÓPTICAS
lehen zerbitzu optikoetan

Promozio hau indarrean egongo da irailaren 15era arte. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.